

IKASLEAREN LIBURUA

Imma Llort i Juncadella

ASIA

ASKOTARIKO KONTINENTEA

Himalaiako Herrialdeak

Nepal • Tibet • Bhutan



INSTITUTO DE ESTUDIOS SOBRE DESARROLLO Y COOPERACIÓN INTERNACIONAL
NAZIOARTEKO LANIKIDETZA ETA GARAPENARI BURUZKO IKASKETA INSTITUTUA
UNIVERSIDAD DEL PAIS VASCO - EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA

IKASLEAREN LIBURUA

Imma Llort i Juncadella

ASIA

ASKOTARIKO KONTINENTEA

Himalaiako Herrialdeak

Nepal • Tibet • Bhutan



INSTITUTO DE ESTUDIOS SOBRE DESARROLLO Y COOPERACIÓN INTERNACIONAL
NAZIOARTKO LANIKIDETZA ETA GARAPENARI BURUZKO IKASKETA INSTITUTUA
UNIVERSIDAD DEL PAIS VASCO · EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA



Bantaba

Giza garapenerako,
hezkuntza globalerako
eta herritarren partaidetzarako
baliabideak

Bantaba izeneko proiektuaren barruko argitalpena da honako hau. Zenbait baliabide eta jardueraren bitartez (webgunea –www.bantaba.ehu.es–, argitalpenak, jardunaldiak, ikastaroak, bideoak, irakas-gidak) Hegoak zera eskaini nahi du, heziketarako guneak, esperientzien elkartrukea, teknologia berrietan oinaritutako lanabesen bultzada, eta herritar sentsibilizazioaren alorreko irakasteko proposamen berrien aplikazioa.

Proiektu hau babesten du:



Egilea: Imma Llort i Juncadella

Irudiak: Laura Castellet

Argazkiak: Sebastià Coy, Carme Fullrachs, Maite Hugueta, Natalie Lebris, Imma Llort, Gene Palacios, Fernando Peleato, Jordi Plana, Antoni Pujante, Barbara Roubicek, Joan Viladomat.

Jatorrizko zuzenketak: Monteserrat Miró

Laguntzaile izan dira eta eskerrak ematen dizkiegu:

Lourdes Albi, Josep Miquel Alegret, Assumpta Eixarch, Montse Fuentes, Nathalie Lebris, Bibendra B. Pradhanaga, Ramón Viladomat (Amics del Nepal), Casa del Tíbet de Barcelona, KEEP (Kathmandu Environmental Project), Mountain Wilderness Catalunya, Nepal Watch, karpeta pedagogikoaren materialak erabiltzea onartu duten eta zuzenketak egiteko orduan beren iritzia eman duten institutu desberdinetako eta hezkuntzaren arloko irakasleak, eta halaber, proiektu hau gauzatzen lagundu diguten pertsona guztiak.

Azaleko argazkiak: Nathalie Lebris

Edizioa eta egokitzea:



Ekonomi Zientzien Fakultatea (UPV/EHU)
Lehendakari Aguirre etorbidea 83 • 48015 Bilbao
Tfnoa.: 94 601 70 91 • Faxa: 94 601 70 40
E-mail: hegoa@bs.ehu.es

Campus-eko Liburutegia, 138 kutxatila (UPV/EHU)
Nieves Cano, 33 • 01006 Vitoria-Gasteiz
Tfnoa.: 945 01 42 88 • Faxa: 945 01 42 87
E-mail: hegoa@vc.ehu.es

www.hegoa.ehu.es

Lege-Zenbakia: BI-263-05
Euskarazko itzulpena: Labayru Ikastegia
Diseinua eta maketazioa: Marra, S.L.
Inprimaketa: Lankopi, S.L.
Bilbao 2005

Jatorrizko edizioa:

L'Ásia. Un continent divers. Pays de L'Himalaia.

El Nepal - El Tibet - El Bhutan. Icaria / Concertacio N/S - Frères des Hommes Europa.
Bartzelona 1999.

AURKIBIDEA

NEPAL



Zer dakizu Nepali buruz?	5
Nepali buruzko datuak	6
Sarrera	7
Zenbait datu ekonomiari buruz	8
Turismoa	10
Nepalgo turismoari buruzko datuak	10
Euskadiko turismoari buruzko datuak	10
Nepalen turismoa egitea	13
Kumari Gurung, emakumezko zamaketaria	18
Nork lortzen du etekina turismotik eta nork jasaten ditu ondorioak?	21
Zer egin daiteke turismoaren ondorio negatiboa murrizteko?	23
Haurren lana turismoari lotuta	29
Glosategia	35

TIBET

Zer dakizu Tibeti buruz?	37
Mapa	38
Sarrera	39
Ibai eta mendien lurraldea	40
Herri nekazaria, herri apala	42
Bizimodu nomada	44
Txinaren okupazioa Tibetean	46
Tibeteko gobernuaren erbestean	52
Ba al zenekiten...?	55
Tibeteko errefuxiatuak	59
Temparen erbestea	63

BHUTAN

Zer dakizu Bhutani buruz?	67
Bhutani buruzko datuak	68
Sarrera	69
Bhutan, bere hiru eskualdeak	70
Hastapenetatik gaur egun arte	73
Budismoa	75
Gempo, ume fraide budista bat	77



Himalaiako herrialdeen mapa


NEPAL



Sebastiá Coy.

Zer dakizu Nepali buruz?

- Ba al dakizu zer erakargune turistiko dituen Nepalek?
- Ezagutzen al duzu adibiderik turismoak herrialde hartzailean duen eragin ekonomiko positiboaz?
- Gai al zinateke azaltzeko zer esan nahi dugun turismoak gizartean eta kulturaren duen eraginaz mintzatzen garenean?
- Zure ustez, zer dakar turismoak gehienbat, onura ala kaltea?
- Emango al zenituzke zenbait ideia gure herrialdeko mendialdeetan turismoak duen eragin negatiboa murrizteko egin daitezkeen ekimenez?
- Gai al zinateke azaltzeko zer den sherpa bat eta zein den bere lana?
- Gai al zinateke munduan haurrak lanera bultzatzen dituzten arrazoietakoz batzuk emateko?



Iturria: Hidden Places of Nepal, Focus For Change-n.

Nepali buruzko datuak

Biztanleria: 24.153.000 (2002)

Azalera: 143.000 km²

Dentsitatea: 167 biztanle km² bakoitzeko

Hiriburua: Katmandu, 669.000 biztanle (1999)

Beste hiri batzuk: Biratnagar, Pokhara, Lalitpur eta Birganj

Gobernua: Monarkia parlamentarioa

Zatidura administratiboa: 75 barruti

Herrialde mugakideak: India eta Txina

Herriak: Indiarren, tibetarren eta mongoliarren ondorengoak

Hizkuntzak: Nepalera (hizkuntza ofiziala) eta beste hizkuntza batzuk, komunitate kultural desberdinei dagozkienak; tibetera da gehien hitz egiten den bigarrena

Hiriko biztanleria: %11,9 (2000)

Biztanleriaren urtez urteko hazkundera: %2,4 (1985-2000)

Bizi-itxaropena: 60 urte gizon eta emakumeentzat (2000-2004)

Alfabetatzea: 59% gizonezkoak %24 emakumezkoak (2000)

NPG per capita: 1.327 dolar amerikar (2000)

Esportaziorako produktuak: Alfonbrak eta tapizak, %45; altzariak, %30; larrua, %5; salerosketa bereziak, %5; landare-produktuak, %3

Giza-garapenaren indizea: 0,504 (2002). Posizioa: 140

Erlijioa: Hindua, %86,2 (ofiziala); budista %7,8; musulmana, %3,8; kristaua, %0,2; beste batzuk, %2

Iturria: *Guía del mundo*, 2003-2004, IEPALA eta *El Estado del Mundo*, 1998, Akal.

Sarrera



Artoa bizkarrean eramaten. Sebastià Coy.

Nepal, Indiaren, Txinaren eta Tibeten artean kokatua, Himalaiako mendi ikusgarriak hartzen dituen herrialdeetako bat da, eta horregatik, turismoak Asian gogokoen dituen lurraldeetako bat da. Lurralde gorabeheratsua da, mendiz josia, eta horrek, komunikazioak zailtzeaz gainera, nekazaritzarako lurren kopurua mugatu egiten du. Lurraldearen %17 baino ez da nekazaritzarako egokia, eta biztanle gehienek jarduera ekonomiko hori dute bizibide. Laborantzarako lurren eskasiagatik, besteak beste, jende gehiena pobrezia-egoeran dago, eta ez ditu turismoak ekartzen dituen onura ekonomikoak jasotzen. Herrialdeko biztanleen %70ek ez ditu behar bezala elikatzeko beharrezkoak diren baliabideak.

1. Fitxa

Helburuak:

- Nepal eta ondoko herrialdeak Asiako mapan kokatzea.
- Nazioarteko ekonomiako oinarritzko kontzeptuetako batzuetara ohitzea: Nazio-Produktu Gordina, Barne-Produktu Gordina, kanpo-zorra, per capita errenta, etab.
- Testu batetik informazio garrantzitsuena ateratzea.
- Kontzeptuez nor bere definizioak egitea.
- Ehunekoak irudikatzea eta barra-historiogramak egitea.
- Kalkulu sinpleak eta konparaziozko kalkuluak egitea.
- Historian Nepalek bere ondoko herrialdeekin izan dituen loturen eta harremanen berri izatea.

Zenbait datu ekonomiari buruz

Nepalek ez du *itsasorako irteerarik*, eta herrialde pobrea da baliabide naturalei dagokienez (paisaia eta ura alde batera utzita).

Bere egoera geopolitikoagatik, Indiaren eta Txinaren artean, Nepali beti komeni izan zaio harreman onak izatea bi herrialdeekin. Gainera, industralizazio eskasa dela eta, herrialdeak ondoko herrialdeetatik lehentasunezko produktuak inportatu behar ditu, eta eta horren ondorioz, gehiago zaindu behar ditu harreman horiek.

Nepal herrialde nekazaria da nagusiki, biztanleriaren %10 baino ez da hirian bizi. Biztanleria aktiboaren %90ek nekazaritza du bizibide (bestela esanda, herrialdeko **Nazio Produktu Gordinaren**-NPG %55).

Nekazaritzan dihardutenen dentsitatea km²-ko 405 pertsonakoa da.

Familiako nekazaritza-ustiaketen %50 oso txikiak dira (horien neurriak futbol-zelai baten erdia baino txikiagoak dira) eta ez dute ekoizten urte oso batean familia osoa mantentzeko beste.

Lurrik ez duten familiek, edo oso gutxi dituztenek, jorنالari moduan lan egin behar dute, edo lur horiek alokairuan hartu, sail eran, lurjabe direnei. Kasu honetan, lurren alokairua uztaren %50 ere izan daiteke horien jabeentzako.

Nekazaritza eremuetako biztanleriaren %10ek ez du lurrik jabetzan, eta derrigor lan egin behar du, *esplotazio-egoeran*, besteren lurretan, edo herrialdeko hirietera edo Indiara emigratu lan bila.

Herrialdeko nekazaritza-produktu nagusiak hauek dira: arroza, yutea, tabakoa, azukre-kanabera, artatxikia, garia, olio-haziak, patatak eta animalientzako bazka.

Nepalgo jarduera industrial oso mugatua da, hortaz, Indiatik inportatu behar ditu bere herrialdea mantentzeko oinarritzko produktu gehienak. Herrialdeko industria nagusia nekazaritza-produktuen prozesatzea eta ehungintza dira. Nepalgo produktuen inportatzaile nagusiak hauek dira: India, AEB, Britainia Handia, Alemania, Japonia, Singapur eta Txina.

Turismoa eta alfonbrak eta tapizak fabrikatzeko industria dira herrialdeko diru-sarrerak nagusiak, alde batera utzita garapenerako nazioarteko laguntzatik datozen diru-sarrerak eta herrialdetik kanpora emigratu duten emakumezko eta gizonezko langile nepalدارrek beren familiei bidalitako dirua.

Historian, Nepalgo biztanleak esplotatu egin dituzte agintean txandakatuz joan diren errege-familiek. Egun, herrialdearen aberastasuna XX. mendeko erosotasun guztiekin bizi diren pertsona pribilejiatuen talde txiki baten esku dago, eta biztanleriaren %60k, aldiz, bizirik irauteko arazoak ditu. Malnutrizioa oso hedatuta dago (5 haurretatik 1 hil egiten da 5 urte bete aurretik, sendatu egin daitezkeen gaixotasunek jota, esaterako, beherakoak edo elgorriak jota. Haur askok, batez ere mutilek, eskola utzi behar izaten dute etxean laguntzeko edo kanpora joateko lanean).

Nepal izan da —oraindik ere bada— biztanleko diru gehien jaso duen munduko herrialdeetako bat, **garapenerako laguntza ofizial** moduan; esanguratsua da, izan ere, herrialdearen garapenerako aurrekontuaren %67 atzerriko agentzietatik edo gobernuetatik dator. Herrialdeko biztanle gehienek ez dute ezer jaso, ezta jasoko ere, laguntza honetatik, eta bizirik irauteko arazoak izaten segitzen dute. Kontua da agentzia emailek interes ekonomikoak eta beren estrategiak dituztela, eta horregatik, garapen-proiektu gehienek ez dutela baliorik biztanlerik pobreenen arazoak baretzeko;

horren guztiaren ondorioz, herrialdearen **kanpo-zorra** gero eta handiagoa da.

Nepalgo gizarte zibila saiatu izan da herrialdeko biztanleen bizi-baldintzak hobetzen, baina demokraziaren aurkako gobernu ustel eta ezgai baten kudeaketarekin egin dute topo, eta horrek gauzak zaildu besterik ez du egin.

Nepalgo biztanleria haziz doa, urtero %2ko erritmoan; elikagaien salmentarekin alderatuz gero, erritmo handiagoan. Baso-soiltzea eta lurraren higadurak eragindako arazoak gero eta larriagoak dira.

Inflazioa eta langabezia dira egun herrialdeak dituen arazorik larrienak.

Herrialde guztietan daude arazoak eta tentsioak, baina baita gauza positiboak ere. Nepalek natura miresgarria du, aberastasun kultural izugarri handia, familia eta komunitate-mailako lotura oso indartsuak eta Europako herrialde askok izan nahiko luketen bizikidetzatza- eta tolerantzia-tradizioa.



Joan Viladomat.

Ariketak:

- 1 Bilatu glosarioan aurreko testuan beltzez azpimarratutako hitzen definizioa eta azaldu horiek zeure hitzekin.
- 2 Azaldu zeure hitzekin aurreko testuan letra etzanez azpimarratutako hitzen esanahia.
- 3 Zein dira Nepalek dituen zailtasun nagusiak?
- 4 Zein alde positibo ditu Nepalek, irakurri berri duzun testuaren arabera?
- 5 Aurreko testuan Nepalez aurkitu duzun informazioa eta herrialdeari buruzko datuak oinarri hartuta, eta atlas baten laguntzarekin, egin beharrezko diren kalkuluak honako hau jakiteko:
 - Laborantzarako lur egokien zenbat hektarea dituen Nepalek (kontuan hartuz herrialdearen hedadura osoaren %17 dela).
 - Euskadik 723.400 hektareako hedadura badu, eta hortik 606.187 hektarea¹ nekazaritzarako lurrak badira (nekazaritza, abeltzaintza eta basozaintza sartzen dira), 2002ko datuen arabera, atera Euskadiko lurraldearen zein ehuneko hartzen duten laborantzarako lurrek.
 - Futbol-zelai batek 0,5 hektarea baditu, zenbat futbol-zelai izango genituzke Nepalgo

nekazaritzarako lurrekin, eta zenbat Euskadiko nekazaritzarako lurrekin?

- Kalkulatu, ehunekotik abiatuta, Nepalgo zenbat pertsona bizi diren herrialdeko nekazaritza-eremuan eta zenbatek duten nekazaritza bizibide. Bilatu datu horien eta guztirakoen arteko proportzioa.
- NPGren datuetatik abiatuta eta Nepalgo NPGren %55 nekazaritza-tatik datorrela jakinda, kalkulatu jarduera honek sorrarazten duen kapitala.

Ondoren, ikertu Kataluniako NPGren zein ehuneko datorren nekazaritza-tatik, eta zeren parekoa den ehuneko hori.

Aberastasunaren banaketa zuzena dela onartuko bagenu, bai gure herrialdean bai Nepalen, kalkulatu per capita errenta, hau da, Nazio-Produktu Gordinak (NPG) duen balioa biztanleko hemen eta Nepalen.

Alde handia al dago?

- 6 Kokatu mapan non dauden Nepal, India, Tibet, Bhutan eta Txina. Margotu kolore berberaz Himalaiako herrialdeak eta beste kolore batez mapan kokatu dituzun gainerako herrialdeak.

¹ Iturria: Euskal Estatistika Erakundea (Eustat).

Helburuak:

- Nepalgo industriaren eboluzioa aztertzea, 50eko hamarkadatik gaur egunera arte.
- Turismoa herrialderako diru-sarrera garrantzitsu moduan ikustea.
- Euskadiko turismoaren garapen-datuak Nepalgoarekin alderatzea.
- Ehunekoa irudikatzea eta kalkulu errazak egitea.

Nepalgo turismoari buruzko datuak

Nathalie Lebris.

Atzerriko lehenengo bisitari eta alpinistak –gizonak eta emakumeak- berrogeita hamarreko hamarkadan heldu ziren Nepalera. Orduz geroztik, Nepalgo industria turistikoa haziz joan da. 1951n 1.500 turista inguruk bisitatu zuten Nepal; 1962an 6.179 lagunek egin zuten; 1970ean 45.970 izan ziren eta laurogeita hamarreko hamarkadan jada kopuruek gora egin zuten nabarmen. 1992an, Nepalek 334.353 bisitari jaso zituen. 1989tik 1992ra turismoaren hazkunde proportzionala gertatu zen. 1996. urtean turismoak 120 milioi dolar amerikarreko irabaziak ekarri zituen, bestela esanda, herrialdeak guztira jasotzen dituen diru-sarreraren bosten bat. 2002an 215.922 lagunek bisitatu zuten Nepal.

Euskadiko turismoari buruzko datuak

2003an², ostalaritzaren sektoreak Euskadiko BPGren %3,63 osatzen zuen eta Euskal Autonomia Erkidegoko biztanle okupatuen % 5,18³ hartzen zuen.

Euskal herritarrek asko bidaiatzen dute. Esate baterako, 2001ean⁴, Euskal Autonomia Erkidegoko biztanleek

2002an, bisitari indiarrek izan ziren nagusi, eta urte hartan Nepal bisitatu zuten turista guztien %30,39 izan ziren. Gainerako bisitari kanpotarrei dagokienez, turisten %8 Japoniakoak ziren, %8 Ingalaterrakoak, %7 AEBetakoak, %6 Alemaniakoak eta beste guztiak leku desberdinetatik zetozen. Esanguratsua da azken urteotan kopuruan gora egin dutela nabarmen Suitzatik, Espainiatik eta Herbeheretatik etorritako turistek.

Bestalde, gora egin du, halaber, Nepalera mendiak igotzera doazen eta Himalaiako ohiko zeharkaldiak egitera animatzen diren turisten ehunekoa: Anapurna igotzen dira, edo Everesteko edo beste mendi txikiago batzuetako kanpamentu nagusira bestela.

Lehen mundua deritzonaren biztanle gehienek esku eskura dute Nepalera bidaiatzea, zerbitzuen kostua eta eskulana merkeak direlako, eta are gehiago gure herrialdekoen aldean. Bestalde, jende askok aukera du aurrezteko, gero oporretan joan edo aparteko gauzak erosteko.

Nepalgo biztanle gehienentzat hegazkin bat hartzea edo besterik gabe opor egun batzuk hartzea, etxetik mugitu gabe bada ere, guztiz ezinezkoa da.

2.900.000 bidaiaria egin zituzten; horietatik %89 estatu barrura egin ziren eta %11 atzerriko herrialderen batera, batez ere Frantziara, izan ere, bidaiari horietatik %42 joan ziren bertara; bigarren postuan Portugal dago, %13 joan baitzen herrialde horretara.

² Iturria: Euskal Estatistika Erakundea (Eustat), 2003.

³ Kontuan hartu barik bidaiaria agentzia, garraio eta ikuskizunetako enpleguak.

⁴ Euskal Turismoaren Txostena. Turismo Mugimenduak Euskal Autonomia Erkidegoan. Familitur 2001. Turismo Sailburuordetza. Industria, Merkataritza eta Turismo Saila. Eusko Jaurlaritza.

Ariketak:


- 7 Irudikatu hurrengo orrialdeko panpinen txantiloian 2002an Nepalera heldu ziren bisitarien ehunekoak, haien jatorriaren arabera.
- 8 Irudikatu barra-grafiko batean, herrialdeka, Nepalera etorritako bisitarien zenbaki absolutuak.
- 9 Euskadin 2003an egon ziren atzerriko bisitarien herritartasunaren datuekin, eta horien ehunekoekin, egin berriro aurreko bi ariketak eta deskribatu Euskadiko eta Nepalgo bisitarien artean jatorriaren aldetik dauden antzekotasunak eta desberdintasunak.

Jatorria	Bidaiari kopurua	%
Alemania	12.685	5,87
Australia	5.789	2,68
Austria	2.450	1,13
Bangladesh	3.635	1,68
Belgika	2.344	1,09
Kanada	3.000	1,39
Txina	3.490	1,62
Danimarka	1.849	0,86
Espainia	3.567	1,65
Estatu Batuak	15.488	7,17
Frantzia	10.497	4,86
Britainia Handia	17.429	8,07
Holanda	5.376	2,49
India	65.629	30,39
Israel	3.498	1,62
Italia	5.879	2,72
Japonia	17.943	8,31
Norvegia	945	0,44
Zeelanda Berria	1.338	0,62
Beste batzuk	24.315	11,26
Pakistan	1.248	0,58
R.O.C.	3.274	1,52
Sri Lanka	997	0,46
Suedia	599	0,28
Suitza	2.658	1,23
Guztira	215.922	100,00

Iturria: Nepaleko Turismo Ministerioa. (2002).
<http://www.tourism.gov.np/tourismstatistics.htm>

Jatorria	Bidaiari atzerritarren sarrera kopurua (2003)	%
Alemania	46.435	10,26
Austria	2.523	0,56
Belgika	11.993	2,65
Danimarka	3.169	0,70
Finlandia	3.153	0,70
Frantzia	95.084	21,01
Grezia	1.812	0,40
Holanda	11.762	2,60
Irlanda	6.398	1,41
Italia	40.367	8,92
Luxenburgo	550	0,12
Portugal	26.887	5,94
Erresuma Batua	73.393	16,22
Suedia	6.186	1,37
Europako gainerako herrialdeak	19.100	4,22
Latinoamerika	23.486	5,19
USA-Kanada	42.117	9,31
Japonia	5.462	1,21
Beste batzuk	32.730	7,23
Atzerritik guztira	452.607	100,00

Iturria: EUSTAT. Turismo establezimendu hartzaileen inkesta.



3. Fitxa

Helburuak:

- Nepalen turismoa egiteko modu desberdinak eta horietako bakoitzaren ondorio ekonomikoak aztertzea.
- Turismoak Nepalerako dituen onurak eta kalteak zein diren identifikatzea.
- Jende desberdinak, turistek, bertakoek, Nepalgo bizomoduari buruz duten iritzia jakitea.
- Nepali buruz herrialdea bisitatzen duten turisten artean zabalduen dauden estereotipoetako batzuk identifikatzea.

Nepalen turismoa egitea

Bidaia antolatuak

Katmanduko kaleetan (Nepalgo hiriburua) turista ugari ikusten dira talde handitan bidaiatuz; luxuzko hoteletan hartzen dute ostatu, interes historikoa eta monumentala duten lekuak bisitatzen dituzte, eta gehienez, haranetik irteten dira Pokhara edo herrialdean kulturaren eta paisaiaren aldetik interesa duten beste gune batzuk bisitatzeko. Turista horietako askok 15 edo 20 eguneko iraupena duen bidaia egiten dute, eta askotan India eta Nepal artean banatzen dira.

Nahiz eta turismo-mota hau den kopuru aldetik garrantzitsuena, Nepalgo biztanleen artean irabazi gu-

txien uzten duena da. Katmanduko bost izarreko hoteletan hartzen dute ostatu turista gehienek, eta hotelok errege-familia nepaldarraren edo herrialdeko oligarkia osatzen duten beste familia batzuen jabetzakoak dira. Aipatzekoa da, gainera, horiek Garapen Industrialeko Banku Nepaldarraren maileguen laguntzaz (oso interes baxutan) eraiki zirela. Banku horrek Garapenerako Britainiar Agentziatik dirua jasotzen du. Hotel horietako langileek oso baldintza txarretan egiten dute lan, esplo-tatu egiten dituzte.



Elefante-zaintzailea. Elefanteak Asiako gauzarik deigarrienetakoa dira. Maite Huguet.

Mendi-espedizioak

Nepal mendi-espedizio askoren egoitza ere bada. Bertan munduko mendi garaienetakoz batzuk daude gero, Nepalen batzen dira kontinente guztietako eskaladaren eta alpinismoaren profesionalak.

Tensing Norgay (sherpa nepaldarra) eta Edmund Hillary (Zelanda Berriko alpinista) izan ziren lehenak, 1953an, munduko gailurra, Everest (Chomolungma, "ama-jainko zuria" tibetarrez) zapaltzen, eta horiei eta geroago hori lortu duten guztiei jarraituz, egungo alpinista gehienek ilusioa gailur horretara heltzea da, bertara heltzeko bide berriak zabalduz edo, beste barik, erronka pertsonal gisa planteatuz.

Nepalgo mendi garaietara igotzeko gobernuari baime-na eskatu behar zaio, eta erantzunaren zain egon (batzuetan urtetan egon zaitezke zain, espedizioak urteko hil jakin batzuetan baino ez dira egiten eta, eguraldiak aukera ematen duenean). Baimen horiek lortzeko –bai eta sartzeko bisatuak lortzeko ere–, unean-unean indarrean dauden tarifak ordaindu behar dira, eta hori beste diru-sarrera bat da Nepalgo gobernuarentzat.

Dena dela, Nepalen, munduko beste herrialde askotan legez, ezin da esan gobernuak lortutako etekin ekonomikoak herrialdeko biztanle gehienek bizi-baldintzak hobetzeko erabiltzen direnik.

Mendi-espedizioek luze jotzen dute, astiro-astiro gailurrera hurbilduz eta gorputzak altuera, presio, tenperatura eta abarretara ohituz joan behar duelako (*giro-ra moldatzea* deritzona). Igoera-aste batek jatorrizko herrialdean zenbait urtetako prestakuntza fisikoa eta hurbilketarako hilabete bat baino gehiago du atzetik. Hori dela eta, azpiegitura konplexua behar izaten da, janari asko eraman behar da, kanpadendak, material tekniko berezia espedizioaren jatorrizko herrialdearekiko irratia edo ordenagailu bidezko komunikazioa bermatzeko, botika-kutxa, etab.

Nepalgo tontor ospetsuetara heltzeko bideak mendi-bidexkak izaten dira gehienetan, eta horietan garraiorako aukera bakarra (mando, asto, eta dzoo batzuek gain) zama bizkarreratzea izaten da.

Urtero, bertako milaka zamaketariren eta "sardar" deritzonak (mendi-espedizioetarako, biderako erosketak egiten dituen eta behe-lurretako zamaketari-taldeak, gidariak eta zamaketariak lortzeaz arduratzen den sherpa) lanari esker egiten dira espedizioak. Sherpak –gizonak eta emakumeak–, 3.000 eta 5.000 m bitarteko goi mendietako biztanleak, dira osperik handiena dutenak, baina herrialdeko beste talde etni-



ko batzuetako kideek ere hartzen dute bizkarrean espedizioen eta txango luzeen materiala.

Mendi-espedizioetan emakumezko zamaketariak eta emakumezko sherpek ere parte hartzen dute. Emakumezko sherpa bat izan zen gainera, Pasang Lhamu, Everesteko igoera batean parte hartu zuen lehen nepal-darra, eta espedizio hartan bizia galdu zuen. Beste emakumezko sherpa batek, Ang Rita-k, 9 aldiz igo du Everest.

Trekking-agentziek⁵ gizonetzko zamaketariak eta sherpak kontratatzen dituzte, eta horren ondorioz, emakumeek lan handiagoa egin behar dute herrietan, izan ere, gizonik ez dagoenez, aurretik egiten zuten lanaz gainera, gizonak egiten zutena egin behar dute.

Mendi-espedizioetan diru asko mugitzen da, aurrez esan dugun bezala, eta aldi baterako lanpostu asko sortzen dira, hala ere, ingurumen arloko kudeaketa egokia egin ezean, oso kaltegarriak izan daitezke ingurumenerako. Everesteko eta jende asko batzen den beste mendietako kanpamentu nagusiko eta altueran dauden kanpamentuetako sarbidea eta inguruak benetako zabortegeak dira. Bertan topa daitezke janari-latak hutsik, kristal apurtuzko mendiak, oxigeno-bonbonak, sokak, lotarako zakuak eta dendak, etab. Horiek guztiak jatorri desberdineko espedizioek utzitako gauzak dira.

Motxila-turismoa

Nepalen, turismorako beste modalitate bat motxila-turismoa da, eta horren barruan sartzen dira bai beren kabuz bidaiatzen duten pertsonak bai “abentura-bidaiak” eskaintzen dituzten agentzien bidez egiten dutenak. Bi aukeretan, bidaiaren barruan txango antolatu bat egoten da Himalaiara, kasuan kasuko iraupena izaten duena.

Nepalen turismoa modu horretara egiten duten pertsonak gutxiago gastatzen dute, baina hotel txikiagoetan hartzen dute ostatu, bertako produktuak kontsumitzen dituzte eta trekkinga egiten dutenean, neurri txikian bada ere, zeharkatzen dituzten herrietako ekonomiari laguntzen diote.

Hala eta guztiz ere, estatistiken arabera txangolariek gastatzen duten diruaren %7 baino ez da herrietan geratzen. Gainerakoa janaria ordaintzeko eta herrialdeko beste leku batzuetatik datozen langileei dagokiena emateko izaten da.

Urtero Nepalgo txangolarien kopuruak (beren kabuz edota agentzien bidez datozenak) gora egiten du %17an. Alokairurako, janarirako eta berogailurako premiak betetzeko baso-soiltze handiak ari dira egiten. Hainbat bidaiarik biodegradagarriak ez diren produktuak eramaten dituzte (latak, pilak, plastikozko botilak), gero horiek txangoan bota egiten dituzte eta herrien kanpoaldean edo ibaiertzetan zabor pilaketa kontrolaezinak sortzen dira.

Landa gunetako ostatu gehienek ez dute komunik, eta izatekotan uretatik hurbil egoten dira, eta ur hori kutsatu egiten dute.

Maite Huguet.



⁵ Trekking: Himalaian, mendian zeharreko txangoa adierazteko erabiltzen den hitz ingelesa da.

Ariketak:

- 13 Egin eskema aurreko testua laburtuz, eta Nepalen dagoen turismo-mota bakoitzeko ezaugarriak banan-banan azalduz.
- 14 Demagun Nepalera nola joan aukeratzeko moduan zaudetela. Zein bidaia nahiago zenukete? Zergatik?
- 15 Aurreko testuak Nepal bisitatzeko eta/edo bertan turismoa egiteko moduez dakarren informazioa oinarri hartuta eta argazkien eta testuaren beraren laguntzaz,

herrialdea bisitatzeko hiru modalitateetako bat aukeratu behar duzue eta informazio-posterra prestatu behar duzue. Posterrean, aukeratutako modalitatearen arabera Nepal bisitatzeko zer abantaila eta desabantaila dauden azalduko duzue. Ariketa bi edo hiru kideko taldetan egin dezakezue. Eskatu Nepalerako bidaien katalogoak bidaia-agentzia batean, lanerako argazkiak lortzeko. Ondoren, zuen lana erakutsi eta azalduko duzue ikasgelan.



Nepali begira

Jarraian datozenak elkarrikketa batetik ateratako adierazpenak dituzue, Anapurna inguruan 2 eta 5 aste bitartean egin dituzten txangolari nepaldarrek eta kanpotarrek egindakoak⁶.

“Turismo-gidaria nauzue. Irabazten dudana diru gehiena gurasoei ematen diet eta beste zati bat gordetzen dut nire ikasketak ordaintzeko. Nire gurasoak baserritarrak dira, eta pobreak direnez, lan hau egin behar dut. Turistengandik jasotzen dudana diruarekin bizirik irauteko beharrezko ditudan gauzak erosten ditut.” (HIRIAN TURISTEN GIDARI LANA BETETZEN DUEN HAURRA.)

“Bidaia amaitzen dugunean, gure turistek ikuspegi zabalagoa izango dute herrialdeko arazo nagusiez, nola bizi garen hemen, nola dagoen egituratuta gizar-te nepaldarra, zein diren bertako tradizioak, bertako erlijioak, nolakoak diren familia barruko harremanak, etab., izan ere, bidaian bertakoekin topo egiten duzu, eta haiekin hitz egiten duzu.” (TREKKING-OPERADORE INGELESA.)

“Oso jende alai eta langilea da. Hauxe da gisa honetako bidaietako ikasgai nagusia: benetan lan egiten baduzu, ez duzu dirurik behar, bizitzaz goza dezakezu. Horrelakoak dira bertokoak, apalak eta atseginak.” (TURISTA KANADARRA.)

“Uzta oso ona ez denean, dirua eskatu beste aukerarik ez dute... interesak oso altuak dira, batzuetan %50ekoak ere bai... oso zaila da haien zat horiek ordaintzea. Eta itzuli ahal badituzte, beraien lurrak eman behar dizkiote mailegu-emaleari, beraien etxera joan eta dena eraman aurretik: sukaldeko tresnak, animaliak, oheak, etab. Batzuetan seme-alabak entregatu behar dituzte, zerbitzari moduan lan egin dezaten mailegu-emalearen etxean.” (NEPALGO IKASTETXE BATEKO ZUZENDARIA.)

“Nik pentsatzen dut jendea nahiko ondo bizi dela. Ez dira goseak egoten, ez dago pobreziarik...”

zoriontsuak dira modu horretan bizitzeko eta plazerra da horrela ikustea.” (TURISTA ALEMANA.)

“Bortxakeria dago emakumeen aurka, baina ia inork ez du horretaz hitz egiten. Arazo ekonomikoak direla eta, gizon askok edateari ematen diote, etxera mozkortuta heltzen dira eta haien arazo guztien errua emazteei leporatzen diete, eta sarritan jo egiten dituzte.” (GIZA-ESKUBIDEEN ALDEKO ELKARTE BATEKO EMAKUMEZKO KIDEA.)

“Jende aberatsa dirutza handia pilatzera ohitu da. Demokraziaren izenean, gainerakoak menpean hartzen dituzte. Nazio-ekonomia askearen izenean, biztanlerik pobreenak esplotatzen dituzte... Horrek azaltzen du zergatik bizi den pobrezia-egoera Nepalgo biztanleriaren %60 baino gehiago.” (ESKOLA-MAISUA.)

“Bost izarreko hoteletako batzuek gau bakoitzeko 100 dolar amerikar kobratzen dituzte (90 bat euro) baina hotel horietako langileen soldadak oso txikiak dira; askotan ez dira familia elikatzeko nahikoa izaten.” (LANGILEEN SINDIKATU BATEKO KIDEA.)

“Bertoko produktuak jan beharrean, kanpotik inportatu behar diren produktuak kontsumitzen ari gara. Ostatu hartzen duten lekuetan geratzen den diru bakarra egurra ordaintzeko eta bertako langileei ordaintzeko erabiltzen da. Kalkuluen arabera, txangoan gastatzen duzun %7 baino ez da herrietan geratzen.” (EKOLOGISTA NEPALDARRA.)

“Beste arazo bat da gazteek Mendebaldeko turisten moduan jardun nahi dutela. Inportatutako arropak janzten dituzte, Mendebaldeko estiloan jaten dute... Droga- menpekotasuna ere zabaltzen ari da. Beren kulturaz eta tradizioez ahaztu egiten dira... Batzuetan pop-musikako kaseteak topera jarrita ikusten dituzu... Jada ez zaie gustatzen beren musika, ezta beren kultura ere.” (EKOLOGISTA NEPALDARRA.)

Ariketak:

16 Zer iritzi dute Anapurnan txango batean parte hartzen duten turistek Nepalez eta bertakoez?

17 Zer pentsatzen dute herrialdeko pobreziaz?

18 Zer alde dago turisten ikuspegiaren eta Nepalgo ekinzaileek deskribatzen duten irudiaren artean?

19 Nola azalduko zenuke turistek bertakoen gainean duten ikuspegi desberdina?

⁶ Hidden Places-etik ateratako elkarrikketak. *Focus for Change*. Ikus bibliografia irakaslearen liburuan.

4. Fitxa

Helburuak:

- Sakon aztertzea zer arrazoi pertsonal edo familia-
rrengatik hasten den Nepalgo gizon edo emakume
bat espedizioetan zamaketari moduan lan egiten.
- Emakumezko zamaketari baten eguneroko lana
ezagutzea.
- Nepalen diru-sarreraren eta bizi-mailaren artean den
harremana aztertzea.
- Enpatiazko sentimendua agertzea gure ez bezala-
ko bizimodua duten pertsonetikiko.

Kumari Gurung, emakumezko zamaketaria

Kumari Gurungek, Nepalgo emakumezko zamaketari batek, azaltzen digu nola bizi diren, bera bezala, mendi-espedizioetako eta trekkingetako janaria, gaso-
genoa, ekipajeak eta bestelako tresnak bizkarrean era-
maten dituzten emakumeak.

“Emakumeok lanok egiten hasi ginen Solukhumbu
Haranean (Everest inguruan) trekkinga zabaltzen hasi
zenean, berrogeita hamarreko hamarkadan.

Honetan dihardugun emakumeak ez gara 6.000 metro-
ko altueratik gora igotzen. Nepalgo leku desberdinetatik
gatoz, baina guztiak ondo ohituta gaude altuerara
eta mendiko bizi-baldintza gogorretara.

Ez da erraza lana topatzea, nekazaritzatik kanpo, gure
herrietan. Gure familiak pobreak dira eta guk derrigor
lan egin beharra dugu. Arrazoi horrengatik, goi-denbo-
raldia hasten denean (7 bat hilabete irauten du, urritik
apirilera), Katmandurantz edo Pokhararantz jotzen
dugu eta sardarren batek espedizioaren baterako noiz
kontratatuko zain egoten gara.

Gero eta emakume gehiago gara, baina oraindik ere
gizon gehiago daude emakumeak baino. Ez dago
gazte askorik. Ni 14 urterekin hasi nintzen, baina 12
urteko haurrak ere badaude. Zamaketari batzuk ezkon-
duta daude, eta beste batzuk ezkongabeak dira, baina
gehienek lan hau uzten dute umeak izaten hasten dire-
nean, baldin eta senideren bat ez badute haien ardura
har dezakeena ama kanpoan dela. Badira 45 urterai-
noko emakumezko zamaketariak, baina oso gutxi dira.

Gogoan dut oraindik hasierako garaia! Lehen espedi-
zioa aitarekin batera egin nuen. Zenbait neska geun-
den; guztiak gentozen gizonen batek lagunduta, nor-
malean familiakoa edo herrikoa bertakoa. Emakume
ezkonduak senarrarekin zetozen. Gogoan dut, gainera,
bazela bakarrik etorritako nesken talde txiki bat. Urte
hartan lau irteera egin genituen denboraldi osoan.
Gero herrira itzuli ginen soroko lanetan laguntzeko, lan
handieneko garaia baitzen.



U.M.N.

Emakume batzuek bi edo hiru denboralditan baino ez
dute lan egiten zamaketari moduan; horrela, ezkonsa-
rirako dirua ordaintzeko, senide baten ospitale-gastue-
tarako, bitxiak edo ehunak erosteko... beharrezko
duten dirua lortzen dute. Baina emakumezko zamake-
tari gehienentzat, aldi baterako lana izan arren, diru-
sarrera eta berme bakarra da familiak urte osoan bizi-
rik iraun dezan. Urte on batean sei edo zazpi irteera
egin ditzakete, bakoitzaren iraupena zein den, izan ere,
badira 10 bat eguneko irteera laburrak eta hilabeteko
irteera luzeak.

Gogorrena irteera heldu bitarteko itxaronaldia izaten
da, Katmandun edo Pokharan. Hiriko bizimodua oso



Joan Viladomat.

garestia da eta itxaroten duzun bitartean, irabazi berri duzun dirua xahutuz zoaz.

Denboraldia amaitutakoan emakumezko zamaketari batzuk gorago edo beherago joaten dira, eskulan premia dagoen lekuetara; beste batzuk etxera itzultzen dira eta gutxi batzuek aldi baterako Indiara emigratzen dute lanean jarraitzeko eta beren diru-sarrerak areagotzeko. Nik ezagutzen ditut zenbait emakume, denboraldia amaitutakoan hirian lanean geratzen direnak: jatetxeetan platerak garbitzen dituzte, harriak apurtzen dituzte bideak egiteko, ehunak edo poltsak egiten dituzte, etab.

Zenbait emakumek, 12 edo 15 urtez zamaketari izan ondoren, erretiroa hartu eta negozio txikia ireki ahal izan dute (taberna, jatetxea, etab.) hirian. Beste batzuk, erretiroa hartzean, saltzaile ibiltari bihurtzen dira, eraikuntzan lan egiten dute edo herrira itzultzen dira.

Emakumeok gizonen moduan egiten dugu lan eta haien moduan kobratzen dugu. Egun batzuetarako edo espedizio oso baterako bizkarrean hogeita hamar kilo eramateko kontratatzen gaituzte eta eguneko 120 edo 139 errupia irabazten ditugu. Guk geure poltsikotik jartzen dugu dirua irteeran, janariaren eta ostatu hartzearen truke. Kontratatzen gaituen agentziak, batez ere espedizio luzea denean, arropa eta oinetakoak ematen dizkigu. Gizonen ematen dieten arropa berbera izaten da, eta handiegia eta oso deserosoa izaten da, horregatik ez dugu jartzen.

Kontratatzen gaituen agentzia handia bada eta zenbait urtetako jarduna badu, garriatzaile-talde guztiarentzako segurua egiten digu, baina agentzia gehientsuek ez

dizu segururik egiten. Segururik gabe, irteeran gaixotu egiten bazara edo istripuren bat baduzu, inork ez du zure gaineko ardura hartzen eta gastuak zeure kontu ordaindu behar dituzu.

Espedizioan gaudenean kanpoan egiten dugu lo, edo ostatu bateko logelan sartzen gaituzte, beste zamaketariek. Horrelako batean lo egitearren 10 edo 20 errupia ordaindu behar izaten ditugu, baina janaria erosten badiegu askotan doan lo egiten uzten digute. Euria bada edo jada altuera handian bagaude, agentziak intendentzia-dendan lo egiten uzten digu.

Gauetz, hotzari aurre egiteko eta denbora emateko, gizonen alkohol asko edan eta kartetan egin ohi dute. Dirutza xahutzen dute eta astun samar jartzen dira. Emakume batzuk kexatu egin dira, taldeko gizon batzuen aldetik sexu-bortxakeria jasan dutela eta. Emakumeok ez dugu hainbeste edaten eta jolasten, eta horrela, diru gehiago aurrezten dugu. Espedizioa 2.000 errupia ere aurrez ditzakegu, batez ere eskupeko onak ematen badizkigute. Aurreztutako dirua familiari bidaltzen diogu eta etxera heldu orduko aspalditxotik gastatuta dago. Zorrak kitatzeko erabiltzen dugu.

Nahiz eta zamaketari guztioi esker egiten diren espedizioak, gure lana gutxietsi egiten dute, eta sari eskasa jasotzen dugu trukean. Soldata justuak jaso beharko genituzke, eta espedizioak antolatzen dituzten agentziek ateratako etekinen zati handiago bat".

Nepalgo nekazaritza eremuetan ohikoa da jada emakumeek herritik alde egitea lan bila, aldi baterako baino ez bada ere. Emakume askorentzat zamaketari lana egitea aukera bakarra da nork bere dirua lortzeko, familiako gizonen kontrolpean egon gabe.



Ariketak:

- 20** Irakurri birritan testua, batean edukia ulertzeko eta bestean albait hurbilen sentitzeko Nepalgo emakumezko eta gizonezko zamaketarien lanetik. Orain adierazi testuak sorrarazi dizkizun sentsazioak eta galderak.
- 21** Deskribatu emakumezko zamaketari baten soslai pertsonala, familiakoa eta profesionala.
- 22** Egin beharrezko dituzun kalkuluak honako hauek eurotan duten balioa asmatzeko (jakinda 1.000 errupia nepaldar 15 euroren pareko direla):
- Nepalgo zamaketari batek denboraldi batean irabazten duena.
 - Zamaketari batek aurrezten duena egiten duen espedizio bakoitzeko.
 - Espedizio batean gastatzen duena, elikadura aldetik eta ostatu hartzeko orduan dauden premiei erantzuteko.
 - Zenbat aurrez dezakeen zamaketari batek denboraldi osoan, kontuan hartuta batez beste denboraldiko sei espedizio egiten direla, irteeren artean Katmandun edo Pokharan nork kontratatutako zain daudela dituzten gastuak aintzat hartu gabe.
- Zenbat aurrez dezakeen 15 urtez zamaketari aritu ondoren.
 - Orain ikertu zenbat balio duen joan-etorriko txartel batek Bilbotik Nepalera eta kalkulatu zenbat urtez izan beharko luke zamaketari Kumasi Gurungek Bilbora etortzeko beste diru izateko.
- 23** Zure ustez, ba al da gure herrialdean Nepalgo garraitzaileena bezain gogorra den lanik? Zein?
- 24** Ezagutzen al duzu Nepalera bidaia egin duen inor? Zer bidaia-mota egin zuen? Zer aurrekontu zeukan? Zenbat denbora eman zuen bertan?
- 25** Ezagutzen al duzu inor Nepalera joan nahiko lukeena eta oraindik bertan egon ez dena? Zergatik ez da oraindik hara joan?

5. Fitxa

Helburuak:

- Turismoaren ondorioez, positiboez zein negatiboez, kontzientziatzea.
- Ikertu zer biztanle-taldeek lortzen duten etekinik handiena turismotik eta nork jasaten dituzten gehien ondorio negatiboak.
- Informazioa bilatzea, informaziorako dossier bat osatzeko Nepalen turismoa egiteko dauden modalitateetako bati buruz.
- Arduragabekeriak eta pertsonetikiko eta ingurumenetikiko errespeturik gabeko jarrerek izaten dituzten ondorio negatiboez kontzientziatzea.
- Gaian aditua den pertsona baten iritzia jasotzea.

Nork lortzen du etekina turismotik eta nork jasaten ditu ondorioak?

Turismoaren garapenak kostu eta onura jakin batzuk ekartzen ditu beti. Beren diruaren truke, turistek, eguneroko ohituretatik iheska, hainbat produktuz eta zerbitzuz gozatzea espero dute.

Turismoa hartzen duen herrialdeak egoeraren jabe izan behar du, eta onurak (lanerako aukera berriak, biztanle-sektore baten bizi-kalitatea hobetzea) eta kostuak (pribatutasun eza, inflazioa edo bizi-kostuak gora egitea) neurtu. Pertsona batentzako lanpostua sortzeak beste baten modus vivendi-aren susnatsipena ekar dezake.

Nepalen turismoaren bitartez sartzen den diru gehiena herrialdetik irteten da, Nepalen sortzen ez diren eta turismoak eskatzen dituen luxuzko kontsumorako produktuak ordaintzeko (igogailuak, autobusak, jeepak, aire girotua, alkohola, etab.).

Turismoaren bitartez sartzen den diruak on egiten die herrialdeko oligarkiaren poltsikoei (luxuzko hotel handien eta bidaiagentzia subsidiario europarren jabeak), baina diru hori ez da erabiltzen herrialdeko biztanle gehientsuenen bizi-baldintzak hobetzeko.



Joan Vidalomat.

“Turismoaren industria pribilegiatu gutxi batzuen esku dago, eta ez da herrialdea gara dadin laguntzeko erabiltzen. Nahiz eta turismoa diru-sarrera garrantzitsua den, eta hori herri-garapenerako erabili beharko litzatekeen, bestela jokutzen da. Azken 20 urteotan errododendroen baso eta zelai zabalak moztu dira, trekkingetarako beharrezkoa den erregaiaren eskaria betetzeko.

Estatistiken arabera, mendizale batek nepaldar batek kontsumitzen duen egurra halako 5 edo 10 kontsumitzen du.

Aldi berean, herrialdearen balio kultural batzuk mehatxupean daude. Droga-kontsumoa, kontrabandoa eta prostituzioa goraka doaz. Herrialdeko biztanle gehienek ez dute etekinik jaso turista aberatsen bisitatik.

Behar bezala elikatzeko, janzteko eta bere biztanleei aterpea emateko egunero-egunero borrokatzen den herrialde batean, nazioarteko laguntza ekonomikoa jaso ahala bere kanpo-zorra areagotuz doan herrialde batean, turismoa irtenbide ona izan liteke.”

Iturria: Nepal Tourist Watch Centre.



Ariketak:

- 26** Nork lortzen du etekinik handiena turismotik? Zergatik?

- 27** Adierazi zure ustez nola eta zertan inbertitu beharko litzatekeen Nepalen turismoak sortzen duen dirua, etekinen banaketa orekatuagoa izan dadin.

Ludmilla Tütingi elkarrizketa

LUDMILLA TÜTING KAZETARIA DA, INGURUMENAREN GAINEKO GAIETAN ADITUA, GIZA-ESKUBIDEEN ALDEKO EKINTZAILE ETA NEPAL WATCH TALDEAREN KORRRINATZAILE ALEMANIAN. LUDMILLA 20 URTEZ BAINO GEHIAGOZ BIZI IZAN ZEN NEPALEN ETA ONDO EZAGUTZEN DU HERRIALDEA.

NEPALEN TURISMOAK DITUEN ONDORIOEZ GALDETZEAN, LUDMILLAK HAUXE ERANTZUN ZUEN:

“Nire ustez arazorik larriena kulturari dagokiona da. Turistak erdi biluzik (praka motzetan eta elastiko eskotatuekin) paseatzen ikustea... Horrek haserrarazten nau gehien.

(...) Mendialdeko herrietan okerragoa izaten da. Emakumeak ez dira etxetik irteten ausartzen turistak horrela jantzita pasatzen ikusten dituztenean. (...) Nepalgo gobernuak, trekkingerako baimenak ematean, turistei eskatu beharko lieke jantziekin-eta errespetuz jokatzeko.

Turismoaren beste ondorio negatiboetako bat sortzen duen desoreka ekonomikoa da. Oso jende gutxi lortzen du etekina turismotik. Goi-mailako klaseak dira, besteak beste, hotel eta agentzia garrantzitsuenen jabeak, eta horiek dira etekinik handiena lortzen dutenak. Pobreak ondorio negatiboak baino ez dituzten jasotzen. (...) Gizarteko kostuak ez dira sekula kontuan izaten.

ZER PENTSATZEN DUZU TURISMOAK NEPALEN DITUEN ONDORIO EKOLOGIKOEZ?

Hori ere arazo larria da. (...) Ezin esan daiteke mendizaleak direnik ingurumenean egiten diren suntsipenen arduradun bakarrak. Mendi-espedizioak ere oso kaltegarriak izan dira. Horientzat helburu bakarra tontorrera heltzea eta garaikurrak jasotzea da. Espedizioetan istripuak izaten dira. Mendebaldeko pertsona bat zaurituta badago edo hil egiten bada, helikopteroa eska daiteke, ospitalera eraman dezaten. Gizonezko edo emakumezko nepaldarra bada horren beharra duena, ez dago horrelako zerbitzurik.

ESAN OMEN DA, GAINERA, TURISMOAK ARAZOAK SORTU DITUELA BELAUNALDIEN ARTEAN. ZER DERITZOZU ZUK HORRI?

Egia da belaunaldi gazteenek, turistekin izandako harremanengatik, eta telebistan eta zineman ikusitakoaren

ondorioz, Mendebaldeko bizimoduaz ideia bat badutela. Uste dute Europan mundu guztia dela aberatsa, ez dagoela arazorik, etab. Ez dute beren gurasoen moduan gogorlan egin nahi, eta negozio bat sortzea errazagoa delakoa daude. Egoera ez da erraza, ez baitute soroan lan egin nahi, baina ez dute beste irtenbide asko ere.

NEPALEK ESTRATEGIAZ ALDATU BEHARKO LUKEELA USTE AL DUZU, TURISMOAREN MENPE EGON GABE?

Orain dagoeneko beranduegi da. Urte askotan, neure moduko ekintzaileek Nepalera heltzen zen turista-saldoa geldiarazi zezaten eskatzen genuen, baina orain ezinezkoa da. (...) Egia da turismoaren bidez herrialdera sartzen diren dolarren zati txiki bat baino ez dela Nepalen gertatzen, hotel handiek eskaintzen dituzten zerbitzu gehienak kanpotik ekarriak direla (igogailuak, telebistak, bainuontziak, etab.) eta sartzen den diru gehiena atzera herrialdetik ateratzen dela turismoaren beharrei erantzuteko. Horrexegatik, bost izarreko hotelen aurka nago. Ostatueta datazoen turistek gutxiago gastatzen dute, baina behintzat diru hori herrialdean geratzen da.

Herrietara goazenean, mendi-turismoko ibilbideetan barrena, gauzak are zailago daude eta jendeak etekin txikiagoa ateratzen du. Txangolarien erdiak talde antolatuetan joaten dira, eta zenbait zamaketari izan ohi dituzte, taldeak “behar” duen guztia eramateaz arduratzen direnak. Taldeok harreman eskasa izaten dute herriko jendearekin, eta espedizioako diru gehientsua Katmandura doa, edo herritik kanpora bestela. Beste erdiak beren kabuz joaten diren txangolariak dira, eta horiek bidean aurkitzen dituzten bentetan hartzen dute osatu, eta jan ere bertan jaten dute. Askok uste dute ordainduz gero eskubidea dutela erosotasun eta zerbitzu jakin batzuk eskatzeko, hirian bai leude bezala, lekuaren mugak aintzat hartu gabe: egunero dutxa beroak nahi dituzte, 3.000 edo 4.000 metroko altueran, mendebaldeko janaria eta edariak edozein ordutan, etab.”.



Ariketak:

- 28** Turismoaren zein ondorio negatibo azaltzen ditu Ludmilla Tütingek aurreko elkarrizketan?

- 29** Irudikatu biñeta eran, irudiak eta testua erabiliz, elkarrizketaren edukia.

6. Fitxa

Helburuak:

- Nepalen turismoak dituen ondorio negatiboak murrizteko herri-ekimenetako batzuen berri izatea.
- Alpinismo kataluniarraren zenbait ekimen jakitera ematea, oro har guztiak kontzientzia daitezen, eta

bereziki, ingurumen gaietako sektorea, hala Katalunian nola Nepal.

Zer egin daiteke turismoaren ondorio negatiboa murrizteko?


EMAN ITXAROPENA JAINKOEI

“Mendi-lepoa, 8.000 metroko altueran, benetan urrun egon arren, munduko zabortegirik garaiena da egun. 1952ko lehen espedizio suitzar hartatik, beste guztiek, jatorria edozein dela ere, oxigeno-bonbonak, janari-latak, dendak, etab. utzi dituzte, eta ondoren horiek suntsituta geratu dira urakan erako haizeteen ondorioz. (...) Haizeak eta izotzak arin izozten dute dena eta zaborra han geratzen da betiko. Ikuskizuna lotsagarria eta penagarria da.

Esan liteke, espedizioen defentsan, altuera horretan edozein mugimendutarako ahalegina egin behar dela, ikaragarria gainera; ekaitz bortitzen ondorioz askotan arin egin behar dela ihes salbu irteteko, kanpamentu guztia utzita; orain arte, ez dela kontzientziazio ekologikorik egon ingurumenaren babeserako, eta ingurumen horren zati garrantzitsu den mendiaren babeserako, eta zero azpitik 40^o inguruko tenperaturan, atmosferan den oxigeno faltarekin, bizirik ere ez dagoela. Hala eta guztiz ere, kontuak kontu, espedizizoz espedizio 41 urtetan aztarna lotsagarria geratu da zabor eran, eta horrek paisaia eta ingurua degradatzen du.

Ez da estetika kontu hutsa; etorkizuneko belaunaldiei errespetua zor zaie, izan ere, mendiak al bait egoera naturalenean eta basatienean aurkitu behar dituzte.

Hego-lepoan batutako oxigeno-bonbonekin espedizioa egingo da laster erakundeen laguntzarekin, eta bertan, hamarkada bakoitzeko argazkiez gainera, Chomulungma edo Everesten historia liluragarriari lotutako objektuak aurkeztuko dira. (...) Gizadiak jainkoen etxea zikintzea ere lortu du.”⁷



Hego-lepoa (8.000 metroko altuera), Nepal.

Ariketa:

- 30** Erreparatu irudiari eta saiatu ikusten duzuen deskribatzen. Ondoren irakurri “*Eman itxaropena jainkoei*” testua eta komentatu.

Nepalen turismoak dituen ondorio negatiboak direla eta, kezka gero eta handiagoa da bai nazioarteko talde ekologikoen artean, bai alpinismoaren munduan eta bai bertako biztanleen artean.

Azken urteotan nazioarteko espedizioak antolatu dira Himalaian beste espedizio batzuk mendi-kanpamentuetan utzitako zaborra batzeko, esaterako, Everest, Amadablanen, etab.

1993an alpinista kataluniarren talde batek (Lluís Belvis, Òscar Cadiach, Manuel de la Mata, Lluís Ràfols, Ernest Bladé, Magda Nos, Jaime Altadill, Emili Civis eta Josep Antón Pujante) helburu bi izan zituen jomugan: Everesteko gailurrera heltzea lehen igoeraren 40. urteurrena ospatzeko eta garbiketa-operazioa egitea, izan ere, Everest benetako zabortegia zen jada. Edmund Hillaryk, Everesteko tontorra zapaldu zuen lehen alpinistak, espedizioaren ohorezko buruzagi izatea onartu zuen.

⁷ Iturria: *Devolver la esperanza a los dioses*, 1993ko urriaren 24an Josep Antoni Pujantek La Vanguardiarako idatzitako testuaren zati bat.

Nepalgo gizarte zibila lanean dabil bertako biztanleak eta kanpoko turistak sentsibilizatzeko, turismoak ingurumenean eta gizartearen eragiten duen kaltea murrizteko. Besteak beste, azpimarratzekoa da KEEPE-en eta ACAP-en lana.



KEEP⁸

Honen helburua da Katmandutik irten aurretik al bait xangolari gehien jakinaren gainean jartzea, mendian txangoan dauden egunetan kalte ekologikoa eta kulturala ahalik eta txiki-ena izan dadin.

Hori lortzeko hainbat jarduera antolatzen dituzte:

1. Informaziorako eta sentsibilizaziorako ariketak.

Trekking-aldietan KEEPEko bulegoek 50 eta 60 txangolari artean hartzen dituzte egunero. Turista gehienek KEEPEko bulegoa bisitatzen dute informazioa eskatzeko trekkingari buruzko oso alderdi zehatzen gainean (zein diren lekuri onenak mendian txangoak egiteko, zer den eta nola sortzen den **mendi-gaitza**, zenbat ordaindu behar zaion **eguneko zamaketari bati**, etab.). Zalantza horiek guztiak argituta, turismoak kultura eta ekologian eragiten duen kaltearen berri ematen zaie.

Aldiro-aldiri gaiari buruzko buletin bat argitaratzen dute eta goi-denboraldian ostiralero doako konferentziak eta diapositiba-emanaldiak antolatzen dituzte, Nepalgo **biodibertsitateari** eta **ekoturismoari** buruz.

2. Lanbide-heziketako jarduerak nepaldarrentzat.

KEEPEk ingeles klaseak eta lehen sorospenei buruzkoak ematen dizkie gidariei eta zamaketariei. Ekotrekkingari buruzko ikastaroak ere ematen dituzte, sektoreko profesionalentzat.

3. Garbiketa-jarduerak.

Bertako eta atzerriko bolondresen taldeak antolatzen dituzte, trekkinga egiten den inguruak garbitzeko.

KEEPEk honako baliabideak erabiltzen ditu bere jarduerak finantzatzeko: kideen kuotak (bertakoenak zein atzerrikoenak), norbanakoen edo Nepaleko eta atzerriko elkartearen dohaintzak eta liburuak, postalen, ura arazteko iodo-pastillen, **xaboi biodegradarriaren** eta elastikoen salmenta. Dena dela, fondoak biltzea arazo garrantzitsua da oraindik ere. Edozein modutan ere, ez dute Nepalgo gobernuaren laguntza ekonomikoa.

KEEPEn arazoetako bat bisitariak bulegora erakartzea da. Egunero KEEPEtik igarotzen diren 50-70 lagunetatik, 10-15ek baino ez dute azkenik trekkinga egiten. Trekkinga egiten duten gehientsuek (%60 gutxi gorabehera) agentziaren bitartez egiten dute, eta ez dira KEEPEn edo ACAPen bulegotik igarotzen, eta beren kabuz trekkinga egiten dutenen %40tik %15 baino ez da hemendik igarotzen. Arazo hori konpontzeko eta txangolari-kopuruak gora egin dezan, diru gehiago erabili nahi dute publizitaterako, banaketa hobetu (Nepalen trekkinga eskeintzen duten bidaia-agentzia eta operadore turistiko guztietara eta Nepalgo munduko enbaxada guztietara hel- tzea) eta aire-konpainiekin harremanetan jartzea, hegaldian beren informazio-triptikoa banatzera konprometitu daitezen.


Ariketak:

- 31 Azaldu zeun hitzekin aurreko testuan deskribatutako espedizio kataluniarraren helburuak. Noiz eta zergatik egin zen? Nork hartu zuen parte eta zer egin zen batutako materialarekin?
- 32 Zuen ustez, era horretako jarduerak garrantzitsuak eta beharrezkoak dira?
- 33 Bilatu entziklopedian eta azaldu zeure hitzekin testuan beltzez agertzen diren hitzen esanahia.
- 34 Ezagutzen al duzu gure herrialdean antzeko helburuak dituen erakunderik?
- 35 Azaldu hitz hauen esanahia:
"Izan zaitez gonbidatua, eta ez turista.
Ikasi besteen kultura errespetatzen".



⁸ KEEPE Kathmandu Environmental Education Project-en laburtzapena da, eta aldi berean ingelesez "mantendu" esan nahi du. <http://www.keepepnepal.org/>

- 36 Zer esan nahi dute?
- 37 Argazki hauek KEEPeK Nepalen, turismoaren goi-denboraldian, antolatutako erakusketako paneletakoak dira. Azaldu zein den erakusketaren helburua eta panel bakoitzaren edukia.



- 38 Zuen ustez mendi-turismoak ere ondorio positiboak eta negatiboak ditu gure herrialdean? Zein dira? Eman turismoak Euskadiko mendialdetan eragindako kalteen zenbait adibide, zeuk ikusitakoak edo baten batek azaldutakoak.
- 39 Zuen ustez, gure herrialdean neurriak hartu beharko lirateke turismoak ingurumenean eta kulturen eragin ohi duen kaltea saihesteko? Nor da horren arduraduna?: gobernua, turismoa egiten dutenak, bertako biztanleak, etab. Zergatik?

Annapurna Conservation Area Project (ACAP)

ACAP⁹ proiektua Anapurna aldeko (trekkinga egiteko inguru ospetsuenetakoa) ingurumenaren eta kulturaren babesa bermatzeko sortu zen. Horretarako, lurrak erabiltzeko modu desberdinak erabili ziren, batetik, ingurumenaren kudeaketa egokia bermatzen zutenak, eta bestetik, inguruko komunitateen garapena bultzatzen dutenak.

Esan daiteke, beraz, parkeena edo natur erreserbena baino proiektu malguagoa dela, izan ere, proiektua gorabehera, bertako biztanleek aukera dute iraupeneko nekazaritza tradizionalarekin jarraitzeko. Kontrola dago nekazaritzak, larreek eta basotik ateratako produktuek kalterik ez izateko eta ingurumenaren babesa bermatzeko, eta bertako komunitateak arduratzen dira horretaz.

Proiektuak oreka bilatzen du, batetik, bertako biztanleen eta txangolarien premien eta, bestetik, ingurumenak dituen premien artean. Hori lortzekotan energia gordetzeko proiektu berriak sortu behar dira, eta bestelako energiak erabili behar dira ahal den neurrian turismoak eragindako kaltea murrizteko, lurrak eta inguru hartako 40.000 biztanleek etorkizun hobea izan dezaten.

Helburu hori lortzeko, ACAPen ustez ezinbestekoa da bertako biztanleek jardun-eremu guztietan parte hartzea. ACAPen laguntzari esker, bertakoek bizibaldintza hobea dituzte, eta gerora begira, bizi-kalitate horri eusteko bermeak ezartzen dira. ACAPek onartzen du ingurumen-arazoak gizartekoei lotuta doazela, eta hori dela eta, inguruko kulturari euste-



Maite Huguet.

ko lan egiten du. Proiektuko puntu nagusiak kontserbazioa eta hezkuntza dira. Nahitaezkoa da heziketa eta laguntza teknikoa zein finantza-mailakoa jasotzeko aukera ematea gune babestuan bizi direnei. Proiektuak ez du arrakastarik izango, bertako biztanleen eta bisitarien artean halako sentsibilizazio puntu bat lortzen ez bada.

Zein da ACAPen egitekoa?

ACAPek hainbat jarduera egiten ditu beste hainbeste arlotan, ingurune naturalaren babeserako eta inguruko komunitateek bizirik irauteko dituzten premiei erantzuteko.

1. Basoen kontserbazioa

- Gune komunitarioak sortu dira, egurra eta abereentzako belarra lortzeko.
- Heziketa-ikastaroak egiten dira basozaintzako, janariez arduratzen direnentzako, ostauetako langileentzako, etab.
- Nekazaritza eta basogintza programak.

2. Bestelako energiak

- Gero eta gehiago erabiltzen da eguzki-energia.
- Energia hidroelektrikoko lantegi txikiak eraikitzea.
- Gasogenoz hornitzeko zentroa sortzea inguruan.
- Sukaldeen eta ur-berogailuen ezaugarri teknikoak hobetzea.

3. Kontserbazioa eta hezkuntza

- Alfabetatze-programak antolatzea.
- Ikus-entzunezko hezkuntza-programak.
- Garapen jasangarriari buruzko programak eskolatan.
- Ingurumenari buruzko gaien liburutegia sortzea.
- Sentsibilizazio-kanpainak.
- Gazteentzako heziketa-programak.
- Sentsibilizaziorako materiala prestatzea.
- Bisitariarentzako museoak eta informazio-guneak sortzea.
- Heziketa-bisitak komunitateetako arduradunentzat.

⁹ Informazio gehiago nahi izanez gero: <http://www.south-asia.com/Kingmah/tonproj.htm#1>

4. Turistentzako sentsibilizazio-programak

- Ikus-entzunezko muntaketen bidez egiten dira, informazio-guneetara egiten dituzten bisitetan.
- Informazio eta sentsibilizazio erakusketak.
- Jarrera-araudi bat sortzea, al bait gehien murrizteko turismoaren ondorioak.
- Ingurumenaren aldetik eredugarria den ostatuaren maketa erakustea.


5. Komunitatearen garapenerako proiektuak

- Bideak eta zubiak konpontzea.
- Emakumeentzako jarduera osagarrien programak.
- Osasun-zentroak, klinikak eta planifikazio familiarerako zentroak sortzea.
- Osasun-hezkuntzarako eta txertaketarako programak.
- Komunak eta kontrolatutako zabortegi txikiak eraikitzea.

- Edateko uraren hornidura hobetzea eta iragazki biologikoak erabiltzea.
- Herrietan nekazaritza-metodo berriak sartzea.

6. Ikerketa eta heziketa

- Inguruko animalia- eta landare-espezieei buruzko inbentarioa egitea.
- Kalkulu bat egitea kalterik jasan gabe inguruak urtero gehienez zenbat turista har ditzakeen zehazteko.
- Heziketa-ikastaroak nekazaritza eremuetako osasun-langileentzat eta ostatueta arduraduentzat.
- ACAPeko langileentzako heziketa, erakundearen emaitzak areagotu ahal izateko.



Erregai gutxi kontsumitzen duten sukaldeak. Lourdes Albi.

Ariketak:

- 40 Idatzi elkarrizketa eran ACAPi buruzko aurreko ataleko informazioa.
- 41 Zein dira zuen ustez ACAP proiektuak izan ditzakeen zailtasunik handienak bere helburuak lortzeko?
- 42 ACAPen lanak ba al dakar elementu berririk, KEEPen helburu eta jardueren aldean?



Mountain Wilderness

Mountain Wilderness – Mundu osoko alpinistak goi-mendien alde – 1998an Italian jaiotako nazio-arteko erakundea da, egun elkarte nazionalak dituen munduko hainbat txokotan.

Erakunde horrek helburutzat du mendiarekin harremanen bat duten guztiek ingurumenarekiko kontzientzia gero eta handiagoa hartzea, oraindik kutsatzeko dauden lekuak eta mendiko baliabide naturalak babestea, eta arriskuan egon arren, oraindik salba daitezkeen lekuak berreskuratzea.

Horien jardueren oinarri izaten dira jendearen arreta pizteko ekimen deigarriak egitea eta mendian dauden mehatxuen berri ematea. Bestelako ekimenak ere egiten dira, eta horietan erakundeko bazkide guztien parte-hartzea funtsezkoa izaten da jarduera eraginkorra eta sendoa izan dadin. Ohikoak dira, esaterako, sinadurak biltzeko kanpainak, salaketak, etab.

Ekintz hauetaz gainera, informazio eta sentsibilizazio jarduerak ere egiten dira.

Estatu espainolean bi talde daude nazioarte sare honekin lotuta: Kataluniako Mountain Wilderness¹⁰ eta Ayllón, Guadarrama eta Gredoseko Mountain Wilderness¹¹.



Sebastià Coy.

Ariketak:

- 43** Zuen ustez, Mountain Wilderness bezalako erakunde batek funtzio jakinik al du gure herrialdean?
- 44** Aipatu zenbait antzekotasun eta desberdintasun Mountain Wildernessen lanaren eta KEEPe edo ACAPe Nepal en egiten dutenaren artean.

¹⁰ <http://www.mountainwildernesscatalunya.org/>

¹¹ <http://www.lanzadera.com/mwagg>

Helburuak:

- Nepalgo haurrak lan egitera behartzen dituzten egoera pertsonal eta familiarak ezagutzea.
- Nepalgo haurrei lana zein egoeratan ematen zaien jakitea.
- Haur langileen antolaketaren adibide bat aztertzea. Beren eskakizunak eta jarduerak zein diren jakitea.
- Nazioarteko harreman ekonomikoek (trabak jartzen dituzte hegoaldeko produktuak iparraldeko merkatuetara sartzeko orduan, eta hegoaldeko ekoizpen-

prezioak zehazten dituzte, laneko esplotazio-egoera bultzatuz hegoaldeko herrialdeetan) hegoaldean haurrek egiten duten lanaren gainean zenbaterainoko ardura duten aztertzea.

- Modu arduratsuan kontsumitzeko beharraz kontzientziatzea, eta erosten ditugun produktuak esplotazio-egoeran egin diren jakitea, eta batez ere, Hegoaldeko herrialdeetako haurrek egin dituzten.

Bizirik irauteko lan egitea

Haurren lana laguntza handia da familiaren ekonomiarako. Etxean, soroan eta animaliak zaintzen egiten duten lanagatik ez balitz, familia pobreek arazo larriak ziango lituzkete bizirik irauteko. Sarritan haurrek kobratu gabe egiten dute lan, zerbitzari moduan aberatsen etxean, janari truke, familiaren gastuak murrizteko. Beste batzuk hirietan lana topatzen saiatzen dira, baina eskarmentu faltagatik, eskolatu gabe egoteagatik eta hain gazte eta hain laño izateagatik, haur langileek esplotazioaren menpe jarraitzen dute. Nahiz eta haien lanak nazioaren ekonomiari on egiten dion, ez da aintzat hartzen eta oso txarto ordainduta dago. Haur hauen lan eta bizi baldintzak oso gogorak dira. Gehienak ezin dira eskolara joan, eta ez dute inolako osasun-laguntzarik. Sarritan, haur langile hauek gaitzak jasaten dituzte, egiten duten lan-motagatik.

HAURREK HERRIALDEKO EKONOMIAREN IA SEKTORE GUZTIAN PARTE HARTZEN DUTE, BAITA ARTISAUTZA-SEKTOREAN EDO ARTISTIKOAN ERE. HAURREK TAPIZAK EGITEN DITUZTE, ZURA LANTZEN DUTE, METALEZKO LANAK EGITEN DITUZTE, ETAB.; TURISMOAK OSO GUSTUKO DITUEN PRODUKTUAK DIRA, ETA ESPORTAZIOETAN BALORATUAK.

Iturria: Carpet Weaving Children in Nepal – CWIN¹²

Txiki-txikitatik (10 urte baino gutxiagorekin), haurrek soroan lan egiten dute, garraitzaile aritzen dira (30 kiloko pisua ere hartzen dute bizkarrean), galtzadarriak egiten dituzte, errepideak konpontzen dituzte edo erai-kuntzan aritzen dira. Haur askok familia aberatsen etxeko beharrak egiten dituzte edo ikastun moduan egoten



Joan Viladomat.

dira tabernetan, jatetxeetan edo hoteletan. Jabe askok beren menpe dauden haurrak bortxaz hartzen dituzte.

Nepalen, munduko beste herrialde batzuetan legez, mutilek lehentasuna izaten dute. Nahiz eta etxeko lanetan eta nekazari moduan laguntzen duten, neskak familiarako zamatzat hartzen dira. Pertsonarik kontserbadoreen ustez, alferrik xahutzea da nesken janarirako, hezkuntzarako eta osasunerako dirua ordaintzea, izan ere, une egokia heldzean (16 bat urterekin) senarra topatuko dute eta beste familia bateko kide izango dira.

¹² Carpet Weaving Children in Nepal (CWIN) Nepalgo haur langileen erakundea. <http://www.cwin.org.np/index.htm>



Ariketak:

- 45 Laburtu 10 lerrotan aurreko testua.
- 46 Zuen ustez ba al da harremanik nekazaritza eremuetako familia nepaldarrek duten seme-alaba kopuruaren eta haien egoera ekonomikoaren artean? Zergatik?
- 47 Zergatik dute nahiago Nepalgo kontserbadoreenak mutilak ekarri, neskak ekarri baino?
- 48 Aurreko testuko informazioa eta jarraian aurkituko dituzuen datuak oinarri hartuta, idatzi egunkari-artikulu bat Nepalgo nesken eta mutilen bizimoduan dauden antzekotasunak eta desberdintasunak azalduz.
- Mutilen aldean, nesken bikoitzak du malnutrizioa.
 - Jaiotzen diren 1.000 neskatatik, 150 bost urte bete aurretik hiltzen dira. Jaiotzen diren 1.000 mutiletatik, 144 bost urte bete aurretik hiltzen dira.

Eguneroko batez besteko lanorduei buruzko datuak		
ADINA	NESKAK	MUTILAK
5-9	3,39	2,33
10-14	7,31	4,93

- Mutilen %76k eta nesken %30ek oinarrizko ikasketak egiten dituzte.
- Nepalgo nesken %40 16 urte bete aurretik ezkontzen dira, eta %10, aldiz, 10 urte bete aurretik.
- Lan egiten duten haurren %66 mutilak dira.
- Neskak mutilak baino ordu gehiagoz aritzen dira lanean.

Non egiten dute lan? Zer lan egiten dituzte?



Sebastià Coy.

Nepalen neska eta mutil askok te-ekoizpenean lan egiten dute, bai soroetan, bai **prozesatze eta paketatze fabriketan**. Industria honek tea sortzen du, bai **barne merkatura-ko, bai esportatzeko**. Kalitatezko tea turista askok eramateko erosten duten produktuetako bat da. Hau da lanean haur gehien hartzen duen industrietako bat. Neskak eta mutilek pertsona helduek beste egiten dute lan, baina gutxiago ordaindu ahal zaie eta errazagoa da horiek kontrolatzea. Adin txikikoek errupia 1 kobratu ohi dute jasotzen duten te kilo bakoitzeko, eta fabrikaren jabeak 15 errupiako irabazia du kilo bakoitzeko. Baldintza hauetan lan egiten duten adin txikikoak behartsuak eta alfabetatu gabeak izaten dira.

Eskuz egindako tapizak esportaziorako produktu nepalдар baliotsuenetakoak dira. Kalitateagatik eta prezioagatik, Nepalgo tapizek merkatu ziuera dute Europako herrialde askotan, batez ere Alemanian.

Milaka lagunek emigratzen dute nekazaritza guneetatik hirira tapiz-fabriketan lan egiteko. CWIN delakoaren datuen arabera, tapiz-fabriketako langileen bi heren 16 urtez azpitiko umeak dira. Horietako asko **herrialdeko talde etniko minoritarioetakoak** dira, nekazaritza guneetatik datozen eta ez dira sekula eskolatik pasatu.

Haurrekin batera bitartekari batzuk joaten dira fabriketara, eta horiek haurren soldaten zati handi bat jasotzen dute. Lehenengo 3 edo 6 hilabeteetan haurrek ez dute egindako lanaren ordainik jasotzen, oraindik lanbidea ikasten ari direlakoan. Ondoren, egindako lanaren arabera kobratzen dute –180 eta 200 errupia bitartean (gutxi gorabehera 2,70 eta 3,23 euro bitartean) metro koadroko-, bestela esanda, 20-25 errupia (0,50 euro) eguneko. Tapizak Nepalen zuzenean erosten dituztenek (turistak gehienbat), metroko 45 eta 100 euro artean (lanaren kalitatearen arabera) ordaintzen dute horien truke. Tapiz horiek egiten dituzten haurrek egunero 12 eta 16 ordu bitartean egiten dute lan, aireztatu gabeko eta hezetasun handiko leku itxi eta ilunetan; horren ondorioz, **esplotatuak** izateaz gain, arnasketa eta birika gaixotasunak izaten dituzte.

Ariketa:

- 49** Azaldu zeure hitzekin aurreko testuan beltzez azpimarraturiko hitzen esanahia.

Aisialdia

Bizimodu gogorra izan arren, haur langileek, beste haur batzuek eta helduek oro har gozatu egiten dute herriko festetan, kaleko jolasetan eta zaharren kontu, istorio eta mitoak entzunez.

Ahozko kontu asko mitologia hinduistari buruzkoak dira, eta horrek ere izan du eraginik Nepalgo tradizioan. Txikiek eta helduek adi-adi entzuten dituzte ahozko tradizioari esker belaunaldiz belaunaldi igaro diren istorioak. Indian azaltzen diren istorio berberak dira, baina lekuan lekuko zehaztapenekin, entzuleentzat hurbilekoak izan daitezten. Telebistak eta zineak pantailaratu-tako istorioak dira, kontakizunei batasuna emanda eta bertsio ofizial bati jarraiki.

Beste kontu batzuk jendearen eguneroko arazoei buruzkoak dira, baldintza atmosferiko ezin okerragoei buruzkoak, nekazaritza eremuetan aurrera egiteko zailtasunei buruzkoak, ezkontzari buruzkoak, gobernu-eredu idealari buruzkoak, adinekoei zor zaien errespetuari buruzkoak, etab.

Ahozko tradizioaren helburua da, aisiarako aukera emateaz gain, belaunaldi gazteenei kultura jakin baten balioak, arauak eta jokabideak transmititzea da.

GANESH, ELEFANTE BURUDUN JAINKOA



Kondairak dioenez, orain dela urte asko, Shiva izeneko erregeak eta bere emazte Parvatik seme bat izan zuten. Umea jaio eta gutxira, erregeak, oso indartsua eta ausarta bera, mendietarantz jo zuen, eta hainbat urtez egon zen bertan.

Egun batean, denbora luzea igarota, erregea etxera itzuli zen, jauregira. Sartu aurretik leihotik begiratu zuen eta bere emaztea ikusi zuen, gizon altu eta indartsu batekin hitz egiten. Ezezaguna iritzita, lapurtzat jo zuen eta emazteari min eman ziezaiokeela pentsatu zuen. Bitan pentsatu gabe, gelara sartu, ezpata atera eta burua moztu zion.

-Ai, ene, zer egin duzu? –egin zuen oihu erregekin.

-Lapur hau akabatu dut –erantzun zion erregeak.

-Madarikatua! Burua moztu diozun mutil hau zure semea da. Ez al duzu ikusten zu bezain altua eta indartsua dela! Badira urte asko kanpoan zaudela eta gure semea asko hazi da –adierazi zuen erregekin negarrez.

-O, Jainko maitea!, zer egin dut, zoritxarreko honek? Neure semea hil dut. Zerbait egin behar dut hau konpontzeko!

-Jainkook, lagundu! -ozen egin zuen oihu erregeak.

Eskaera entzutean, jainkoek esan zioten, semea bizi zedin, aurretik igarotzen zen lehen izaki bizidunari burua moztu behar ziola, eta berehala semeari jarri.

Une hartantxe gorteko elefante bat igaro zen bere aurretik eta erregeak, zast! Burua moztu eta semearen sorbalden gainean kokatu zuen. Handik gutxira semea berriro bizirik zen; hori bai, geroztik elefante burudun printzea izango zen.

Printze hura Nepalgo eta Indiako jainkorik ospetsuenetakoa bihurtu zen. Jende guztiak jotzen zuen harengana aholku eske. Printze hura Ganesh zen eta egun oraindik ere zorte ona dakarren ustea dago.

Ariketa:

- 50** Demagun haur horietako bat zaretela. Haurren lanari buruz eta, batez ere, tapiz-fabriketan lanean dabiltzan haurrei buruz emandako informaziotik abiatuta, deskribatu neska edo mutil horietako baten eguneroko bizimodua. Haien bizitzari buruzko kontakizuna idatzi behar duzue. Ez ahaztu haurrak, nerabeak eta gazteak direla, zuen moduan. Pentsatu zein diren haien ametsak, haien aisiarako uneak, ez dadila dena lanera eta zailtasunetara mugatu.

Haur langileak antolatu egiten dira

Haur hauek beren egoera pertsonal eta familiarrengatik lan egitera behartuta egon diren moduan, esperientzia horrek behartuta antolatu egin dira, eta haurrok borrokatu egiten dira beren lan- eta bizi-baldintzak eta beren antzera dauden beste haur batzuenak hobetzeko.

Nepalgo tapiz-fabriketan lanean diharduten haurren erakundearen (Child Workers in Nepal – CWIN) kanpainaren testua aurkezten dizuegu jarraian; sektore honetan lanean diharduten neska eta mutil guztien eskubideen aldeko testua da.

CWINek helburutzat du Nepalgo tapiz-fabriketan lanean ari diren haurren eskubideen alde egitea, eta beharrezko duten laguntza ematea morrontzaren eta esplotazioaren aurka borrokatzeko. Hori lortzeko, jarraian irakurgai duzuen ohar-liburuan¹³ zehazten diren printzipioei jarraiki lan egitea proposatzen du erakunde horrek.



Haurrak eztabaidan.

¹³ Dokumentu hau "WATCH"-en, Nepal Tourist Watch Centre (NETWAC) delakoaren argitalpenaren, zatia da. 1. Liburukia. 1. Zenbakia. 1993ko urtarril-ekaina.

1. Ezin da onartu 10 urtez azpiko haurrek lan egitea.
2. Fabriketan lan egiteko 10 eta 14 urte bitarteko haurren errekrutatzearekin amaitu beharra dago.
3. Tapiz-fabrikek Nepalgo gobernuko merkataritza-bulegoan erregistratuta egon behar dute.
4. Enpresa hauetan lanean diharduten haurrek eta pertsona helduek herrialdeko erregistro zibilean izena emanda egon behar dute.
5. Gutxieneko soldatak, ehundutako tapizaren metro koadro bakoitzeko, 800 errupiakoa izan behar du.
6. Haurren lan-ordutegia herrialdean indarrean den legeriak zehaztutakoa izango da.
7. Haurren soldataren zati handi bat hartzen duten bitartekarien egitekoa kontrolatu beharra dago, ohitura horrek aurrera jarrai ez dezan.
8. Morrontza-egoeran lan egiten duten haur abandonatuek, umezurtzek eta boundaged¹⁴ direlakoek beharrezko laguntza jaso behar dute dauden egoeratik irten eta birgaitu daitezen.
9. Ehundegi guztiek osasun-zentro bat izan behar dute, sor daitezkeen osasun-arazoei eta lan-istripuei erantzuteko.
10. Fabrika bakoitzak txoko berezi bat izan behar du, langileak (adin txikikoak edo pertsona helduak) eta haien umeak bertan atsedean hartzeko eta aisia emateko.
11. Alfabetatze-programa bat egin beharra dago adin txikikoak lanean dauden fabrika guztietan, izan ere, gehientsuek ez dakite ez idazten, ez irakurtzen.
12. Familiak utzi zituzten haur langileek, etxetik derrigor alde egin behar izan zutenek, laguntza eta orientazioa jaso behar dute familiekin adiskidetzeko.
13. Haurren prostituzioarekin eta adin txikikoen aurkako bortxakeriarekin amaitu beharra dago. Legeak irmo jazarri behar du adin txikikoen eta emakumeen trafikoa.
14. Aseguru bat sortu behar da, sektoreko langile guztientzako balioko duena.
15. Gobernuak leku bat aukeratu behar du tapiz-fabrikak kokatzeko (hiriaren kanpoaldean), horren azpiegiturak sortutako arazoak saihesteko. Tapizak tindatzeko urak oso kutsatuta daude; hortaz, ondo garbitu behar dira eta ziurtatu egin behar da ez dituztela ez lur emankorrak, ez inguruko urak kutsatuko.

¹⁴ Boundaged esaten zaie kobratu gabe beste pertsona batentzako lan egiten dutenei, beraien gurasoen edo arbasoen zorrak kitatzeko.



Ariketak:

- 51** Bilatu antzekotasun bat Nepalgo Adin Txikiko Langileen Erakundearen eskakizunen eta Nazio Batuen Erakundeko Haurren Eskubideen Deklarazioaren (zuen irakasleak emango dizue) artean. Saiatu lotzen eskakizun bakoitza eta deklarazioko eskubideetako bat. Adierazi, kasu bakoitzean, CWINen eskakizuna Haurren Eskubideen Deklarazioan jasotakoa baino gogorragoa ala bigunagoa den.
- 52** Orain egin elkarrizketa zuen aitona-amonei edo ezagutzen duzuen adinekoren bati. Galdetu txikitik lanik egin ote zuten, zer adinetan hasi ziren lanean, zer lan egiten zituzten, zenbat orduz egin behar zuten lan, nola egiten zuten ikasi ahal izateko, nolakoa zen haien lantokia, aisiarik eta jolasteko aukerarik zuten, zenbat kobratzen zuten, familiak seme-alabek lanean ateratako dirua jaso gabe ere aurrera egingo ote zuten, etab.
- 53** Sortu kontakizun labur bat elkarrizketa egindako pertsonaren bizitzari buruz. Deskribatu zer egiten zuen, nola egiten zuen lan, nola ikasten zuen, zertan jolasten zen, etab.
- 54** Orain alderatu istorio hori Nepalgo haur langileari buruz idatzitakoarekin.
- 55** Zer antzekotasun eta desberdintasun daude?
- Gure herrialdeko legeriak onartzen al du gaur egun hurrek lan egitea?
- 56** Entzun al duzue ezer GLOBALMARCHi¹⁵ buruz, hots, 1997-98an antolatu zen Haurren Lan-Esplotazioa Salatze Nazioarteko Martxari buruz? Zer da zehazki gai honi lotuta martxak salatzen zuena?
- Orain alderatu GLOBALMARCH manifestuan egiten ziren eskakizunak eta CWINen (Child Workers in Nepal) printzipioak eta lotu eskakizunetako bakoitza printzipio batekin edo gehiagorekin.
- Zure ustez, galaraz liteke haurren lana Nepal bezalako herrialde batean? On egingo al lioke horrelako neurri batek haurrei eta herrialdeari? Zer ondorio izango lituzke haurrentzat eta haien familientzat?
- 57** Zer gauza aldatu beharko lirateke herrialdean eta nazioarte-mailako harreman ekonomikoetan Nepalgo adin txikikoek lan egiteari utzi ahal izateko?
- 58** Jaso idatziz, ideia moduan, zer egingo zenuketen zuek, bai bakarka zein taldeka, egoera hau alda dadin laguntzeko.

Glosategia

Barne Produktu Gordina (BPG): herrialde batek urte-beteen lortutako aberastasuna neurtzen du, dituen ekoizpen-adar desberdinetako balio erantsia barne. Autokontsumorako nekazaritza-ekoizpenaren balio erantsia eta “merkaturatu ezin diren zerbitzuena” (hezkuntza publikoa, nazioaren defentsa, etab.) BPGren barruan sartzen dira; aldiz, ezkutuko lana, legez kanpoko jarduerak (nagusiki, droga-trafikoa) eta ordaintzen ez den etxeko lana ez dira horren barruan sartzen.

Garapenerako laguntza ofiziala: hitz horiekin definitzen da herrialderik industrializatuenek eta besteen aldean aberatsenak direnek herrialderik pobrenei laguntzeko erabiltzen dituzten baliabideen multzoa. Laguntza hau eman daiteke laguntza tekniko eran, janaritan, izaera multilateralako kreditutan, mailegutan eta dohaintzetan;

guzti-guztiak baldintza berezitan, eta merkatuan daudenen aldean, baldintza hobetan.

Kanpo-zorra: Ramon Tamamesen Ekonomia-hiztegiaren arabera, Estatuak, beste botere publiko batzuek edo nazio-mailako enpresa handiek herrialdeetik kanpoko kapital merkatuetan baliabideak lortzeko prozedura da. Normalean, banku-sindikatuaren zerbitzuen bitartez egiten dira, eta bai jaulkipenerako zein errenboltsorako nazioartean konfiantza ematen duten dirua erabiltzen da (dolarrak, yenak, euroak, etab.). 70eko hamarkadaren amaieran eta 80koaren hasieran, hegoaldeko herrialdeetako asko zorpetu egin ziren beren garapen ekonomikoa lortzeko eta orain hainbat arazo dituzte zorrek ordaintzeko, izan ere, urteak pasa ahala zorraren interesak areagotzen dira, eta zorra haziz doa.

¹⁵ Informazio gehiago nahi izanez gero: <http://globalmarch.org/index.php>

Nazio-Produktu Gordina (NPG): BPGren antzekoa da, baina honek, gainera, hartu egiten ditu langile emigranteek aberriraturako produktuak, bai eta atzerrian diren nazio-kapitalak, alde batera utzita herrialdean diren atzerriko kapitalak eta langile immigranteek esportutako diru-sarrerak.

PER CAPITA ERRENTA: BPG delakoa herrialdean guztira diren biztanleekin zatitzean lortzen da. Teorikoki herrialdeko biztanleetako bakoitzak duen diru-kopurua ematen digu gutxi gorabehera, baina errealtatean BPG ez da berdin banatzen herrialde bateko biztanle guztien artean; biztanle-talde txiki batek per capita errentaren gainetik dauden kantitatea jasotzen ditu eta herrialdeko biztanle gehienak ez dira zifra horretara heldu ere egiten.

Sherpa: batez ere Solu Khumbu eskualdean (bertan dira munduko mendirik garaienak, besteak beste, Everest), 3.000 eta 5.000 metro arteko altueran, Nepalen, bizi den talde etniko baten izena da. Normalean, pertsona bakoitzari jaiotzen den asteko egunaren izena jartzen zaio. Igandean jaiotakoei Mina jartzen zaie, Dawa astelehenean jaiotakoei, Mingma asteartean jaiotakoei... eta besteei Lakpa, Phurba, Pasang eta Pemba. Izenaren aurretik “Ang” aurrizkia jartzen zaie, ...ren seme edo alaba adierazteko; adibidez, Ang Nima. Ahoskatzean Nima esan beharko genuke, eta ez Ang.

Etnia honetatik ezagutu ziren lehen taldeak Darjeeling-en bizi ziren, Indian. Lehen espedizio-gileek kontratatu egin zituzten, eta Tibetetik Everesten azterketa bat egin zuten. Altuera handietan zituzten dohaiak eta lanean agertzen zuten ardura handia ikusita, Sherpak mendiko zamaketari eta gidari nagusi bihurtuko ziren.

sherpa: letra xehean idatzita, Himalaiako mendi-espedizio edo trekking batean egindako lana edo funtzioa adierazten du. Lana kanpamentura ailegatzean hasten da. Sherpek sukaldari lana betetzen dute espedizioetan edo trekkingetan, eta mendian sardar, gidari eta zamaketari dira. Gehienetan sherpa lana Sherpa talde etnikoko kide batek egiten du.

Trekking: Himalaian, mendian zehar txango bat deskribatzeko erabiltzen den hitz ingelesa da.

Zamaketaria: pertsona honek bere bizkarrean hartzen du espedizioetako eta trekkingetako materiala, edo Nepalgo mendialdeko merkatuetarako kontsumo-ondasunak. Bere lana, espedizioak direnean, kanpamentura heltzean amaitzen da.


TIBET



Nathalie Lebris.

Zer dakizu Tibeti buruz?

- Jakingo al zenuke azaltzen pertsona errefuxiatu bat zer den?
- Jakingo al zenuke esaten Tibet zer den? Herrialde bat, herrialde bateko eskualde bat ala lurralde okupatu bat?
- Entzun duzu inoiz Dalai-lamari buruz? Ba al dakizu pertsonaia historikoa ala gaur egungo pertsonaia den?
- Jakingo al zenuke transhumantzia zer den deskribatzen?
- Ba al zenekien Granadako haur bat Tibeteko lama baten berraragiztatze gisa identifikatu dutela?



Gaur egungo Tibeteko banaketa administratibo txinatarraren mapa. Ikus dezakegu TIBETEO ESKUALDE AUTONOMOAK (TAR) Tibeteko lurraldearen erdia besterik ez duela betetzen.



Tibeteko mapa: Tenzin Tsonyik pintatutakoa, Losel (Iturria: Tibet, exposición y conferencias. Tibeteko nazioarteko urtea, 1991).

Sarrera

Tibetek, “elurren herria edo munduko sabaia” ezizenarekin ere izendatutakoak, Mendebaldeko Europak duen hedadura berdina du eta Nepal, India, Bhutan, Myanmar (antzinako Birmania) eta Txina ditu mugakide. Herrialdearen mugaketa gatazkarako arrazoi izan da hainbat unetan herriaren historian.

Tibeteko lurraldean paisai ezberdin anitz daude; batzuk klima epeleko ibar emankorrak dira, pinu eta arte basoekin, eta banbuz inguraturiko ibar euritsuak, bananak eta laranjak ematen dituztenak. Eta beste batzuk beti elurrez estalirik dauden mendiak dira, zazpi mila metroko altitudetik gorakoak. Eta horien artean iparraldeko basamortuko eremu idorrak, erdi aldeko larre eta lakuak eta hegoaldeko ibar emankorrak daude

Tibet munduko zibilizazio isolatuenetako eta erlijiosoenetako bat zen, eta herri subiranoa izan zen 1950. urtea arte; urte horretan Txinako lurralde izatera pasa zen, indarrez. Mantxuriako eta Txinako armadek Tibet inbaditu zuten historiako zenbait garaitan, baina gehienetan etsaia botatzen lortzen zuten. Tibeteko gobernuaren egoitza Lhasan zegoen, herrialdeko hiriburuan, eta Estatu Buruak (Dalai-lama), Ministroen kontseilu batek (Kashag), Nazio Biltzarrak (Tsongdu) eta Tibeteko lurraldea kudeatu ahal izateko administrazioen gorputz handi batek osatzen zuten.



Jordi Plana.

1. Fitxa

Helburuak:

- Tibet munduko mapan kokatzea. Inguruan dituen herrialdeak identifikatzea.
- Bertako geografia fisikoaren, ekonomikoaren eta giza geografiaren ezaugarriak ezagutzea.

Ibai eta mendien lurraldea

Asiako ibai handien arteko gehienak Tibetean jaiozen dira. Yang-Tse ibaia Tibetetik abiatzen da Txinarantz, Shangaira iritsi arte. Mekong Laosen sartzen da eta Tailandiaraino jarraitzen du. Salween hegoalderantz ibiltzen da Myanmareraino. Groc ibaia Txinaraino iristen da. Brahmaputra eta Sutlej ibaiek, Tibetean zati bat bustitzeaz gain, Indiaren iparraldea eta Pakistan ere bustitzen ditu, eta Ganges India eta Bangladesh ureztatzen ditu.

Tibeteko iparraldea (herriaren lurralde osoaren erdia eta Frantziako lurraldearen bikoitza da) goi-lautada harritsua da, basamortu idorra, ekialdetik mendebaldera 1.300 kilometro betetzen ditu eta 4.000 eta 5.000 metro arteko batz besteko altitudea du. Eremitan, Chang Tang (edo iparraldeko lautada) izenarekin ere ezagutzen den horretan, ez dago ibairik, ur bakarra orain ehunka milioi urte existitzen zen Tetis itsasoa gogorarazten diguten lakutxoetako ura da. Hemen ez dago populazio finkorik; talde nomada batzuk –Phala izenekoak, esate baterako– ibiltzen dira beren animalia saldoekin, besterik ez. Gainontzekoak ehiztariak edo mineral bildumazaleak dira.

Chang Tang ibaiak iparraldean Kunlun eta Tanggula mendiak ditu muga, eta mendi horiek bereizten dute Qaidam sakonunetik. Mendebaldean Karakorum mendikatearekin egiten du topo eta hego-mendebaldean Himalaia zentralarekin.

Himalaia¹, Tibetean eta hegoaldeko eta mendebaldeko bizilagunen arteko muga naturala osatzen duena, lurreko mendilerroak gazteena da; Indiako plakak eta Asia kontinentaleko plakak talka egin ondoren sortu

zen duela 50 milioi urte, munduko gailurrik altuena agertzen du eta 17.000 izotzegi baino gehiago ditu.

Tibeteko erdialdean mendikateak dira nagusi; ekialdetik mendebaldera azaltzen dira eta laku handien artean tartekatzen dira. Bertan bizi ziren Tibeteko nomadak, jak, ahuntz eta ardi saldoekin. Herri horietako asko gaur egun sedentarioak dira.

Tibeteko hego-mendebaldean ipar eta hegoalderako orientazioa duten mendi taldea dago, eta Asiako ibairik handien arteko hiruk banatzen dituzte mendi horiek: Lang-Tse, Mekong eta Salween ibaiak.

Hego-mendebaldean Kailas mendilerroa dago, Brahmaputra ibaiak Himalaiarengandik bereizita; mendirik enblematikoenetako bat da eta Asiako kontinente-ko erlijiorik garrantzitsuenen jarraitzaileentzako pelegrinazio zentroa.

Herrialdeko biztanle gehienak hegoaldean biltzen ziren, nekazaritzarako baldintza klimatikorik mesedegarrienak bertan izaten baitziren eta nekazaritzan ari-zen baitziren hainbat landa gunetan bizi ziren nekazariak. Eremitan herrialdeko hiriburuaren gunea ere bazegoen, merkataritza gunerik nagusiak eta monasterio budistak garrantzitsuenak (bai monje kopuruari dagokionez baita herrialdeko politikan zuten eraginari dagokionez ere).

Tibeteko lurraldearen erdiak bakarrik ematen du kolonizatze eta merkataritza ustiatzeko aukera; gainontzekoa izotz iraunkorraren eskualdea da, animalia basati batzuk, besterik ez, bizi diren lekua.


¹ Himalaia izena sanskritotik dator (hizkuntza indoeuropar klasikoa, herri industanikoetako hizkuntza gehien jatorria), "hima" hitzak -elur- esan nahi du eta "alaya" hitzak -gainetik-; beraz, elur iraunkorraren gainetik dauden mendiak.



Potala (Lhasa), Tibeteko monasterio budistarik handiena. Nathalie Lebris.

Ariketak:

- 1 Begira ezazue Himalaiako herrialdeen mapa hau. Idatz itzazue herrialdeen eta bertako hiriburuen izenak eta Tibetekin muga egiten duten herrialdeen izenak.



- 2 Aurreko testuan irakurri duzuen deskribapen geografikoari jarraituz eta atlas baten laguntzaz, adieraz ezazue maparen gainean non dagoen Kailas mendia eta non dauden herrialdeko lakurik gehienak.
- 3 Orain bila ezazue non dagoen Tibeteko Himalaia eta laranja pinta ezazue mapan.
Ondoren, zerrenda bat egin Tibeteko ibairik garrantzitsuenen izenarekin. Hau da, Tibeten jaiotzen diren eta norabide guztietan ibiltzen diren ibai horiek guztiak, Asiako hainbat herrialde bustitzen dituztenak, zerrenda itzazue (Tibeteko jatorritik urak isurtzen dituzten arte); ondoren, ibai bakoitzak zein herrialde bustitzen dituen idatzi.
- 4 Tibeteko eskualde ezberdinen eta bakoitzaren ezaugarrien eskema egin.

2. Fitxa

Helburuak:

- Herrialdearen aberastasun naturalak ezagutzea.
- Budismoak gizartean duen eragina ikastea.
- Bertako jendearen bizimoduaren laztasuna eta xumetasuna ezagutzea, dituzten baliabideen eta

Herri nekazaria, herri apala

Txinak inbaditu zuen arte, Tibet nekazal estatua zen. Bertako ekonomia hegoaldeko baserritarren esku (zerealaren produkzioaren arduradunak), erdialdeko nomaden esku eta eskulangintzaren esku zegoen. Gainontzekoak noblezia eta monjeak ziren, buruzagien klasea osatzen zuten eta erabaki guztiak (ekonomikoak, politikoak, militarrek eta erlijiosoak) hartzen zituzten herriari kontsulta egin gabe. Gizarte egitura horrek Europako Erdi Aroko gizarte egituraren antz handia zuen.

Hegoaldeko baldintza klimatikoak zenbait zereal ekoizteko egokiak dira. Garagarra, 5.000 metrotan ere hazten den zereala, da nagusi.

Garagar irinarekin *tsampa* egiten da, Tibeteko dietan ezinbesteko elikagaia. Ibar baxuenetan garia, patatak, lekariak eta arroza eta artoa ere (gutxiago) hazten dituzte.

Herriko lurren bi heren monasterioenak ziren, gainontzekoa nobleziarena. Dalai-lamak ziren latifundistarik handienak. Dalai-lamak erabakitzen zuen monasterio baten abadiari zenbat lur eman, eta noble batek familiaren ondasunak oinordetzan hartu ahal ote zituen aita

populazioaren oinarritzko beharren arteko oreka mantentzeko ezinbesteko baldintza gisa.

- Gizartean nobleziak betetzen duen papera eta monjeen boterea identifikatzea.

hiltzean. Landa eremuko jendeak eginahal handiz lantzen zuen lurra, baina produkzioaren zati handi bat lurren jabe zen monasterioari edo nobleari ordaintzeko balio zuen.

Nekazaritza lanen egoera eskasa izan arren, soro landuen hedadura txikia izan arren eta klimak herrialdean mugak ezarri arren, Tibet inoiz goseterik jasan ez zuen Asiako herrialde gutxi horietako bat zen. Horren arrazoietakoa bat izan daiteke bertako bizimoduaren xumetasuna eta laztasuna, eta beste bat elikagaien ekoizpenaren eta populazioaren hazkundearen arteko oreka gordetzea lortu zutela.

Populazio nomadaren bizi baldintzak gogorrak ziren, batez ere herrialdeko baldintza klimatikoaren ondorioz, baina trashumantziak abantaila anitz zituen. Animaliak bazkatzen ziren bitartean, budismoaren, bertako erlijio nagusiaren, leku sakratuak bisitatu ahal zituzten. Urrun zeuden herri eta komunitateen arteko lotura ere egiten zuten, eta horrela merkataritzarako eta tokian-tokian lortu ezin ziren lehentasunezko produktuak lortzeko aprobetxatzen zuten. Baina gehien eskertzen zutena mugitzeko askatasuna zen.

Tibeten ekonomia mistoa zen, nekazal produkzioan, abeltzaintzan eta merkataritzan oinarritutakoa.

Herrialdeak artilea (balio handikoa zen), gatza eta jak buztanak esportatzen zituen.

Baina bertako aberastasun nagusia, oraindik ustiatu gabe zegoena, meatokiak ziren; bertako eliza eta noblezia hierarkia horren jabe zen eta kontrolatu egin nahi zituen. Meatze ustiategiak eta harrobiak debekaturik zeuden, azalean ikusten zena besterik ezin zen hartu. Horregatik, urre-erreserba zoragarriak izan arren, Tibetek urrea erosten zuen atzerrian.

Urre-meategi onak izateaz gain, Tibetek zilar, kobre, burdin, ikatz, uranio eta harri bitxiak ere baditu.

Budismoak oso eragin handia zuen -eta oraindik ere badu- herrialdeko populazioarengan. Herri bakoitzean *stupa* bat edo *chorten* bat dago (eraikin erlijioso budis-



Barazki eta haragi merkatua. Maite Huguet.



Dona Khampa jak saldo batekin. Tibeteko ipuin batetik ateratako irudia.

tak), eta bideetan banderatzak eta harriak izaten dira, honako inskripzioarekin: **“Om mani padme hum”**²; horrela, budismoaren nonahikotasuna ekartzen dute gogora. Tibeteko gizon eta emakume askok monasterio-ko bizitza egitea aukeratzen dute, baina Txinak herrialdea okupatu zuenetik kolektibo horrek izan ditu arazorik gehien.

1949an, txinatar armadak Tibet indarrez hartu zuenean, 6 milioi biztanle ziren eta herrialde horrek baldintza guztiak betetzen zituen Nazioarteko Zuzenbidearen arabera estatu independente eta subiranotzat jo zezaten (lurralde zehatza zuen, lurraldean bertan bizi ziren biztanleak eta nazioartean esku hartzeko gaitasuna zuen gobernu bat ere bai). Une hartan, Tibetek harreman diplomatikoak zituen Nepal, Bhutan, Britainia Handia eta Indiarekin.

Hona hemen nazioartean jardun zela eta Tibetek kanpo politika gaietan bere burua definitzeko gaitasuna zuela frogatzekoa: bi mundu gudetan neutral irauteko erabakia hartu zuen, nahiz eta Britainia Handiaren, AEBen eta Txinaren presioa jasan zuten; izan ere, estatu horiek beren armak igaro nahi zituzten tibetarren lurretatik, Japoniak Myanmarreko (lehenago Birmania) igarobidea blokeatu zuenean.

Tibetarrek ez dute sekula beren burua txinatartzat jo, eta txinatarrek ez dituzte inoiz Txinako herritartzat hartu. Beti izan dute nazio desberdinak direlako sentimendua.

Ariketak:

- 5 Zein gizataldek osatzen zuten Tibeteko gizartea Txinak okupatu aurretik? Zein eginkizun betetzen zuen talde bakoitzak herrialdeko ekonomian eta politikan?
- 6 Zein da Tibeteko dieta tradizionalako zerealik garrantzitsuenak? Zein elikagai ekoizten da zereal horrekin? Nekazaritzako zein beste produktu ekoizten du Tibetek?
- 7 Azal ezazu nola banatzen den uztarako lurren jabetza.
- 8 Esan ezazu mineral hauen artean zeintzuk dauden Tibetean:
☐ Uranioa ☐ Zilarra ☐ Pirita ☐ Kobrea ☐ Bauxita ☐ Ikatza ☐ Kuartzoa ☐ Burdina ☐ Urrea
- 9 Kaligrafia egiten ari bazina bezala, saia zaitez tibeterako inskripzioa kopiaitzen:



Om mani padme hum

Ikusi al zenuen inoiz ezer tibeteraz idatzirik? Zer moduz, nolakoa izan da? Kopiaitzen zaila ala erraza izan da?

² Formula sakratu edo bertso bat da, jainkotasuna goستن du eta guztiontzako babesa eskatzen dio. Tibeteko jendeak egunean eta bizitza osoan askotan errepikatzen ditu bertso horiek.

3. Fitxa

Helburuak:

- Tibeteko populazio nomadak dituen zailtasun eta abantailei hurbiltzea.
- Transhumantziaren garrantzia ekonomikoa ezagutzeta.

Bizimodu nomada³

Tibeteko tribu nomadak existitzen dira oraindik ere, ez baitute lehiakiderik. Izugarri teknifikaturiko nekazaritza metodo berriek ez dute lortu Chang Tangeeko lurrak, hain altitude handiko eta muturreko baldintza klimatologikoko lurrak, landatzea. Phalako nomadak biziko ez balira, inor ez litzateke bertan biziko, eta eremu horretan animalia basatiak bakarrik izango lirateke. Hala eta guztiz ere, euren bizimodua baserritarrena baino errazagoa dela uste dute nomadek.

“Begira –esaten zidan taldeko gizonetako batek, gure bizimodua oso erraza dela argi dago. Belarra bera bakarrik hazten da, animaliak (saldoari buruz ari zen) eurak bakarrik ugaltzen dira eta esnea eta haragia ematen digute guk ezer egin behar izan gabe. Nola esango dugu ba gure bizitza gogorra denik?”

Jabetza material askorik ez duten arren eta gehienek, hirian bereziki, gutxiagotzat hartzen dituzten arren, Phalako gizon eta emakumeak euren inguruko jaun-andreak sentitzen dira eta euren bizimodua-rekin pozik daude; gainera, bizitza horrek independentzia handia ematen die.

“Guk ez dugu bazka lurretarako ubiderik eraiki behar, ez dugu animaliak gordetzeko alanbrehesirik eraiki behar ezta belarra erein behar ere. Iraultza Kulturalaren garaian lan horiek egiten behartu nahi izan gintuzten, baina hori ez da guk gauzak egiteko dugun modua.

Chang Tang oso leku ezatsegina da. Eguraldia ustekabea aldatzen da. Eguzki jasanezina izan dezakegu, erabateko lasaitasuna izan, eta bat-batean euria gogotik egiten has daiteke. Chang Tang kontrolatzen edo aldatzen saiatzea ezinezkoa da. Gu ez gara saiatzen, eta egiten duguna horixe da, gure ezagutza erabiltzea bertara egokitze.”

Phalako nomadak animaliangandik jasotzen dituzten produktuetatik bizi dira nagusiki, batez ere esnea eta haragia (euren dietako kaloria eta protei-

- Gurea ez bezalako bizimodu estiloak modu positiboagoan baloratzen ikastea.
- Txinaren okupazioak herrialdeko populazio nomadarengan izan duen eragina ezagutzea.

na iturri nagusiak). Udan, soberan geratutako esnearekin gurina, jogurtak eta gazta egiten dute, eta saldu edo neguko hilabeteetarako gordetzen dituzte.

Emakumeek animaliak jezten eta esnekiak egiten dituzte. Lana errazteko, zenbait familiaren animaliak (jak, ahuntz eta ardiak) elkartu eta lotzen dituzte soka bakar batekin, biribil bat osatu eta buruak erdialderantz jartzen dituzte. Lana egiten duten bitartean, haurrak ondoan aritzen dira jolasean, eta, oso txikiak direnean, amek bizkarrean hartzen dituzte. Animaliak jeztea lan bat baino zerbait gehiago da, emakume guztiak elkartzeko eta hizketan aritzeko unea da.

Animaliangandik elikagaiak lortzen dituzte, baina bizirauteko oinarritzko beste produktu batzuk ere. Ardiek ehuntzeko artilea ematen diete. Animalien haragiarekin eta hesteekin lukainkak egiten dituzte, eta urdailak gurina gordetzeko baliagarri izaten dira.



Jordi Plana.

³ Iturria: M. Goldstein y C. Beall, The remote world of Tibet's Nomads.

Ahuntzengandik ez zuten horrenbeste probetxu lor-
tzen, euren haragia kalitate gutxiagokotzat hartzen
baitzuten. Baina Kaxmirreko ahuntzen larrua bero-
kiak egiteko erabiltzen hasi direnetik eta nazioarte-
an ospetsu egin denetik, ahuntzen balioa handitu
egin da.

Jakak tiratzeko erabiltzen dira, batez ere zamarik
astunenak garraiatzeko. Jak bakoitzak denda baten
erdia eraman dezake; dendak familia nomaden etxe-
bizitzak dira eta 50 kilo inguru pisatzen dituzte
(makilak eta hesolak kontatu gabe). Gainera, denda
jak larruaz egiten dute, eta larru hori erabiltzen dute
berokiak, oinetako zolak, sokak eta botak egiteko
ere. Jakek haragi asko ematen dute eta *dri*-ek (jak
emeak) ahuntzek baino 8 aldiz gehiago eta ardiek
baino 16 aldiz gehiago esne ekoizten dute urtean.
Esne horrekin gazta eta gurina egiten dute. Jak guri-
na tea eta gatzarekin nahasten dute herriko edari
tradizional bat egiteko, xa izenekoa.

Herri nomadek izugarri laguntzen diote herrialdeko
ekonomiari; izan ere, euren animalia saldoek ema-
ten duten aberastasunaz gain, lekualdaketak balia-
tzen dituzte beste tribu batzuekin merkataritzan ari-
tzeko; soberan dituzten produktuak herrialde osoko
populazioaren iraupenerako ezinbesteko diren
beste produktu batzuekin aldatzen dituzte.

Antzina-antzinako garaietatik, Tibeteko tribu noma-
dek Himalaiako herrialdeetako –Tibet, Nepal eta

Bhutan– herri eta hirietako jendeari gatza (gizakien
dietako ezinbesteko elikagaia) emateko ardura
hartu dute. Belaunaldiz belaunaldi, Phalako gizonak,
euren animalia saldoekin, Drabye lakura hurbiltzen
dira udaberrian gatzaren bila (20 eta 30 egun bitar-
tean eskatzen dituen joaneko bidea, eta beste 20
eta 30 egun bitarteko itzulerako bidea egin behar
dute).

*“Pixkanaka egiten dugu ibilbidea, animaliek
atseden har dezaten eta indarra gorde ahal
izan dezaten. Bazka arazoa da, belar berria ez
baita oraindik hasi eta aurreko udatik geratu
denaren menpe daude. Baina lakura iristean,
egoera are okerragoa da, beste nomada batzuk
eta animali gehiago baitaude. Horregatik, hiru
edo lau gizon abiatzen dira taldearen aurretik
gatza zulatu eta pilatu ahal izateko; gainontze-
koek animaliekin iristen garenean kargatu bes-
terik ez dugu egin behar, eta hurrengo egunean
bertan itzul gaitezke.”*

Txinako gobernuak ez zuen Tibeteko tribuetako
populazio nomadaren bizimoduaren alde positiboak
baloratzen jakin, animaliak kendu zizkien eta neka-
zaritza kooperatiba sedentarioetan antolatzaera
behartu zituen (bi urtez gutxienez).

Ariketak:

- 10** Irakur ezazue aurreko testua eta saia zaitezte
nomaden eguneroko bizitza nolakoa den
imajinatzen; alderatu ezazue zuen
bizimoduarekin. Zein ezberdintasun nagusi ikusi
dituzue? Zuen ustez, zoriontsu izan daitezke
bizimodu horrekin? Zergatik?
- 11** Imajina ezazue Phalako jendearekin bizitzera
joaten zaretela. Zertan izango zenukete
moldatzen arazo? Zeren falta sumatuko
zenukete?
- 12** Bada emakumeek bakarrik egiten duten lan bat.
Zein da? Nola egiten dute?
- 13** Zein probetxu ateratzen dituzte animaliangandik?
- 14** Zergatik joaten dira Drabye lakura udaberrian?
Nola egiten dute eta zergatik?
- 15** Txinaren inbasioak euren bizitza aldatu zuen.
Nola eta zergatik?
- 16** Pozik al dago Phalako jendea bere bizitzarekin?
Zergatik?
- 17** Ezagutzen al duzue herri nomadaren bat Asian?
Esan daiteke gure gizartean ere nomadarik
badagoela? Zeintzuk izango lirateke?

Helburuak:

- Tibeteko garaiko historiaren bilakaera ezagutzea.
- Txinak Tibet inbaditzeko eta okupatzeko arrazoi eta ondorioetako batzuk aztertzea.
- Gaur egungo Dalai-lamak gatazkan duen eginkizuna aztertzea.
- Nazio Batuen Erakundeak Tibet eta Txinaren arteko gatazkan eman duen erantzuna ezagutzea.
- Herrien Eskubideen Deklarazioa ezagutzea.
- Txinako gobernuak Tibet okupatzean urratzen dituen Giza Eskubideak eta Herrien Eskubideak identifikatzea.

1949: Txinaren inbazioa Tibeten

1947an Indiak independentzia lortu ondoren, Britainia Handiak Asian duen eragina (militarra behintzat) gutxitzen hasi zen eta Tibet babesgabe gelditu zen; Txinako Alderdi Komunistak (Herrialdean boterea eskuratu berri zuen) egoera horrekin baliatu zen. Mila soldadu txinatar baino gehiago bidali zituzten Tibetera, eta egun gutxiren bueltan Txina Tibeteko lurraldeaz jabetu zen.

Nazioarteko komunitatea (Nazio Batuetan Tibet en autodeterminazioaren aldeko bozketa batean adierazi zuen bezala) Txinaren okupazioa Tibet en ez zela bidezkoa erabaki zuen, estatu subirano bati eraso ziotela eta Nazioarteko Eskubidea urratu zutela. Baina

Nazio Batuen Erakundeak gatazkan sarturiko aldeei diplomaziaren bidez akordio bat lor zezaten gomendatzea besterik ez zuen egin.

Txinako gobernuak Tibet en okupazioa justifikatu zuen esanez betidanik Txinako probintzia bat izan zela; erasoaldiaren helburua populazioa zurikeria feudaletik eta tradizioaren eta erlijioaren zamatik askatzea eta gizarte modernoagorantz bideratzea zela esan zuten.

Delhiko (India) enbaxada txinatarraren txosten batek honakoa esaten zuen:

TIBETEN HERRIAREN BORONDATEA URRATUZ ETA AMA ABERRIARI TRAZIOA EGINEZ, TIBETEN GOBERNUAK ETA KLASA ARISTOKRATIKOAK IMPERIALISMOAREKIN ITUNA EGIN ZUEN, BIDE LAPURRAK ELKARTU ZITUZTEN ETA ASKAPENERAKO HERRI ARMADAREN (TXINAKO ARMADA) AURKAKO ERASOAK PRESTATU ZITUZTEN LHASA HIRIAN, ESATE BATERAKO, MARTXOAREN 19KO HURA... BAINA TXINAKO ASKAPENERAKO HERRI ARMADAK TIBETEN BIDE LAPURREN MATXINADA DEUSEZTATU ZUEN.

ITURRIA: THE LEADER, 1959KO APIRILAREN 1A⁴.

Herrialdearen okupazioaren lehendabiziko urteak ekonomikoki eta sozialki oparoak izango zirela ematen zuen. Txinako agintarien pean eta Dalai-lamaren oniritziarekin, errepideak, ospitaleak eta eskolak eraiki zituzten, baina berehala ikusi zuten zerbitzu berri horiek ez zirela Tibeteko biztanleei onurarik ekiten.

Harrian egindako inskripzioak. Nathalie Lebris.

**Ariketa:**

- 18** Zein argumenturekin justifikatu zuen Txinako gobernuak Tibet en inbasioa?

⁴ The Indian Public on the issue of Tibet-en jasotako deklarazioa. Central Executive Committee Tibet Youth Congress. Dharamsala, H.P., India, 1992.

Herrialdearen eta bertako jendearen hondamena

Txinako okupazio saihestezinaren aurrean, Dalai-lamak, Tibeteko gobernuburu gisa berretsi ondoren, txinatarren eskuetan ez erortzeko Lhasatik ihes egin behar izan zuen eta Indian babestu zen, Tibeteko mugaren ondoan; baina herri horretako gobernuak asilo politikoa ukatu zion. Txinaren jokaeraren aurkako nazioarteko gaitzespenarekin fio zen eta segurtasun osoz uste zuen nazioarteko presioaren eraginez Txinako gobernuak lurraldetik erretiratuko zela. Baina, urte beteren buruan, Txinak Tibeteko lurraldearen zati handi bat kontrolatzen zuen eta inork ez zion gai horre-



Tibeteko etxea. Gene Palacios.

tan Txinako gobernuari aurre egin. Dalai-lamak, bere jendearen aholkuei jarraituz, gutxienez bere erlijioa salbatzea eta Lhasara itzultzea erabaki zuen, Txinako gobernuak egin zion eskaintza baliatuz; eskaintza hori inoiz bete ez zituzten aginduz beteta zegoen.

Inbasioaren ondorengo lehendabiziko zortzi urteetan, Tensin Gyatso, hamalagarren Dalai-lama –Tibeteko buruzagi espiritual eta politikoa, biolentzia ezaren erabat aldekoa-, elkarriketaren bidez Txinako agintariekin gatazkarako irtenbidea bilatzen saiatu zen, baina ez zuen inongo konponbiderik lortu.

Guztiongan desilusia hazten ari zen eta okupazioaren aurkako manifestazioak eta ekintzak ugaritzen ari ziren; Txinako poliziak biolentzia handiz zapaltzen zituen ekintza horiek. 1959an, Tibeteko erresistentzia mugimendua herrialde osoan zabaldu zen, baita Txinako indarren erantzun basatia ere. Erdialdeko Tibeten bakarrik (Txinako iturrien arabera) Txinako soldaduek 87.000 tibetar baino gehiago hil zituzten.

1959ko martxoaren 17an, biolentzia-kolpe horren erdian, Dalai-lamak -Tibeteko herriaren lider espiritual

eta politikoak-, bere gobernuak eta 100.000 tibetar gehiagok erbestera ihes egin behar izan zuten.

“Berehala ikusi genuen aliaturik ez genuela, Txinaren aurrean oso ahulak ginela... Geopolitika gure aurka zegoen eta estereotipoak eta gezurrak ere, sinismen magikoak zituzten monje batzuk zuzendutako gizarte feudal eta fanatikoa ginela esaten baitzuten.”⁵

Panchen Lamak (budismoan eta Tibeteko gobernuan bigarren kargua) ezin izan zuen herrialdetik ihes egin eta Txinako agintariek 9 urtez kartzelaratu zuten. Espetxean zegoen bitartean, burua jaten saiatu ziren, emakume txinatar batekin ezkontzera behartu zuten eta kargu garrantzitsu bat eman zioten (erosi nahian) Pekinetik ateratzea debekatuz. Gainera, Txinako agintariek bere izena eta Tibeteko herriarentzat errepresentatzen zuena baliatzen zuten beren helburuak lortzeko. 1989an, Txinako gobernuak Tibet bisitatzen utzi zion, baina Pekinera itzuli zenean hil egin zen (Txinako iturrien arabera bihotzekoak jota, baina Tibeteko ahotsen esanetan pozoituta hil zen).

Tibeteko lurraldea banatu eta berrantolatu zuten hurbilen zeuden Txinako eskualdeen artean. Horrela, Tibeteko Amdo probintzia (ipar-ekialdean) eta Kham lurraldearen parte handi bat Szechuan dira gaur egun. Khameko eskuineko partea eta U. Tsang Txinak gobernatzen ditu Tibeteko Eskualde Autonomo gisa (TAR).

Tibeten ere eragina izan zuen Txinako Kultur Iraultzak (1966-1976), monasterio gehienak arpilatu eta suntsitu zituzten (herrialdean ziren 6.200 monasterio guztietatik 11 besterik ez ziren geratu), eta monje eta moja budistak jazarri, atxilotu, torturatu, kartzelaratu eta hil zituzten. Milaka tibetar bortxazko lanak egiteko esparruettara eraman zituzten eta ez dituzte berriz ikusi. Horiek izan ziren urterik gogorrenak Tibeteko jendearentzat. Txinako gobernuak kultur eskubiderik oinarritzkoenak ere debekatu zituen, esate baterako Tibeteko jantzi tradizionalak janzea eta bertako bitxi eta apaingarri tipikoak eramatea, eskritura zibil eta erlijioso asko erre zituzten, etab.

Tibeteko gizarte tradizionala ez zen perfektua eta zenbait aldaketaren beharra zuen; Dalai-lama bera ere aldaketak sartzen hasi zen denboraldi baterako

⁵ Iturria: “Declaraciones del Dalai-Lama”. Amnistía, 6. zenbakia. 1994ko apirila.



Natalie Lebris.

Tibeteko gobernu hartu zuenean. Baina egoera ez zen horren larria Txinako gobernuak esku-hartzea justifikatzeko bestekoa zela esan arren.

“Egia da –onartzen du Dalai-lamak berak-, injustizia anitz zegoen gure gizartean, garai horietan, baina zentzu askotan Tibeteko jendea inguruko herrialde gehienetan baino hobeki bizi zen. Esate baterako, okupazioa arte goseterik ez genuen inoiz pasa.”⁶

Txinak Tibet okupatzean milaka hildako eta zauritu eragin zituzten eta Tibeten historian izan den ihesaldirik masiboena ekarri zuen (babes politiko eta ekonomikoaren bila). Lehendabizi Indiarantz eta Nepalerantz jo zuten, baina gaur egun Tibeteko diaspora kontinente guztietan dago. 6 milioiko biztanleria izatetik 4 milioi besterik ez izatera pasa zen oso denbora gutxian.

1976an Mao Tse Tung hil ondoren, Tibeten suntsiketa masiboa amaitu zen. Baina Txinako gobernuak Tibeteko herriari autodeterminazio eskubidea ukatzen jarraitzen zuen.

1987tik Txinak Tibetean egiten duen okupazioarekiko aurkakotasuna handituz joan da. Kaleetan manifestazioak ugaltu dira, baina Txinako poliziaren errepresioa ere handituz joan da. 1987. urtean tibetarrak masiboki atera ziren kaleetara, eta horri erantzuteko, Txinako gobernuak gerra-legaia ezarri zuen Tibeteko lurraldean 13 hilabetez. Tibet lurralde militar bilakatu zen. Armadaren presentzia ikaragarria zen (300.000 soldadu txinatar baino gehiago) Tibeteko herrietako eta hirietako kaleetan, eta Giza Eskubideen errespetua eta Tibeteko biztanleen askatasuna arriskuan jarri zuen.

Tibeteko populazioak ez du adierazpen eta bilera askatasunik ezta horren moduko beste oinarritzko eskubiderik ere. Askotan separatistak direla esaten dute, eta maiztasun handiz atxilotetak, kartzelaratzetak, torturak eta exekuzioak pairatzen dituzte.

Inbaditu zutenetik, nazioarteko komunitatea eta Tibeteko gobernu eta herria saiatu izan dira Txinak Tibet kontrolatzeko duen interes handi hura nondik datorren asmatzen. Arrazoiak hainbat izan daitezke:

⁶ Iturria: “Declaraciones del Dalai-Lama”. Amnistía, 6. zenbakia. 1994ko apirila.



Iturria: Heinz E. R. Martin, Arte tibetarra. Otoi egiteko ordua da. Monje budistak irakurtzen eta otoitzak erreztatzen. Nathalie Lebris.

interes geopolitikoak, ekonomikoak, etab., guztiak nahiko garrantzitsuak. Ondoren, arrazoi horietako batzuk aurkeztuko dizkizuegu:

- Tibeteko lurraldea bereganatzea (populazio gutxiko lurraldea) populazioaren parte bat bertara eramateko eta Txinako lurraldean dagoen presio demografikoa gutxitzeko; zenbaitzuk teoria horren alde eginguten dute.

- Tibeteko zerealen produkzioa kontrolatzea; Txinako populazioaren biziraupenerako oso beharrezkoa da, eta hori izan daiteke beste argudioetako bat.
- Herrialde hindostanikoetara hurbiltzea eta euren nagusitasun politiko eta militarra erakustea.
- Tibeteko ustiatu gabeko meatze baliabideak eskuratzeari (batez ere uranioa), Tibet bera merkaturatzen edo bere garapen industrial propiorako erabiltzen hasi baino lehen.
- Tibeteko errearen, zilarraren eta harribitxiaren eraketa, erabilera eta merkaturaketa sustatzea eta kontrolatzea.
- Budismoaren aginpidea suntsitzea euren balioak ezartzeko.

“Txinak ez zuen garaitzeko helburuarekin suntsitu, suntsitzeko helburuarekin garaitu zuen. (...) Txinako komunismoak ezin zuen jasan, beren mugetatik gertu, fedearen boterearen bidez herria eta biztanleak menperatzen zituzten elizako agintariak gobernaturiko inperioa; fede hori, gainera, Txinako budismoa sortu zuen iturri beretik elikatzen zen. Tibetean existitzen zen bitartean, Txinako herriak ondoko herrialdean gobernatzen jarraitzen zuen Jainkoaren boterearengan sinisten jarraituko zuen. Komunismoko agintari gorenak Tibeteko kultura suntsitzea besterik ezin zuten egin euren nagusitasuna adierazteko.”

Iturria: Heinz E. R. Martin, Arte tibetarra.

Ariketak:

- 19 Zein eginkizun bete zuen Dalai-lamak gatazkan? Zein izan zen Nazio Batuen erantzuna Dalai-lamak laguntza eskatu zienean?
- 20 Adieraz ezazue aurreko testuko baieztapenen artean zeintzuk diren Txinak Tibet okupatzeko zituen interes politikoak adierazten dituztenak eta zeintzuk interes ekonomikoak adierazten dituztenak. Ondoren, ikus ezazue Tibetean lurraldearen banaketa eta Txinako gobernuak bertako probintzietara egindako anexioa, 38. orrialdeko mapan eta 47. orrialdeko testuan azaltzen denaren arabera. Egin itzazue bi mapa. Lehenengoa okupazioaren aurretik Tibetek zuen banaketa administratiboarena eta bigarrena Tibetean banaketaren ondorengoa. Azal ezazue zergatik onartu duen Txinako gobernuak, zuen ustez, Tibeteko lurraldearen zati bat Tibeteko eskualde autonomo gisa eta zergatik banatu duen lurraldearen gainontzeko partea Txinako probintzia mugakideen artean.

Tibeten suntsiketak jarraitu egiten du

Txina Tibeteko baliabide naturalak indarrez ebasten ari da, batez ere egurra eta mineralak, eta lurraldeko ingurumenaren suntsitzea azkartzen ari da; eta lurralde horrek, ahula izan arren, oreka ekologikoa gordetzea lortu zuen mendez mende. Txinako industriarik kutsakor eta arriskutsuenaren zati bat Tibeteko lurraldean dago orain.

Azkeneko 15 urteetan, Txinako gobernuak Txinako populazioa Tibeteko lurraldean ezar zedin bultzatu du pizgarri ekonomikoen bidez, Nazioarteko Zuzenbidea urratuz berriz ere. Txinako gobernuaren estrategia horrek populazioa zatitu nahi du errazago kontrolatu ahal izateko eta Txinako gobernuaren arauen aurrean Tibeteko erresistentzia errazago kontrolatu ahal izateko. Tibetek diren Txinako biztanleen parte handi bat militarrek eta estatuko funtzionarioak dira. 1985ean, Lhasan, 50 edo 60 mila bat okupatzaile txinatar zegoen; 1988an aldiz, hiriburuan Txinatarrak tibetarren bikoitza ziren, elikagaien hornikuntzan eta zerbitzuetan espero daitezkeen arazoak ekarri.

1990etik tibetarrek gutxiengoa dira euren herrialdean bertan. Txinatarrak betetzen dituzte lanposturik garrantzitsuenak eta soldatarik onenak ematen dituztenak, eta, era berean, etxebizitzarik onenak eta baliabide gehien haiek dituzte. Tibetek apartheid erregimena dago, horri buruz mintzatzen ez diren arren.

Euren bizitza jokoan jarri herrialdetik ihes egiten duten Tibeteko errefuxiatuek ematen duten informazioaren arabera, eta askotan atzerriko bisitariak baieztatzen dutenaren arabera, Tibetek etengabe urratzen dira oinarritzko Giza Eskubideak.

Hala eta guztiz ere, Dalai-lamak berak honakoa esaten zuen:

“Errepresioak ez du jendeak askatasunez eta duintasunez bizitzeko hartu duen erabakia deuseztatzea lortuko.”

Txinako gobernuak Tibetek egiten duen politikak arriskuan jartzen du Tibetek nazio gisa duen osotasun, bizi-raupen eta jarraipena.



Tibeten eskolatzeko txineraz egiten dute; tibetara familian ikasten dute. Nathalie Lebris.

Tibeti buruzko oharra

Txinak Tibet inbaditu zuenetik milioi eta erdi pertsona hil dira (herrialdearen populazio osoaren seiren bat).

Hamar tibetarretik bat espetxeratu dute. Amdoko eremua munduan km2-ko presorik gehien dituen eremua da, 10 milioi preso hartzeko ahalmena du. Espetxeetan eta bortxazko lanak egiteko esparruetan torturatzea ohikoa da.

Jaiotze tasa kontrolatzeko politika (seme edo alaba bakar baten legea) oso zorrotz aplikatzen dute Tibetean. Kontrol horren ardura duten osasun zerbitzuetako langileak txinatarrak dira guztiak eta estatuak sari ekonomikoak ematen dizkie antzutu dituzten emakume kopuruaren arabera. Behartutako abortua, Tibeteko emakumeak antzutea eta umetxoak hiltzea ohiko praktikak dira.

Bi seme-alaba baino gehiago dituztenei ezartzen zaizkien zigorrak oso gogorrak dira. Bai aita bai ama isun bat ordaindu behar dute, publikoki makurrarazten dituzte eta zigor ekonomikoak ezartzen dizkiete. Hirugarren seme-alabak ez du eskubide legalik (ez dute eskolan ez lanean onartzen, ezin du bidaiarik egin, ez du rasionamendu txartelik eta ez dute hiritar gisa onartzen).

Tibeten ez dago mugimendu askatasunik, ez adierazpen ez kultu askatasunik. Irakaskuntza txinera

hutsean egiten dute. Ezin da inongo erlijio ekintza publikorik egin. Txinak Tibetean budismoa irakastea eta ikastea debekatu du.

Monasterio, tenplu eta monumentu gehienak suntsitu edo arpilatu zituzten eta erlijio eta literatur artelanak txinatarrak suntsitu edo saldu zituzten. Duela zenbait urtetik monasterio eta tenplu batzuk zaharberritzen ari dira, eta horrek erlijio askatasuna berreskuratu dutela pentsarazi ahal digun arren, ez da egia. Zaharberritzea turismoa erakartzeko eta Txinak nazioartean duen irudia hobetzeko egiten ari dira.

Tibeteko populazioak sarrera mugatua du eskolatan, unibertsitate zentroetan, enpresa txikietan, etab. Langabezia orokorra, gosetea, pobrezia eta marjinazioa larriagotzen ari dira. Txinatar biztanleek, diru-sari baten trukean Txinatik Tibetera etorritakoek, hezkuntza zentroetako lanposturik onenak bereganatzen dituzte, eta berdin gertatzen da enpresa eta ospitaleetan.

Tibet base militar handia bilakatu da; 300.000 soldadu txinatar baino gehiago dago eta Txinak dituen arma nuklear guztien %25 bertan daude.

Iturria: John F. Avedon⁷.

Ariketak:

- 21 Pentsatu zeintzuk diren Txinak Tibet suntsitzea justifikatzeko dituen argumentuak. Tibetean oinarritzko Giza Eskubide zenbait urratzen ari dira. Zeintzuk? Zuen ustez, nor da egoera horren arduraduna?
- 22 Irakasleak emango dizuen Herrien Eskubideen Deklarazioa beha ezazue; dossierreko informazioaz baliatuz, Txinak Tibet okupatzean urratu duen Giza Eskubide bakoitza azal ezazue.


⁷ Notes on Tibet, John F. Avedon, Tibet: Exposición y conferencia liburuxkan, Tibeteko Nazioarteko Urtea ospatzeko argitaratutakoa. Drama argitalpenak. Novelda, 1991.

5. Fitxa

Helburuak:

- Erbestean dagoen Tibeteko gobernuaren eskumenak ezagutzea.
- Tibeteko herriak Txinaren okupazioari eman dion erantzuna ezagutzea.

Tibeteko gobernuaren erbestean



Tenzin Gyatso, hamalaugarren Dalai-lama. Tibeteko herriaren lider politiko eta erlijiosoa. Bakearen sari nazionala 1990ean.

1959an, Txinako armadaren eta Txinako okupazioaren aurka masiboki protesta egiten ari zen Tibeteko herriaren arteko istiluetan, Dalai-lama Nerhurekin (India independenteko lehendabiziko presidentea) mintzatu zen zuzenean eta laguntza eta asilo politikoa eskatu zizkion bigarren aldiz. Indiaren eta Txinaren arteko harremanak onak ziren, baina baita Tibet eta Indiaren artekoak ere. Horregatik, Txina Tibetean egiten ari zena-
ren kontra argi agertu gabe, Nerhu tibetarrak hartzeko eta laguntzeko prest azaldu zen. Dalai-lama, Tibeteko gobernuko ordezkariak eta 100.000 tibetar inguruk beren herrialdea utzi eta Indiara egin zuten ihes.

Zenbait urte lehenago, Nerhu bera Tibeteko herriaren alde mintzatu zen eta Txinak egindako inbasioa justifikatzeko erabiltzen zuen argumentuari kontra egin zion; Txinak esaten zuen Tibeteko herria askatuko zuela bizi zuen sistema feudalaren zurikeriatik eta esklabotzatik.

“Nire printzipioekin bat etorriz, esan behar dut Tibeteko gaiaren inguruan azkeneko hitzak Tibeteko jendeak izan beharko lukeela, eta beste inork ez.”

Pandit Jawaharlal Nerhu, Lok Sabha, 1950eko irailaren 7a⁸.

Izan ere, Txinak Tibetean egindako okupazioa mehatxutzat hartu zuten (Indiako gobernuak eta klase pribilegiatuak), Txinako botereak hegoalderantz aurrera egitea ekartzen baitzuen. Arrisku sentsazio horrek bultzatu zuen bai Indiako gobernuak bai gizarte zibila ere Tibeteko herriari laguntzeko prest egotea; horrela, Indiara iristen ziren Tibeteko errefuxiatuak hartu zituzten.

Rammonohar Lohiak 1950eko urrian egindako adierazpenak lekukotasun egokia dira:

“Tibet eta Indiaren arteko lotura Tibet eta Txinaren arteko lotura baino estuagoa da. Kultur, hizkuntza eta ekonomia harreman handiak daude; eta bi herrialdeen arteko kidesun estrategikoak ere handiak dira. Tibet inbaditzearekin batera, Txinak, nazioarteko moralaz gain, Indiaren interesak ere mehatxatu ditu.”⁹

Hilabete gutxiren buruan, Tibeteko gobernuaren erbestean berrezarri zen, behin-behineko egoitza ezarri zuen Dharamsalan (Indiako iparraldean) eta gestioak egiten hasi zen: mundu osoan sakabanaturiko Tibeteko errefuxiatuei laguntzen, hezkuntza, kultura eta erlijioa babesteko eta garatzeko neurriak hartzen eta Tibetean askatasuna berrezartzeko borroka zuzentzen.

⁸ Iturria: *The Indian Public on the issue of Tibet*. Central Executive Committee Tibet Youth Congress. Dharamsala, H.P., India, 1992.

⁹ Idem.

Distantziatik atzera begiratzeko aukerarekin Dalai-lamak eta Tibeteko gobernuak bere iragan propioaren autokritika egiteko aukera izan dute, eta gobernu programa demokratiko, bakezale eta ekologista garatzeko aukera ere, munduko estaturik aurrerakoienetako bat bilakatuz. Izan ere, Tibeteko Konstituzio berriak (erbestean egindakoa) aurreikusten du –Dalai-lamak berak proposatuta, eta erbestean dituen kide asko aurka izanda ere– Dalai-lama kargu politikotik kentzeko aukera, Parlamentuak hala erabakiz gero.

1987ko irailean, Dalai-lamak, Tibeteko herriaren lider politiko eta erlijiosoak, erbestean, Tibeterako Bake Plana proposatu zuen; planak bost puntu zituen:

1. Tibeteko lurraldea Bake eremu bilakatzea.
2. Txinako gobernuak Tibet txinatarrez birpopulatzeko politika bertan behera uztea, politika horrek Tibeteko populazioak talde etniko gisa bizirauteko eta jarraitzeko aukerari mehatxu egiten baitio.

3. Tibetarren oinarritzko eskubide eta askatasun demokratikoak errespetatzea.
4. Tibeteko ingurumena berrezartzea eta babestea, eta Txinako agintariek Tibeteko lurraldean arma nuklearrak ekoizteari eta hondakin toxiko eta nuklearrak isurtzeari uztea.
5. Tibeteko etorkizunari buruzko negoziazioak hastea erbestean dagoen Tibeteko gobernuaren eta Txinako gobernuaren artean.

Hala ere, Dalai-lamaren eta beste jarraitzaile batzuen bake proposamen horrek ez du inongo erantzunik jaso Txinako gobernutik.

Ariketak:

- 23 Noiz eta zein egoeratan erbesteratu zen Dalai-lama? Nora joan zen eta zergatik?
- 24 Non eta nola berregituratu zen Tibeteko gobernua erbestean? Zein funtzio betetzen ditu? Tibet aske zen garaiko funtzionamendu egiturak eta dinamikak berdin jarraitzen du ala aldaketak egin dituzte?
- 25 Zure ustez, zein arazo ikusi zituen Txinako gobernuak Dalai-lamak 1987an egindako Bake Planaren proposamenean?
- 26 Zein jarrera hartu du Tibeteko herriak Txinaren inbasioaren aurrean?

Tibeti buruzko azkeneko informazioak

Txinako Herri Errepublikak Tibeten egindako okupazio iraunkorrak Nazioarteko Zuzenbidea eta Tibeteko herriaren independentziaren oinarritzko eskubideak urratzen ditu, herrialdeko kale eta errepideetan Txinako armadaren etengabeko presentzia ezarritz.

1995. urtean, Dalai-lamak Tibeteko haur bat Panchen Lamaren azkeneko berraragiztatze gisa hartu zuen, baina Txinako gobernuak ukatu eta bere familiarekin eta identifikatu zuten monjeekin batera kartzelaratu egin zuten. Munduko presorik gazteena da, 6 urte besterik ez baitzituen espetxeratu zutenean.

Amnesty International erakundeak, 1996ko maiatzean, Txinako agintariak Tibeten monje budisten aurka eragindako errepresioa gaitzetsi zuen. Giza eskubideen babeserako erakunde horren arabera, monjeetarik 80 zauritu egin zituzten Dalai-lamaren argazkiak jendarean erakusteko debekua ez errespetatzearen.

Geroago, 2003ko martxoan, sekretuan lortutako akordio batean, Txinako agintari berriek eta Indiako agintariak, ekainerako estatus berri bat erabaki zuten Tibeterako. Herrialde bakoitzeko prentsak "garaipen" gisa aurkeztu zuen akordio hori, baina, egia esan, era guztietako akordioak egiteko topaketa bat izan zen, esate baterako, merkataritza harremanak sendotzeko eta bi herrialde horien artean garraio bide bat eraikitzeko.



Shigatse monasterioa, eraikitzen. Imma Llor.

"Tibeteko jendearentzat samsara bizitzen eta heriotzen gupil bat da (eta pertsona guztiak gaude gupil horretan loturik) iluminazioa lortu arte. Tibeteko herriarentzat iluminazioa askatasuna eta independentzia da, eta kontzeptu horien alde hil dira, honez-kero, herrialdeko milaka biztanle.

Egoera apur bat hobetu da, nazioarteko presioari esker, antza. Hala ere, ezkutuan gehiegikeria berdinak egiten dituzte oraindik, Dalai-lamak berak esandakoaren arabera."

Iturria: Amnistia. 6 zenbakia, 1994ko apirila.

Ariketa:

- 27 Ondoren duzuen testuko Dalai-lamaren deklarazioak irakurri. Orain arte ikasitako guztia ikasita, zuen ustez zergatik kartzelaratu du Txinako gobernuak azkeneko Panchen Lama?

"Dalai-lama maiestateak sei urteko Gedhum Choekyi Nyima haurra, Lharin jaiotakoa, hamargarren Panchen Lamaren berraragiztatze gisa hartu zuen.

Panchen Rimpocheren berraragiztatzeen ikerketa eta aitortpena gai erlijiosoak dira, inondik ere ez gai politikoak. Azken urteotan Txinako gobernuarekin harremanetan izan naiz hainbat bitarteko erabilita gai hau lantzeko, eta espero dut uler gaitzan eta Tashi Lumpo monasterioari lagun diezaion, Rimpohek erlijio ikasketa egokiak jaso ahal izan ditzan eta ardura espiritualak bere gain hartu ahal izan ditzan".

Iturria: Dalai-lama, Nueva Delhi, India, 1995eko maiatzaren 14.¹⁰

¹⁰ Tibet News, Volume 1, 5. zenbakia. 1995. The Newsletter of the Tibet Information Office for Australia, New Zealand and South East Asia. Australia, 1995.

Helburuak:

- Erlijio budistako berraragiztatze kontzeptua ulertzea.
- Tibeteko lama ezagun baten berraragiztatze gisa onartu duten Espainiako estatuko haur bat ezagutzea.
- Tibeteko astronomia eta astrologiaren berezitasunetako batzuk eta eguneroko bizitzan duten eragina ezagutzea.
- Tibeteko matematika kalkuluaren bitxikerietako batzuk ezagutzea.

BA AL ZENEKITEN

Granadako Alpujarrako haur bat Tibeteko lama baten berraragiztatze gisa hartu eta aitortu zuela Dalai-lamak berak?

Osel Iza Torres, orain Tenzin Osel Rimpoche izena hartu duena, Tibeteko lama (monje budista) baten berraragiztatzea da, lama Yesherena, hain zuzen ere, budismoa Ipar Ameriketara eta Europan hedatu zuena eta 1984an Los Angelesen hil zena.

Osel ez da lamarik garrantzitsuenetako baten berraragiztatzea. Tibetean milaka haur hartu dituzte aurreko lamen berraragiztatetzat. Osel ez da Dalai-lamaren hurrengoa izango, garai batean prentsan hala esan bazuten ere. Dalai-lama bizirik dago oraindik ere eta hil arte ez da berraragiztatuko.

Txiki-txikitatik, Oselek gurasoak (biak ala biak budistak) eta anai-arrebak utzi zituen komunitate budista batean bizitzeko. Zenbait urtez Veveyko (Suitza) monasterio budistan izan zen; bertan, monje budista espainiar batek tutore lanak egiten zituen eta bere haurtzaroan ongi pasa zezan saiatzen zen, tibetera, gaztelera eta memorizatzeko ekialdeko teknika batzuk irakasten zizkion bitartean. Biak elkarrekin mundu osoan bidaiatzen zuten, Alpeetan eskiatu, Leman lakuan igeri egiten, jatetxeetara joaten, jolastu eta bideo pelikulak ikusten zituzten.

Oselek urtean bitan bakarrik ikusten du bere familia. Orain Serako unibertsitate tibetarrean dago, Indian, eta bertan budismo ikasketak egingo ditu 10 edo 12 urtez; baina bere etorkizuna, Lama Yeshek bere aurreko bizitzan erabaki zuen bezala, mendebaldean izango da.



Osel, lehenengo planoan dagoen haurra, bere familiarekin.

Nola jakiten dute?

Berraragiztatzeak identifikatzeko proba anitz egin behar dira. Lama askok, bizirik ziren bitartean, noiz hilko ziren, berriz ere noiz eta non jaioko ziren eta berraragiztatzea izango zen haurraren aitaren eta amaren izenak zeintzuk izango ziren, etab. ere ematen zituzten aditzera. Horrela, bere jarraitzaileentzat ez da horren erraza izan daitezkeen berraragiztatzeak identifikatzea. Adituen talde batek herri zehatz horretara jotzen du eta, deus esan gabe, lamak bere hurrengo berraragiztatzeari buruz utzi zuen informazioa egiaztatzen du. Horrela identifikatzen da hautagaia.

Balizko berraragiztatze gisa identifikatutako haurrak bi edo hiru urte betetzen dituenean eta oraindik zailtasunez mintzatzen denean, zenbait proba egiten dizkiote. Hainbat pertsonen objektu pertsonalak eskaintzen dizkiote (liburuak, kanpaiak, etab.), eta horien arteko batzuk aurreko lama jakin horren objektuak izaten dira. Lama horren berraragiztatzea baldin bada, aurreko bizitzan bereak ziren objektuak hartuko ditu automatikoki.

Berraragiztatze gehienak Tibeteko edo handik kanpoko familia budistetan izaten dira, baina lama batzuk beste erlijioetako haurrengan berraragiztatu dira. Horixe izan zen Iparramerikako haur batengan berraragiztatu zen lama budista baten kasua, bere gurasoen erlijioa animista baitzen.

Iturria: Bartzelonako Tibeten etxea.

Tibeteko filosofia budistak berezitasun bat dauka: pertsona batzuk, iluminazioa lortzearen, berraragiztatzen jarraitzen dute gizateriari laguntzeko. Pertsona horietako bat Dalai-lama bera da, eta honakoa esaten du txantxetan-edo:

“Tibet askean ez dut inongo betekizun politikorik izango. Gerta daiteke ni hil ondoren nire herriak nire berraragiztatzea aurkitu beharrik ez izatea. Orduan, gerta daiteke eltxo batengan edo bakteria batengan berraragiztatzea, gizateriarentzat baliagarriena den horretan.”

Iturria: Amnistia. 6. zenbakia, 1994ko apirila.

Orain arte, Dalai-lamaren berraragiztatze guztiak gizonetzkoak izan dira, baina sexua ez da faktore erabakigarria berraragiztatzeetan.



Maite Huguet.

Ariketak:

28 Zuen ustez Osel zorionekoa al da Tibeteko lama ezagun baten berraragiztatzetzat onartu dutelako?

Zein abantaila eta desabantaila ekartzen dio horrek bere bizitzan? Gustatuko litzaizueke bere egoeran egotea? Zergatik?

29 Defini ezazue, zuen hitzetan, berraragiztatzea zer den.

BA AL ZENEKITEN

Tibeten guztiek egun berean ospatzen dutela urteurrena?



Gene Palacios.

Pertsona baten adina jaio denetik Tibeteko egutegian pasa diren urteak dira. Hilabeteak ez dira zenbatzen, ez dio axolarik urtarrean edo azaroan jaio den, eta guztiek Tibeteko urte amaieraren egunean ospatzen dute urtebetetzea. Jaio zareneko urtea ere kontatzen da, eta urte amaierara iristen zarenean beste urte bat gehitu behar duzu.

Txinako egutegian bezala, urte bakoitza indarra eta boterea ematen dioten animalia batek (arra-toia, zerria, etab.; osotara 12) eta naturako elementu batek (egurra, sua, lurra, burdina edo ura) gidatzen dute. Elementu bakoitzak bi urtez jarraian gobernatzen du, bat maskulinoztat hartzen da eta bestea femeninoztat. Egutegiak 60 urteko zikloak jarraitzen ditu eta 61.era iristen denean egutegi bera errepikatzen da; hau da, 61. urtea suaren boterea duen erbiaren urte femeninoa izango da, eta urte hori 60 urte barru itzuliko da berriz, 121. urtean, 181.ean, etab.

BA AL ZENEKITEN

Tibeteko egutegian ezkontzeko eta bidaiatzeko egun onenak zehazten direla?

Tibeteko egutegiak, denboraren joana definitzeaz gain eta festa budistak zehazteaz gain, zenbait orientazio praktiko ematen ditu, esate baterako orakuluei (jainkoak), herrialdeari orokorrean eta pertsonari berari dagozkien gaiei buruz kontsulta egiteko egutegiko egunik onenak zeintzuk diren; gauza jakin batzuk egiteko egunik ezegokienak; otoi egiteko egunik egokienak, eskaintzak egiteko, ezkontzeko, negozio berri bat edo bidai bat hasteko, etab.

Ilargi-hile bakoitzeko 9, 19 eta 29. egunak bidai bat hasteko egokiak dira. Horregatik, bidai bat egin behar dutenean ezin badute egun horretakoren batean irten, Tibeteko jendeak egun egokian ekipajearen parte bat bere kalean bertan, etxe batzuk beherago eramaten du, bidaia hasi dela sinbolizatzeko. Pertsona bat egun egokietako batean hiltzen bada, horrek zortea ekarriko dio bere familiari.

Baina datarik makurrena, augurio txarrei dagokienez, 11. hileko 6. eguna da. Tradizioak esaten duenez, pertsona bat probetxuzko gauza onak egiten saiatu zen egun horretan, eta 9 zorigaizto jasan behar izan zituen.

Ordutik, Budak aholkatu zuen egun horretan ia deus ez egitea zela onena. Egun horretan jendeak ez du otoitz ez beste gauza askorik ere egiten. Jendeak egun hori atseden hartzeko aprobetxatzen du, familiarekin mendira joateko, etab. Jendeak deskantsatzeko, jolasteko eta ongi pasatzeko aprobetxatzen du.

Tibeteko egutegiaren zortzigarren hilean badira zazpi egun ur beroko bainu etxera joan eta sendaketak egiteko primerakotzat hartzen dituztenak; eta Tibeteko bosgarren hilean badira beste sei egun zorigaiztokoztat hartzen dituztenak. Ez da sendabelarrik hartu behar ez bainu termaletara joan behar ere, ondorio txarrak ekarriko lituzke-eta horrek.

Pertsonen bizitzan badira zortea probatzeko une on eta txarrak. Pertsona bakoitzak bere uneak ditu. Jaio den urteko animalia errepikatzen denean (hau da, hamabi urtean behin) zoritxarrak jasateko prest egon behar da.

Larunbata oparotasunaren eguna da, horregatik ezkontzarik gehienak larunbatean ospatzen dituzte.

BA AL ZENEKITTEN

Tibeteko jendeak gauza anitz galdetzen dizkiola astrologoari?

Astrologoari kontsula egitea eguneroko bizitzako parte da Tibetean. Jendeak bere zerbitzuetara jotzen du seme edo alaba jaioberriaren horoskopoa egiteko eta zailtasunak izango dituen ala arazorik gabe aurrera egingo duen jakiteko. Arazoak baldin baditu, eskaintza zehatzak egingo dituzte jainkoei haurrari lagun diezaizoten eskatzeko. Hurbileko senitarteko bat hiltzen denean ere astrologoarengana joaten dira. Astrologoak, hildako pertsonaren horoskopoen arabera, gorputza etxetik zein norabidetan atera behar den, zein zeremonia mota egin behar den, etab esango die, pertsona horren heriotzak ez diezaion gainontzeko bizidunei zorigaiztorik ekar.

Ezkundu aurretik ere astrologoari egiten diote kontsulta, eta astrologoak, ezkongaien jaiotze datekin, horoskopoekin eta beste elementu batzuekin, euren izaerak bateragarriak ote diren eta euren arteko loturak itxaropen ona ekarriko duen edo ez egiaztatuko du.

Astrologoak bikotearen ezkontza egiteko datarik onena kalkulatzeko du, eta larunbatean izaten bada, hobe. Hala ere, larunbat hori Tibeteko egutegiaren arabera zorigaitza ekartzen duen data horietako bat balitz, ezkontza hurrengo egun onuragarrian ospatuko litzateke; hala ere, emaztegaiari aurreko larunbatean bertan senarraren familiaren etxean sar dadin (bertan biziko da ezkondu ondoren) aholkatzen zaio.

Tibeteko sendagileek ere jotzen dute astrologoarengana gaixoen tratamenduak hasteko egunik onenak zeintzuk diren jakiteko. Astrologoak negozio bat martxan jartzeko egunik onena zein den identifikatzen du, haurtxoei ilea mozteko egunik onena, etxek aldatzeko, monasterio batean nobizio moduan sartzeko, etab.

Zaila da, baina Tibetean edozein gauza egiteko egunik onenak zeintzuk diren kalkulatzeko moduko matematiketan adituak daude.

Ariketak:

30 Zenbat urte dituzu Tibeteko egutegiaren arabera?

Noiz ospatu beharko zenuke zure urtebetetzea tibetarra bazina?

31 Bidaia bat hasi beharko bazenu, ezkondu beharko bazina, eskaintza bat egin beharko bazenu edo negozio bat martxan jarri beharko

bazenu, zein datatan ez zenuke egingo? Zer egiten du Tibeteko jendeak data horretan?

32 Zeintzuk dira bainu sendagarriak hartzeko egunik onenak? Zein da ezkontzeko asteko egunik onena?

33 Zer kontsulta egiten dizkiote tibetarrek astrologoari?

BA AL ZENEKITTEN

Tibeteko formula eta kalkuluetan ez dituztela zenbakirik erabiltzen?

Tibeteko eragiketa eta formula matematikoetan ez dute zenbakirik erabiltzen. Zenbaki bakoitza (1, 2, 3, etab.) objektu zehatz batekin edo Indiako mitologiako izenen batekin erlazionatzen dute; esate baterako, suak 3 zenbakia adierazten du, ozeanoak 4 zenbakia eta geziak 5 zenbakia, mitologian hiru su, lau ozeano eta bost gezi baitaude. Horrela, 3-4-5 honakoa da: sua-ozeanoa-gezia.

Gure herri ezagutzen pentsatuz, guk honen antzeko zer edo zer erabiltzea bezalaxe izango litzateke: 3 zenbakia erabili beharrean artzatxo hitza erabiltzea, hiru artzatxo ipuina gogora ekarriz; edo ipotx hitza erabiltzea 7 zenbakia erabili beharrean, guztiok bai baitakite 7 ipotx direla Edurnezuriren ipuinean.

Ariketa:

34 Tibeteko matematika kalkuluetan zenbakiak adierazteko erabiltzen dituzten izenak adibide gisa hartuz eta gure herri kulturen pentsatuz, emaziozu izena honako zenbaki bakoitzari

1 2 3 hirukiak 4 5 6 7 ipotxak 8 9 10

Helburuak:

- Munduan errefuxiatuta bizi den populazioaren egoera ezagutzea.
- Errefuxiatutako populazioaren mugimendua eta lekualdatzea sortzen dituzten egoera anitzak identifikatzea.
- Bizirauteko ezinbestean erbesteratzea eskatzen duten egoerak sortzen dituzten gatazkak bultzatzen edo laguntzen iparraldeko herrialdeek duten ardura ezagutzea.

“Inork ez du nahita bere etxea, bere jendea, bere gauzak eta bizirauteko bitartekoak uzten errefuxiatzeko. Zenbait faktorek, horietako batzuk kanpokoak, bilakatzen ditu populazioa errefuxiatu.”

Tashi Namgyal, Dalai-lamaren ordezkaria.¹¹

Daukazu guztia uztea (asko nahiz gutxi izan), familia uztea eta egoera ezezagunari aurre egin behar izatea ez da inorentzat atsegin, batez ere erabakia ez baduzu zuk zeuk hartu eta egoerak (gosea, indarkeria, gerrak, etab.) bizirauteko ihes egitera bultzatzen bazaitu.

Munduan diren errefuxiatu gehienak emakumezkoak, haurrak eta zaharrak dira. Gizonezkoak frontean borroka egitera geratzen dira, desagertu dira edo gatazkaren ondorioz hil dira. Beraz, emakumezkoak dira batez ere bidaia egiteko ezinbesteko gauza batzuk hartu eta ezkutuan hurbilenen duten esparrura joaten direnak babes bila. Baina, bidea ere ez da erraza, batez ere gosea eta beldurraren ondorioz negar besterik egiten ez duten haurrak baldin badituzte bere ardurapean (eta hori kasu gehienetan gertatzen da). Bidean mota guztietako zailtasunak gairatu behar izaten dituzte, eta



Carme Fulleraachs.

- Erbesteratzea eragiten duten gatazketan ahulen diren populazio sektoreak identifikatzea.
- Errefuxiatuen esparruetan haur eta emakumeen bizitzaren eta gizonezkoen bizitzaren arteko aldea ikustea eta ezberdintasun horrek emakumeengan sortzen dituen ondorioak ezagutzea.
- Errefuxiatuen esparruetako bizi baldintzak ezagutzea.
- Tibeteko pertsonen erbestean egin dituzten ibilbide ezberdinak ezagutzea.

askotan topatzen dituzten soldaduen erasoak eta biolentzia jasan behar dute.

Myanmarretik ihesean ari zenean armadaren eskutan erori eta gero ihes egin zuen emakume batek honakoa esaten zuen:

“Morteroen lau bonba astun garraiatu behar izan nituen, bakoitza 81 mm-koa.

Ni oso txikia naiz, bonbak oso pisutsuak ziren eta ia ezin nituen bizkarrean hartu; baina soldaduek bonbak garraiatuz mendi altuak igarotzera behartzen gintuzten. Ez ziguten apenas jaten ematen eta ematen zigutenean arroz ustela besterik ez zen izaten. Ura ere ez ziguten ematen eta gero eta ahulago geunden. Ez genuen mantarik.”¹²

Errefuxiatuen eremura heltzean, batez ere bakarrik edo seme-alabekin iristen badira, sexu erasoak jasaten dituzte, edo esparruko segurtasuneko langileek beldurtzen dituzte; baina biolentzia familiaren baitan ere ematen da, batez ere muturreko egoeretan, komunitatetik edo herrialdetik ihes egiten dutenean, esate baterako. Batzuetan gizonezkoek euren frustrazioa, indarkeria eta amorrua askatzeko familia bereko emakumeen aurka egiten dute (alabak, emaztea, etab.). Esparruan, edozein zailtasunen aurrean, emakumeek mugikortasun gutxiago dute.

“Gizonezkoek mugitzeko askatasun handiagoa dute. Kanpamentuan arazoren bat izanez gero lasterka ihes egin dezakete. Guk, emakumeok, gure seme-alaben abiada jarraitu behar dugu eta ezin dugu lasterka egin. Ez dugu lekuz aldatzeko gizonezkoek duten erraztasuna.”

Etiopiako errefuxiatuen kanpamentu bateko emakume somaliar baten hitzak.¹³

¹¹ Iturria: *State of Tibetan Refugees in Nepal*. Tashi Namgyal, Dalai-lamaren ordezkariak egindako aurkezpena. Nepal, 1994ko ekainaren 3.

¹² Iturria: Triptiko informatiboa: *Mujeres refugiadas*. ACNUR.

¹³ Iturria: Idem.

“Gaur egun arte ezin zen esan mundua mugimenduan zegoenik. Komunikazio geografiko eta zibernetikoek posible egiten dute. Hala ere, lekualdaketa guztiak ez dira kultural edo turistikoak. Gaur egun bizia salbatzeko alde egin edo euren etxea utzi behar dituzten 100 milioi pertsona baino gehiago dago: horietatik 22,5 milioi errefuxiatuak dira, eta 24 milioi euren herrialdeetan bertan nahitaez lekuz aldatutakoak dira.

Arrazoi asko dago (gerrak, jazarpenak, suntsipenak, gosea...), baina ondorioak beti berdinak dira: Giza Eskubide guztiak praktikoki ukatzea gizateriaren sektore handi –eta errugabe– bati; horien artean %80 emakumeak, haurrak eta zaharrak dira.

Drama hori guztion ardura da, iparraldearena nahiz hegoaldearena, eta munduaren orekari orokorrean egiten dio mehatxu. Baina ez dago simetriarik. Iparraldeak biktimei laguntza humanitarioa ematen die, baina biktimak iparrak berak armen negozioarekin eta bere interes politikoekin sorturikoak dira. Hegoaldea gero eta ahulago dago, eta errefuxiatuak eta bertako nahiz ondoko herrialdeetako desplazatuak hartu eta mantendu behar izaten ditu. Zein irtenbide dago?

Iparraldeak munduan diren errefuxiatuen %5i bakarrik ematen dio asilo eta, Sadako Ogatak, errefuxiatuentzako nazio batuen goi-komisarioak, dioenez, “mundu komunista erori ondoren, mendebaldekoek ez dugu errefuxiatuak hartzeko interes ideologikorik”.

Josep Ricart, errefuxiatuentzako Jesuiten zerbitzuko (Espainia)¹⁴.

Haurdun dauden emakumeak, edoskitzaroan daudenak eta garai ugalkorrean daudenak ere anemia izateko joera dute (burdin eta kaltzio gutxi).

Goizero, errefuxiatutako emakumeek ordutan egon behar dute errenkadan familia osoak egunero kontsumitzeko behar duen edateko ura lortzeko. Ondoren, hainbat kilometro ibili behar dituzte janaria egiteko eta berotzeko behar duten egurra lortzeko, eta seme-alaba txikiak (gehienak elikatu gabeak) osasun zentrorra eramane behar dituzte hiru ordutan behin behar duten elikagai likidoa jaso ahal izan dezaten.

Emakumeak gaixorik daudenean ez dira medikuarengana joaten ez badute seme-alabak norekin utzi.

Zoritarrez, errefuxiatuen esparru askotan gizonezkoek ematen dizkiete emakumezkoek dagokien janaria, baina ez dira konturatzen hori egitea akats larria dela. Gizonetako batzuk berriz saltzen dute familiari eman beharrean; baina, gainera, jokatzeko modu horrek ez

du aitortzen emakumezkoek tradizionalak –eta batez ere Afrikan– familiaren elikagaien hornitzaile eta banatzaile gisa duten protagonismoa. Beste akats larri bat honakoa da: ur anitz eta egosteko denbora luzea behar duten elikagaiak banatzea, ura eta erregaia urriak baitira. Askotan errefuxiatutako emakumeak eurentzako eta euren seme-alabentzako lekua eskatzen dute, gizonezkoek egoteko duten lekutik aparte, erasoak saihestu ahal izateko.

Itzultzeko aukeraren aurrean, gizonari, “familiako buruari”, eskaintzen ohi zaio jatorrizko bizitokia aztertzeko bidaia egiteko aukera, itzultzeko eta bizitza berregiteko dituzten aukerak aztertu ahal ditzan. Emakumezkoek ere izan beharko lukete bisita horiek egiteko aukera, kontuan harturik, batez ere, segurtasun eta biziraupenerako oinarritzko alderdietan gizonezkoek baino esperientzia eta ezagutza handiagoa dutela.



Ariketak:

35 Zure ustez gizon eta emakume errefuxiatuek berdin sufritzen al dute? Horrela ez bada, zein alde dago?

36 Deskriba ezazu zure ustez errefuxiatuen esparru batean emakume baten bizitza nolakoa den,

eta egunean zehar egiten dituen jarduera guztiak zehatz itzazu.

37 Aurreko testuko emakumeen adierazpenen artean zeinek harritu zaitu gehien? Zergatik?

¹⁴ Iturria: Triptiko informatiboa: *Seminari Refugiats, el dret a viure, el dret al retorn*. Fundació Alfons Comín. Bartzelona, 1996ko apirila eta maiatza.



Tibeteko emakume bat alfombra bat egiten. Carme Fullerachs.

“Ni 1959an iritsi nintzen Nepalera, 11 urte nituenean. Nire familia Dalai-lama erbesteratu zen garai berean erbesteratu zen. Ordura arte Tibetean inoiz izandako diasporarik handiena izan zen.

Nire senarra kham da eta Txinako armadaren aurka borrokatu zen Tibetean; azkenean herrialdetik ihes egitea lortu zuen eta Nepalén errefuxiatu zen.

Gure taldetik –Nangpalako bidetik sartu ginen Nepalén– jende asko Solo Khumbuko ibarrean geratu zen, Everesteko bidean. Lehenengoz Thangto edo Thangwen ezarri ziren, eta gero Namche Bazaareraino jaitsi ziren; bertan behin betiko geratu ziren.

1960-61ean, Dalai-lamak Tibeteko bi irakasle bidali zituen Namche Bazaarera; bertan ezarri zen Tibeteko errefuxiatuen lehendabiziko esparruetako bat. Jalsaken ere, Tibeteko errefuxiatuen beste esparruetako batean, eskola bat eta Tibeteko eskulangintzako lehendabiziko fabrika (batez ere alfonbrak) ireki zituzten, Suitzako Gurutze Gorriak diruz lagundutakoa.

“Ni Tibetén jaio nintzen, baina lau urte nituenean nire familiak eta nik herrialdea utzi eta Nepalén errefuxiatu behar izan genuen. Hortik Indiarantz joan ginen.

Alde batetik pena handia sentitzen dut eta Txinak Tibetén egindako inbasioa salatzen dut; baina, Tibeteko filosofia budistak irakasten digun bezala, zorigaiztoko egoerak aldatu eta bide espiritual positibo bilakatu behar ditugu. Horrela, erbesteak gure filosofia ikasten jarraitzeko aukera eman digu, gure hizkuntza, gure kultura, eta, beste kulturekin izandako harremanen bidez, ezagutza ere handitzea.

Nire familia Indian dago oraindik, baina nik ez nuen bertan geratu nahi izan. Gure egoera munduan ezagutarazi nahi nuen. Duela hamalau urte etorri nintzen Espainiara eta, lan handia egin behar izan dugun arren, Tibeteko Etxea dugu Bartzelonan.

Espainian 12 tibetar gaude, 5 edo 6 Bartzelonan, eta horietako bik Tibetén Etxean egiten dugu lan.”

Wanchen, Bartzelonako Tibetén etxea, 1995.

Tibetetik gurekin alde egin zuten monjeak Shigangeko monasterioan geratu ziren (Nepaleko sherpen monasterioa). Hala ere, gaizki-ulertu eta gatazka batzuen ondoren, beren monasterio propioa eraiki zuten Solo Khumbun: Tugkten Tshörling (bertan Tibeteko monje eta mojak daude).


Garai hartan, Nepaleko errefuxiatuen esparruetan Bhutaneko jendea, Asmakoa (India) eta beste lekutakoa ere bazegoen, baina ez zegoen bizikidetza arazorik. Nepaleko gobernua nahiko irekia zen eta esparrura iristen zen jendea arazo handirik gabe integratzen ohi zen.”

Njawanja Tharshing, Nepalén dauden Tibeteko emakumeen elkarteko presidentea.



Ariketak:

- 38** Bila ezazu atlas batean Himalaiaren eskualdea eta testigantzetako batek azaltzen digun ibilbidea jarrai ezazu, Tibetetik Nepalera joateko egindako bidea eta errefuxiatutako populazioa non ezarri zen. Kopia ezazu ibilbidea hemen.



Himalaiako herrialdeen eskualdeko mapa.

- 39** Imajina ezazu zure borondatez kontra zure herria, zure familia, zure lagunak, zure jabetzak eta ondasunak utzi dituzula eta ezagutzen ez duzun herrialde baterantz abiatu zarela bidaia arriskutsu eta ez seguru batean; herrialde horretan zuk ezagutzen ez duzun hizkuntza batean mintzatzen dira eta ez dakizu ondo hartuko ote zaituzteten. Egunen batean itzultzeko eta berriz ere guztia topatzeko itxaropena baduzu, baina ondotxo dakizu agian ez zarela sekula etxera itzuliko.
- (Oharra: Saia zaitez egoera horretan ahalik eta gehien sartzen; guretzat irudizkoa da, baina 14 milioi pertsona baino gehiagorentzat egoera erreala da).
- Zerrenda bat egin egoera horrek sorrarazten dizkizun sentimendu eta sentsazio guztiekin.
- 40** Zerrenda bat egin hartuko zenituzkeen gauzeekin, kontuan hartuta gauzak biltzeko eta halabeharrez eta betiko etxetik alde egiteko 10 minutu besterik izango ez zenituela. Pentsa ezazu bizkarrean eraman beharko dituzula eta zenbait egunez oinez ibili behar izango duzula.
- Denbora handia behar izan duzu eramango zenukeena aukeratzeko? Zein irizpideren arabera erabaki duzu gauza batzuk hartzea eta beste batzuk ez hartzea?
- 41** Komenta ezazu zure ikaskideekin zer hartu duten eta ikusi gauza bera ote diren. Argudia ezazu zure aukeraketa.

8. Fitxa

Helburuak:

- Himalaia gurutzatzea erabakitzen duen jendeak erbesterako bidean topatzen dituen zailtasunak ikastea.
- Nepalerantz doazen Tibeteko errefuxiatu-saldoen berri izatea eta Txinako presiopean Nepaleko gobernuaren politika errepresiboaren ondorioak ikastea.

Temparen erbestea

Erbestearen bidea luzea eta gogorra da, eta gogorra da, baita ere, familia eta lagunak uztea, berriz ere ikusiko ote dituzun jakin gabe. Tempa, inori deus esan gabe, maletak prestatu eta Himalaia zeharkatuz Dharamsalaraino joan nahi zuten pertsona talde batekin elkartu zen.

Erabaki zaila zen, baina Tempak bazekien Tibetean inoiz ez zuela unibertsitatean karrera bat ikasteko aukerarik izango eta lana aurkitzeko zailtasun handiak izango zituela. Lanik interesgarrienak eta ardura eskatzen duten postuak Txinako populazioarentzat gordezen dituzte, sari ekonomikoak jaso eta Tibetera joaten baitira.

Lhasatik Nepaleko mugarako ibilbidea arriskuz beterik dago. Glaziarretan ibili behar da, pasabide oso altuak gurutzatu, eta baldintza klimatikoak ez dira onak. Batzuk bidean hiltzen dira, edo gorputzaren parterean bat galtzen (hortzak, oinak, eskuak), izoztu egiten zaizkie eta. Askotan, gauez ibili behar dira kontrola saihes-teko eta oso erraza da bidea galtzea. Batzutan nekea eta etsipena itzela da; baina oso saiatsuak direnez eta Dalai-lama ikusteko ilusioa dutenez, bidean hasten diren guztiak amaieraraino iristen saiatzen dira.

Nepalera iritsita, lehendabiziko kontrola pasa behar izaten dute. Identifikatzeko paperik ez dituztenek (asko eta asko egoera horretan daude) ezin dute bidean aurrera egin eta Nepaleko agintariek Tibetera itzultzen behartzen dituzte. Paperak behar bezala dituztenei jarraibideak eta laguntza logistikoa ematen dizkiete (janaria, arropa, diru pixka bat, etab.). Tempak eta taldeko gainontzeko kideek bidean aurrera egin dezakete.

Dharamsalara iristean, Tempa etxean egongo balitz bezala sentitzen da. Guztiak berotasunez hartu dituzte, laguntza medikoa jaso dute eta egoera berdinean izan den jendearekin harremanak izan dituzte. Etxetik irten zirenetik lehendabiziko aldiz, lasai lo egin ahal izango dute, beldurrik gabe; baina errefuxiatuen estatusa lortu aurretik elkarrizketa pertsonal bat izan beharko dute Dalai-lamarekin.

Izan ere, Dalai-lamak du azkeneko hitza egunero Indian babesak bilatzen duten tibetarrei buruz. Dalai-lamak oniritzia ematen badu, paperak bideratzen dira eta jendea Indiako errefuxiatuen esparruetan banatzen dute (monje edo mojak baldin badira, monasterioetan).

Dalai-lamak kasuz kasu aztertzen du, banaka. Tibetean Txinako botereak gehien zigortzen eta ahulen bilakatzen duen populazioa babesteko beharra dagoela badaki, baina kontuan izan behar du, baita ere, bere gobernuak eta Indiako gobernuak ezinezkoa dutela guztiak hartzea. Horregatik, oso zorrotz erabakitzen du zein gera daitekeen Indian eta zein itzuli behar duen Tibetera. Gazteenei, Tempari bezala, ikasketak amaitu ondoren Tibetera itzul daitezen eskatzen die, bertan geratu den eta sufritzen ari den jendeari laguntzeko. Jendea Tibetean geratzeko beharra badagoela ere azpimarratzen du; bestela herrialdean Txinako jendea besterik ez da izango eta zailagoa izango da tibetarrentzat lurraldea berreskuratzea.

Zorionez, Tempak Dalai-lamaren onespina lortu du eta, nahi zuen bezala, Dharamsalako unibertsitatean Tibeteko medikuntza ikasten jarraitzeko aukera izango du.



Ariketak:

- 42 Zein eragozpen gairitu behar izan zituen Tempak Dharamsalara, Indiara, iristeko?
- 43 Aurreko testuan jasotako informazioaren arabera eta liburu honetan ikasi duzuenaren arabera, zure ustez, zergatik erabaki zuen Tempak Tibet uztea? Zer egin nahi du Dharamsalan?
- 44 Zuen ustez, zergatik aukeratzen du Dalai-lamak, ikusi ondoren, Tibeteko jendearen artean zeintzuk gera daitezkeen Indian eta zeintzuk itzuli behar diren Tibetera? Zuen ustez zein irizpide jarraitzen ditu aukeraketa egiteko?

Nepalen dauden Tibeteko Emakumeen Elkarteko presidenteak, Njawanja Tharshingek, elkarrizketa batean esaten zuenez, bi errefuxiatu multzo etorri dira Nepalera. Lehendabizikoa 1959ean izan zen, Dalai-lamak herrialdea utzi eta Indian babesa hartu behar izan zuenean. Lhasako, Nyalamgo, Tingiriko, Sutsoko, Membruko eta Porongeko (Cham) 800.000 pertsona inguru iritsi ziren Nepalera Mustangeko eremutik.

Bigarren errefuxiatu-saldoa 1982an iritsi zen, herrialdea apur bat ireki eta Dalai-lamaren lehendabiziko ordezkariak Tibet bisitatu zuenean. Inbasioa izan zenetik lehenengo aldiz, Txinako gobernuak Tibeteko jendea baimena eman zion herrialdetik atera eta erbestean ziren senideak bisitatzeko. Jende asko, egoeraz baliatuta, herrialdetik ihes egin eta Nepal edo Indian erbesteratu zen.

Tibetetik alde egiteko ahaleginetan ari da jendea oraindik. Adin eta baldintza sozial guztietako jendea, monjeak eta mojak, eta laikoak. Himalaia oinez zeharkatzen saiatzen dira, Nepalera, eta hortik Indiara joaten, Dalai-lama ikusteko, Tibet bizi duten arriskutik ihes egiteko, ikasketak jarraitzeko monasterio budistaren batean sartzeko eta asilo politikoa eta beren herrialdetik kanpo bizirauteko bitartekoak bilatzeko.

Iturria: Njawanja Tharshing-ekin izandako elkarrizketak.

Azkeneko urteotan, ondoren irakurriko duzuen artikuluan ikus dezakezuen bezala, egoerak okerrera egin du. Nepaleko gobernuak bertara iristen eta Dharansalarantz jo nahi zuten Tibeteko errefuxiatuen alde egin izan zuen beti, baina orain Tibeteko mugetan kontrol zorrotzagoa ezarri du, Txinako gobernuaren presioak direla-eta.

Nazioartetik Tibeteko herriak jaso duen laguntza nabarmena izan da, gizarte zibilak eman duen erantzunean behintzat. Tibeti laguntza emateko taldeak daude kontinente guztietan. Zenbait informazio sare sortu dituzte herrialdearen egoerari buruzko informazioa jasotzeko eta talde batzuek interneten kontsulta daitekeen web orri bat dute.

Txinako gobernuak gogortu egin du Nepalgoarekiko presioa

Txinako gobernuak Tibetean eta Nepalen arteko mugen kontrola areagotu du Tibeteko populazioak herrialdea utz dezan saihesteko, eta era berean Nepaleko gobernuari eskatu dio Tibeteko populazioa murrizt dezan bere herrialdean eta tibetarrak deportatu ditzan.

Bestalde, Nepaleko polizia Tibetetik ihes egin nahi duen jendearen zain egoten da Mangpalako igarobidean (5.700 metroko altueran) Txinaren esku dagoen Tibeteko lurraldera deportatzeko, Nepaleko lehendabiziko hiriraino –Dram edo Khasa izenekoa-, babestu eta eskolta eman beharrean (ordura arte egin izan zuten bezala).

Nepaleko agintariek 1995eko apiriletik 200 tibetar baino gehiago aberriratu zituzten indarrez. Deportatutako batzuk hiltzea nahiago izango zuten aberriratzea baino. (...) Gutxienez aberriratutako bi tibetar hil zituzten Nepaleko soldaduek deportatzen zituztenean.

Deportatu ondoren, Lhasa edo Shigatzeko espetxeetara eramaten dituzte eta bertan Txinako poliziak galdekatu eta torturatu egiten dituzte Dalai-lama ikusteko ihesean ari zirela aitortzen duten arte.

Iturria: Tibet Information Network. 1995eko abuztua.



Ariketak:

45 Nepalen dauden Tibeteko emakumeen elkarteko presidentearekin egindako elkarrizketa irakur ezazue eta imajina ezazue elkarrizketa egiten duen kazetaria zaretela. Testua idatz ezazue galderak eta erantzunak emanez.

46 Tibeteko errefuxiatuen aurrean Nepaleko gobernuak zuen jarrera aldatu al da? Zein neurri ezarri ditu?

47 Begiratu informatika gelan edo etxean Tibeti buruzko web orriren bat:

<http://www.geocities.com/tibetspain/>

<http://www.casadeltibetbcn.org/principal.html>

Ondoren, helbide horietan aurki daitekeen informazio motari buruzko eskema egin. Zer iruditu zaizue deigarrien?


BHUTAN



Jordi Plana.

Zer dakizu Bhutani buruz?

- Inoiz entzun al duzu ezer Bhutani buruz?
- Ba al dakizu non dagoen eta zein herrialde dituen mugakide?
- Nolako herrialdea datorkizu gogora?
 - guztiz jendeztatua ala jende gutxikoa?
 - industria girokoa ala nekazaritza girokoa?
 - hirikoa ala nagusiki landakoa?
 - landaredi tropikala ala goi-mendikoa duena?
- Zer dakizu budismoari buruz?



Bhutani buruzko datuak

Biztanleria: 2.198.363 (2002)

Azalera: 47.000 km²

Dentsitatea: 46,6 biztanle km²-ko

Hiriburua: Thimbu, 62.000 biztanle (2004)

Gobernua: Monarkia absolutua eta heredagarria

Zatidura administratiboa: 18 barruti

Herrialde mugakideak: India eta Txina

Herriak: Bhutandarrak, tibetarrak eta nepaldarrak

Hizkuntzak: Dzonga (ofiziala),
nepaleraz ere hitz egiten da

Hiriko biztanleria: %7,1 (2000)

Biztanleriaren urtez urteko hazkundera:
%3 (2000-2005)

Bizi-itxaropena: 63 urte (2000-2005)
Emakumeak: 65 urte. Gizonak: 62 urte

Alfabetatzea: %61,1 gizonezkoak (2000)
%33,6 emakumezkoak (2000)

NPG per capita: 1.412 dolar USA (2000)

Giza-garapenaren indizea
Balioa / Posizioa 0,536 / 134

Erljioa: Budista (hegoaldean, hindua)

Iturriak: Guía del mundo, 1996-1997, IEPALA eta El Estado del mundo, 1998, Akal.

Kuzuzangpo! Ongi etorri!

Buthan, nepaleraz *Herensugearen lurraldea* deritzona (Drugyul), Himalaiako mendikatean dagoen herrialde subiranoa da. 47.000 km²-ko azalera du, gutxi gorabehera Euskadi, Nafarroa eta Galiziako erkidegoek elkarrekin hartzen dutena. Bi milioi eta berrehun mila biztanle ditu; horietatik %35 Nepaldik datoz, eta %50 baino gehiago Tibetetik.

Iparraldean eta mendebaldean egun Txinaren barruan den Tibeteko plakarekin egiten du muga, eta hegoaldean eta ekialdean, Indiarekin.

Bhutan *Brotanta* hitzetik dator, sanskritoz *Tibet hartzen duten eskualdeak* adierazten duen hitzetik.

Herrialdearen hegoaldea immigrante nepalдарrek hartu zuten; horiek nepaleraz mintzatzen dira eta erlijio hinduistakoak dira. Gainerako biztanleak mongoliarrak dira jatorriz eta Tibetetik iritsi ziren Bhutanera. Dzongka da horien hizkuntza (herrialdearen hizkuntza nazionala, tibeteraren oso antzekoa), drul-yul izena jarzen dioten beren buruari eta lamaista budistak dira.

Herrialdea bakartuta egon denez gero, batez ere bere geografiatik, kultura eta hizkuntza ugarik iraun dute bizirik, baina orain, komunikazioak hobetu direnez, herrialdea mendebaldeari begira jarri denez eta bertako gobernuak herrialdea eta bertako jendea batuta mantentzeko borondatea agertu dutenez, uniformetasuna gero eta handiagoa da.



Buthanen, Himalaia osoan bezalaxe, trumoi- eta tximista-ekaitzak izaten dira sarritan; benetan ikusgarriak izaten dira, batez ere mendiek egiten duten oihartzunagatik. Bertako kondairek diotenez, tximistak herensuge zerutarrak ahotik botatzen duen sua dira, eta trumoiak haren ahotsa. Horregatik, tibetarrek *Drugyul* (Herensugearen lurraldea) izena jarri zioten Bhutani, eta *drukpa* bertako biztanleei. Jordi Plana.

1. Fitxa

Helburuak:

- Bhutan eta haren ondoan Himalaiako mendikatean dauden herrialdeak mapan kokatzen jakitea.
- Herrialdearen eskualde desberdinetako giza-taldeen bizimoduan desberdintasunak eragiten dituzten

Bhutanen geografiako hiru ezaugarri nagusiak zein diren jakitea.

- Herrialdearen geografia osatzen duten paisaia desberdinen eskema bat egitea.

Bhutan, bere hiru eskualdeak

Geografiaren ikuspuntutik, Bhutanen oso ezaugarri desberdinetako hiru eskualde daude: Himalaia Handia (ipar-ekialdean), Erdialdeko Himalaia (erdian) eta Duarseko Lautada (hego-mendebaldean).

HIMALAIA HANDIKO ESKUALDEA

Himalaia Handia herrialdearen ipar-ekialdean dago eta elur iraunkorreko gailurrak ditu 7.000 metrotik gora. Hemen ez dago uztarik, baina mendiko bazkalekuak ezin hobeak dira jakak udako hilabeteetan bazka daitezen. Eskualde honen ipar-ekialdean Tibeteko plaka dago, eta horrek ezartzen du muga iparralderantz doazen eta hegoalderantz doazen ibaien artean. Himalaia Handiko eskualdea lehor-lehorra da.

Hainbat mendetan, merkatarikari bhutandarrek eskualde hau zeharkatzen zuten Tibeteko Lhasa edo Shigatsera bidean, beren herrialdeko jantziak, zerealak eta espeziak banatzeko artileen, gatzaren eta Tibeteko jak-espezie batzuen truke. Baina 1959an Tibet Txinako lurraldean sartzean txinatarrek Bhutan inbaditzeko

arriskua areagotu zen. Lehen lur lasaiak zirenak, kanpamentu militarrek dira orain, eta garai hartan herria utzi behar izan zuten tibetar askoren aterpe.

ERDIALDEKO HIMALAIAKO ESKUALDEA

Himalaiaren inguruko mendiak edo kontrahormak dira, eta herrialdearen hegoalderantz hedatzen dira. Zazpi ibai nagusiek zeharkatzen dituzte mendiok, altuera saihestuz, Duarseko eskualderaino, eta guztiek Brahmaputra ibaiarekin bat egiten dute. Ibai hori berori izango da, beheago, Indiako lurraldean jada, Ganges ibaia.

Mendikate hauek, iparraldetik hegoaldera hedatzen direnak, oso altuera desberdinak dituzte, eta horregatik dira hain bereziak inguruko baldintza klimatologikoen eta landaredia. Bertako gailurretan belardiak topa ditzakezu, baina baita baso trinkoak ere.

Herrialdeko haran emankorretako asko eskualde honetan daude. Zereal eta patata sailak eta sagarrondoak dira berton nagusi. Nekazaritza hau batik bat esportazioarako da. Aldi berean, biztanleria kontzentrazio handieneko gunea dugu hau.

DUARSEKO LAUTADAKO ESKUALDEA

Herrialdearen hego-mendebaldeko eskualdea dugu hau. Bengaleko lautadaraino hedatzen da. Hemen amaitzen dira Himalaiaren hegoaldean dauden mendiak, kolpean amaitu ere, muga naturala eratzen duten amildegiekin, gotorlekuan sartzeko ateak dituen harresia bailiran.

Euri gehiegi eta hezetasun eta bero handiegia egiten duenez, lautadako giroa ezin hobe da eltxoentzako eta mota guztietako intsektuentzako. Baso semitropikala da nagusi, oihanpe oso trinkokoa. Lautadaren eta mendien arteko atalasean basoa garbitu da zenbait puntutan, herri txikiak sortzeko eta arroza, garia edo



Familia-plangintzarako kanpainak. Jordi Plana.

artoa landatzeko. Eskualdeko gainerako zatian landare-redi trinko-trinkoa da nagusi, eta elefanteak, garia, oreinak eta modu basatian bizi diren beste animalia batzuk daude bertan.

Duarseko hegoaldeak India du mugakide, eta sabana-landaredia eta banbu-basoak daude bertan. Sabanako gune batzuk arroza landatzeko garbitu dira. Hemen daude herrialdean merkataritza-jarduera handia duten hiri eta herrietako batzuk. India eta Bhutan arteko komunikazioak eta merkataritza-bide nagusiak ibai handietan zehar zabaldu dira, eta merkataritza-gune hauetatik igarotzen dira. Eskualde honetako klima tropikala egokia da oso laranja-, banana- eta kardamomo-sailetarako.

Herrialdean errepide garrantzitsu bakarra dago, Parotik Tashigangera doana. 600 km ditu eta herrialdea zehar-

katzen du ekialdetik mendebaldera, oso orografia gora-beheratsua gaindituz, 4.000 metrotik gorako igarobideak eta haran itxi-itxiak tartean. Errepide hau esklaboek egin zuten, herrialdeko gerra-presoei. Esklabotza deuseztatu zenetik inork ere ez ditu lan horiek bere gain hartu nahi, izan ere, oso lan gogorrak izaten dira, eta trukean gutxi jasotzekoak. Azkenaldian egin diren edo egiten ari diren errepide guztiak aldi baterako kontratatutako langile kanpotarrek eginda daude, Nepaldik edo Indiatik etorritako langileek, hain zuzen. Asko emakumeak dira.

Herrialdeko errepide gehienak ezin erabil daitezke neguan, elurra batzen delako edo elur-jausi arriskua dagoelako, ezta udan ere, montzoien garaian izaten diren lur-jausiak direla eta.




Jordi Plana.




Ariketak:

- 1 Kokatu Bhutan mapa huts honetan. Ondoren, kokatu mugakide dituen herrialdeak eta Himalaiako eskualdeko gainerako herrialdeak.



- 2 Aurreko ariketako mapan, adierazi gezi bidez Asiako beste herrialde batzuetatik Bhutanera doazen migrazio-mugimenduak, eta idatzi jatorrizko herrialdea eta helmuga.
- 3 Erreparatu Bhutango mapa fisiko honi eta bertako geografiaz egiten den deskribapenari, eta egin herrialdearen eskema bat, paisaia-gune desberdinak, gune jendeztatuak, bazkalekuak, sail desberdinak, etab. zehaztuz. Adierazi elementu bakoitza kolore batez, besteengandik bereizteko.



- 4 Zer produktu trukutzen dituzte merkatari bhutandarrek tibetarrekin? Zergatik murriztu dira truke horiek?

2. Fitxa

Helburuak:

- Eskualdeko herrialde desberdinetako migrazio-fluxuak ezagutzea, Himalaiatik Bhutanera.
- Bhutango gobernuak pertsona immigranteak gizarteratzeko zer politikari jarraitzen dion aztertzea.
- Bhutan eta Tibeten arteko lotura erlijiosoak eta historikoak ezagutzea.
- Bhutango gobernuaren turismo-politika aztertzea.

Hastapenetatik gaur egun arte

Bhutan herri aske moduan Shabdrung Ngawang Namgyalek sortu zuen, XVII. mendean *Hegoaldeko Haranen*¹ jabe egin zen lama tibetarrak. Beste inbadi-tzaileengandik babesteko, dzongak (abadetxe harresituak) eraikarazi zituen herrialdeko haranetako bakoitzean. Shabdrungek abiarazi zuen herrialdearen antolaketa XX. mendearen hasierara arte iraun zuen; orduan errege-familia batek hartu zuen boterea, Wangchuck zeritzenak. Egun dzongak gobernu zentralaren eta eskualdeetako eta barrutietako gobernuen egoitza politikoa dira. Jigme Dorji Wangchuck erregeak, egungo erregearen aitona, herrialdearen mugak kanpora zabaltzen zituen.

Indiak independentzia lortu zuenetik eta britainiarrak Asiako eskualde horretatik alde egin zutenetik, Indiak Bhutango aholkulari eta babesle lana betetzen du. Urtero 25 milioi dolar ematen dizkio herrialde honi (herrialdearen urteko aurrekontuaren %65, hain zuzen ere), garapenerako laguntza moduan. Modu horretara, herriaren garapena, neurri handi batean, Indiarengandik jasotzen duen laguntzaren mende dago.

Bhutan modu arin samarrean ari da garatzen, nahiz eta garapenerako edozein proiektu sakon aztertzen den eta ez den garatzen baldin eta kalte ekologikoa txikia izango den bermerik ez badago.

“Basoak material genetikoari dagokionez dugun erreserba bakarra dira. Behin desagertuz gero, ez dira itzultzen, hori dela eta ez ditugu datozen belaunaldien baliabideak hipotekatuko egungo garapenaren kostua ordaintzeko.”

Dasho C. Dorji herrialdeko ministroaren hitzak.²

Herrialdearen aberastasun naturala babesteko, lurraldearen %20 erreserba natural izendatu dute. Erreserbarik garrantzitsuenetakoa Royal Manas National Park

izenekoa da. 1910ean, Bhutan eta India lotzen dituen eta Duarseko lautada zeharkatzen duen errepeidea egin zutenean, askok Nepaldik alde egin behar izan zuten, eta horiek obra amaitzean Bhutanen geratzea erabaki zuten.

Gaur egun, lau buthandarretik bat jatorri nepaldarrekoa da. Hori arazo bihurtzen hasi da, izan ere, gobernuak ez du aintzat hartzen eta jatorri nepaldarrekoak gizarteratu nahi ditu nagusi den kulturaren barruan, haien kultura kontuan hartu gabe. Indarren arteko desoreka nabarmena da, iparraldeko drukpen eta herrialdearen hegoaldeko jatorri nepaldarreko bhutandarren artean. Parlamentuko kide gehienak eta erregea bera drukpak dira, Budaren jarraitzaileak, hainbat mendetan iparraldeko mendietan egondakoak. Herrialdearen hegoaldeko biztanle gehienak jatorri nepaldarrekoak dira, erlijio hinduistakoak, eta haien arbasoak Bhutanera heldu ziren soroetan edo eraikuntzan lan egiteko XX. mendean hasieran.

Azken urteotan, Nepaldik etorritako milaka lagun herrialdearen hegoaldean modu ilegalean kokatu dira, lanaren edo landatzeko lur emankorren bila.

Jigne Singhye Wangchuck erregea oso kezkatuta dago, herrialdeko tradizioa galdu baitaiteke eragin nepaldararen ondorioz; hori dela eta, neurriak hartzen ari da, nola edo hala nepaldar jatorriko biztanleak gizarteratzeko. Gobernutik bultzatu egiten dira, pizgarri ekonomikoen bidez, komunitate bietako pertsonen arteko ezkontzak. Era berean, Bhutandar guztiak jantzi tradizionala janztera behartzen dituen lege bat ezarri da. Legea betetzen ez duenak isuna ordaindu behar du, eta kartzelara joan daiteke. Egun jada ez da nepalera irakasten eskolan.

¹ Himalaiako eskualdeak zuen izena, Bhutan izan aurretik.

² Iturria: National Geographic. 179. liburukia, 5. zenbakia, 1991ko maiatza.



Tradizioei eustearen eta aurrerapenaz baliatzearen arteko oreka. Barbara Roubicek.

“Herrialdea batu nahi dugu entitate bakar batean. Bhutan txikiegia da hainbeste desberdintasuni eusteko. Hegoaldeko jendeak Nepalez bere lurra bailitzan hitz egiteari utz diezaion nahi dugu. Den-denok bhutandar herritarrak gara. (...) Gu ez gaude demokraziaren kontra eta gure arazo etnikoak konponduko diren itxaropena dugu.” esan zigun erregeak.

“Arin-arin garatu nahi genuke, baina halaber, garapenaren, tradizioaren eta ingurumenaren arteko orekari eutsi nahi diogu. Gure biztanleak behartsuak dira, baina hemen ez da inor gosez hiltzen.”³

Jigne Singhye Wangchuck
egungo erregearen hitzak.

Ariketak

- 5 Noiz eta zergatik heldu ziren lehenengoz immigrante nepaldarrak eta indiarak Bhutanera?
- 6 Zergatik sartu dituzte erregak eta gobernuak nagusi den drukpa-kulturaren barruan herrialdearen hegoaldean bizi diren nepaldar jatorriko bhutandarrak?
- 7 Zein dira proposatzen duten gizarteratze-ereduaren abantailak eta eragozpenak?
- 7 Zergatik ezarri dute Bhutango erregeak eta haren gobernuak urteko bistarien kuota mugatu bat?

³ Iturria: National Geographic. 179. liburukia, 5. zenbakia, 1991ko maiatza.

Helburuak:

- Budismoaren ezaugarri nagusiak zein diren jakitea: jatorria, hedapena, eboluzioa, eskola desberdinak, sinesmenak, erritualak, etab.
- Budaren irudira hurbiltzea.

Zer da budismoa?

Budismoa bizitzeko filosofia eta estilo bat da, erlijio bat baino gehiago. Budismoak ez du bultzatzen jainko jakin baten gaineko fedea; *mundu materialari uko egiten dion bizitza bat* du oinarri, sufrimendutik libratzeko eta *argialdi-egoera* lortzeko eta *haragitze*-zirkulutik libratzeko (*karma*, kausa-ondorio legea; hau da, bizitza honetan egiten dugun horrek zehaztuko du zer egoratan eta girotan jaioko garen berriz), *nirvana* edo bake-egoera iraunkorra lortzeko.

Budismoak eragin handia izan du eta oraindik ere badu Ekialdeko bizitza espiritual, kultural eta sozialean, eta XX. mendeaz geroztik Mendebaldearentz zabaldu da. Ohiko bihurtzen ari da Europan eta Amerikan tenplu budistak aurkitzea. Budismoa Indiako iparraldean sortu zen Kristo aurreko 600 eta 400 urteen artean. Ez daki-gu zehazki noiz jaio zen Siddhartha Gautama, Buda, budismoaren sortzailea, baina jakin badakigu Buda Indian ezegonkortasun politikoa eta erlijiosoa nagusi zen garaian jaio zena. Alde batetik, brahmanismoa, ordura arte korrante hinduista nagusia zena, krisian sartu zen. Brahmanismoa, panteoi zerutarraren eta gizadiaren artean bitartekari izateko gizarteko leinu gorenaren subiranotasuna eta boterea onartzen zituen hindusimoaren sekta, oso zorrotza zen, eta horren ondorioz, jarraitzaile askok (batez ere biztanlerik apalenak, behe-leinuetakoak) haren agintea ezbaian jarri zuten. Bestetik, eskola edo sekta hinduistak ugaritu ziren, horietako asko gero budismoa izango zenaren oso hurbilekoak.

Testuinguru horretan jaio zen, errege-familia batean, buda izateko itxura guztiak zituen umea. Siddhartha Gautama ez zen ez lehenengo ez azkenengo buda izan. Esanahiari erreparatuz gero, budak argia adierazten du, eta horixe da, hain zuen pertsona orok lor dezakeen egoera ahaleginaren bidez, gauza materialei uko eginez eta yoga praktikatuz.

Siddhartha jaio zenean, jakintsu hinduistek goitik behera aztertu zuten eta gurasoei esan zieten ume hura buda izango zela. Etxean haurra erosotasunera eta luxura ohitu zuten, baina mirabearekin paseoan irteten zenean, kaletarrei begiratzen zien, eta haien

- Hinduismotik eta budismotik etorri arren, gure kulturen ere gero eta sartuago dauden hitzen esanahia ezagutzea: nirvana, karma, haragitzea, yoga, gogoeta, xamanismoa, lama, etab.

sufrimendua ikusten zuen. Siddharthak ezin zuen sinetsi, haren mirabeak esaten zionez, sufrimendua eta gizakiak eskutik zihoazela.

Hazi zenean, lehengusina batekin ezkondu zen. Lehen semea izan zuenean kobazulo batera joatea erabaki zuen, yogan eta gogoetan jarduteko. Hainbat maisuk gogoetarako eta yogarako teknikak irakatsi zizkioten, eta horien eginbearra zen egia absolutua, *nirvana* aurkitzen laguntzea. Maisu batek ere ez zuen guztiz konbentzitu. Azkenik, lur zati bat topatu zuen, ur garbi eta freskoko erreka eta zuhaitzia ondoan, janaria lor zezakeen herrixka batetik hurbil, eta bertan geratu zen bizitzen. Sei urtez bizimodu gogorra izan zuen, ukoz betea, eta azkenean hain gutxi jatearen ondorioz konortea ere galdu zuen, eta askok hil zela uste izan zuten. Esperientzia hark erakutsi zion ahultasun fisikoak ez ziola egia aurkitzen lagunduko eta berriz ere jaten hasi zen.

38 urterekin, urtetan mundu materialari uko eginda eta zenbait alditan deabruen tentazioa gaindituta, Siddharthak, gogoeta sakonean murgilduta, Buddhagayako (Indian) zuhaitz baten azpian, argia ikusi zuen. Bere esperientziaren ondoren, Siddhartha Gautamak argi zeukan ez abstinentziak, ez mortifikazioak, ez ziotela lagundu argia ikusten. Arrazoi horregatik, bere gomen-dioa tarteko puntua aurkitzea zen, neurri egokia gauza guztietan.



Fraide budista hormairudi erlijiosoa egiten. Barbara Roubicek.

Ordutik, beste batzuk konbentzituta, Siddharthak ikasitakoa irakasteari ekin zion. Tarteko bidea aurkitu zuen (ez gehiegikeria, ez mortifikazioa), eta bide horretan zortzi jarrera zeuden: begirada, pentsamendua, hizketa, ekintza, bizimodua, konpromisoa, sendabidea eta kontzentrazio egokia.

Bere irakspenetan Gautamak haxe zioen:

"Giza existentzia gatazkaz, atsekabez, nahigabez eta sufrimenduz josita dago. Hori guzti hori gizakien irrikatik dator. Gizakiok horretatik askatu edo burujabetu egin gaitezke, eta Nirvana deritzon egoerara heldu. Haxe da hori lortzeko bidea".

Modu horretara, fraide budisten lehen ordena eratu zen, eta horiek, Budaren beraren aholkuei jarraiki, Asia osotik ibili ziren haren mezua zabaltzeko. Budak ez zituen sekula bere irakatsiak idatzi, baina bere heriotzaren ondoren zenbait bertso kaleratu ziren, eta hortik eskola budista desberdinak sortu ziren.

Egun, eskola desberdin asko daude (sekta edo leinu budistak ere deritzenak), eta gainera, horietatik azpieskolak sortu dira, eta bakoitzak bere izena hartu du.

Budismoa: Bhutango estatuaren erlijioa

Budismoa Bhutango erlijio ofiziala da, *drukpa* komunitateak praktikatzeko duena; horrela deritza herrialdearen iparraldean eta erdialdean bizi den talde etnikoari.

Bhutango eskola budista nagusiari ere *drukpa* edo *lamaismoa*⁴ esaten zaio, eta *Mahayana* eskolaren ebo-luzioaren ondorio da. Testu budistak ulertzeko aditu baten edo *lama* (fraide) baten laguntza behar da; berak erakusten die bidea dizipuluei, eta goi-mailako ulermen espiritualera gidatzen ditu. Sarbide-erritu hau urtetakoa izan daiteke eta diziplina handia eskatzen du.

Eskolarik ezagunenak hauek dira:

- *THERAVADA* edo *HINAYANA* budismoa, *jakintsuaren irakatsia* edo *ibilgailu txikia* deritzona; bertan esaten denez, *nirvana* lortzeko eta haragitzeen zirkuluarekin amaitzeko bidea pertsonala da, eta gogoeta, ukoa eta ontasuna oinarri dituen bizi-moduarekin lortzen da. Bakarrean egin beharreko bidea da. Edozeinek lor dezake, baina horretarako ahalegindu egin behar da.
- *MAHAYANA* budismoa, *ibilgailu handia* deritzona. *Mahayanaren* jarraitzaile direnek uste dute budismoaren jarraitzaile guztien sinesmenak eta praktikak batuz haragitzeen zirkulutik askatzea lortzen dela, bai eta gizadia osoarentzako *nirvana* ere. Sri Lankan, Nyanmarren (antzinako Birmania) eta Thailandian *Theravada* edo *Hinayana* (ibilgailu txikia) budismoaren jarraitzaile dira, eta Tibetean, Bhutanen eta Nepalen, aldiz, *Mahayanaren* (ibilgailu handia) jarraitzaile dira.

Sri Lankan, Myanmarren (antzinako Birmania) eta Thailandian *Theravada* edo *Hinayana* (ibilgailu txikia) budismoaren jarraitzaile dira, eta Tibetean, Bhutanen eta Nepalen, aldiz, *Mahayanaren* (ibilgailu handia) jarraitzaile dira.

Egun, 3.500 *gelong* (Bhutango fraideek hartzen duten izena) baino gehiago daude Bhutanen, eta Estatuaren diru-laguntza jasotzen duten abadetxeetan bizi dira. Herrialdean, beste 3.000 fraide patroï pribatu baten mende bizi dira, eta *gomchem* (baseko fraidea) izeneko beste 15.000 ere badaude; azken hauek eskola budista desberdin bati, *Nyingmapari*, jarraitzen diote, eta ez dute fraide-bizitzarik egiten. *Gomchemak* familiarekin bizi dira, lurrak lantzen dituzte eta zeremonietan parte hartzen dute, beste lamak bezala. Emakumezko fraide budistak edo lamak ere badaude, baina kopuru txikiagoan.

Ariketak:

- 8 Azaldu zeure hitzez aurreko testuan letra etzanez-beltzez dauden hitzen esanahia.
- 9 Noiz eta zer egoeratan jaio zen budismoa?
- 10 Laburtu hitz gutxitan nor zen Siddhartha Gautama, non bizi izan zen eta zer egin zuen.
- 11 Azaldu zeure hitzez zer predikatzen duen budismoak.
- 12 Zer da nirvana? Mundu guztiak lor dezake?
- 13 Zer esan nahi du karmak eta zer egin behar da harengandik askatzeko?
- 14 Azaldu zeure hitzez bi eskola budista garrantzitsuenen arteko desberdintasuna.
- 15 Zein eskolatakoak dira budista tibetarrak? Eta Sri Lankakoak? Eta Bhutangoak?
- 16 Azaldu Bhutanen dauden fraide budista batzuen eta besteen arteko desberdintasunak.

⁴ Budismoaren eta xamanismoaren arteko nahasketa— praktika esoteriko espiritualak.

3. Fitxa

Helburuak:

- Abadetxe budistetako ume fraideen bizimodura hurbiltzea.
- Arte herrikoi budista ezagutzea eta saioak egitea.

Gempo, ume fraide budista bat

Gempo Bhutanen lurrak dituen nekazari-familia baten seme gazteena da. Haren anaia nagusia izango da, herrialdearen tradizioak agintzen duen legez, familiaren lur guztiak eta egun anaiak, arrebak, aita eta ama bizi diren etxea hartuko dituen oinordetzan.

Gempok 5 urte zituela, gurasoek abadetxera bidali zuten ikasi eta fraide budista bihur zedin. Familia bhutandar askok hurbilen den abadetxera bidaltzen dituzte seme-alabak. Sarritan, ez dute arrazoi erlijiosoengatik egiten, ekonomikoengatik baizik: aho bat gutxiago igarri egiten da janaria banatzeko orduan! Gainera, 50eko hamarkadara arte, Bhutanen ez zegoen eskolarik, eta hezkuntza jasotzeko eta irakurtzen eta idazten ikasteko modu bakarra, txikitatik abadetxe batera joatea zen.

Abadetxeetara doazen umeen familiek eta eraikin hauetara doazen sinestunek eskaintzak egiten dituzte: *tsampa* (garagar-irina), jak-gurina eta *ngultrums* (Bhutango diru nazionala, balioari dagokionez errupiarren pareko dena) batzuk eskaintzen dituzte. Modu horretara, fraideen komunitateen ekonomiaren alde egiten dute, izan ere, nekazaritza, zaintzen dituzten



Gempo, hainbat ume bhutandar bezala, eskolaratuta dago fraide budista izateko prestakuntza jasotzen ari den bitartean. Jordi Plana.

artaldeak eta emakidak dira komunitate horien bizibidea.

Abadetxean, Gempok irakurtzen eta idazten ikasi du, eta halaber, santuen bizitza eta Budismoaren hasierako kontzeptuak ikasi ditu.

Gempo abadetxean sartu zenean, ez zegoen lehen hezkuntzako eskola bat ere bere herritik hurbil.

Abadetxean denetarik egiteko astia dago, bai eta jolaserako eta aisia emateko ere. Gempo eta bere lagunak etengabe jolasean ari dira. Pasabideetan zehar lasterka egitea eta oinetan patinak eramango balituzte bezala irristatzea dira gustukoen dituzten jolasak. Inoiz edo behin, ume guztiek bezala, bihurrikeriaren bat egiten dute, eta errietan egiten diete, eta zigortu batzuetan. Aldiz, eskola eta otoitz orduetan Gempo ume serio eta arduratsua da.

Egunero bostetan jaikitzen dira eta klasera sartu orduko jada bitan egiten dute otoitz, gosaldutik egiten dute eta eguneko garbiketa-lanak egiten dituzte.

Sukaldariak *gogn* lapikokada banatzen duenean, mundu guztia ilaran jartzen da, bere zatia jasotzeko. Ondoren, lurrean esertzen dira, janari-kaikuari ezker eskuarekin eusten diote eta zain egoten dira, guztiek beren zatia jaso arte. Orduan, eskuin eskuko atzamarekin arroz egosia hartu, bola bat egin eta, minutu bat ere galdu gabe, ahoan jartzen dute. Gose handia dute guztiek eta ari jaten dute. Ez da txintik ere entzuten. Batzuetan, Gempok janaria zerbitzatzen du edo jak-gurina, tea eta gatzak banatzen ditu goiz erdian edo arratsalde erdian.

Gempok 12 urte bete ditu orain eta ez daki abadetxean jarraituko duen ala ez. Abadetxe budistetan ikasten duten ume guztiak bertan gera daitezke nahi badute, eta ikasten eta fraide bihurtzen jarrai dezakete, baina horrelakorik nahi ez dutenak abadetxetik irten daitezke, nahi dutenean gainera.

Kideetako batzuek abadetxea itxi dute jada; beste batzuk, 16 urtetik gorakoak, nobizio egin dira.



Otoitz-liburuak. Barbara Roubicek.

Nobizio izateko lamen batzarraren aurrean agertu behar dute, beraien maisuak lagunduta, eta konpromisozko agintza egitea Budaren, fraide komunitatearen eta legearen izenean. Orduan egiten dute kastitate-botoa, eta halaber, zin egiten dute ez dutela ez lapurtuko, ez hilko, ez gezurrik esango, ez eta elikagai gehiegi jango ere. Behin betiko botoak aurrerago egiten dituzte, urte asko eman ondoren nobizio.

Gemporen irakasleetako batek behin eta berriz esaten die: “Hobe da 10 egunean gauza bat egiteko konpromisoa hartu eta betetzea, hainbat urtean egingo duzula esan eta ez betetzea baino”.

Gempok botoak egitea erabakita ere, edozein unetan utzi liezaioke fraide izateari, abadetxetik alde egin eta beste askok bezala bizimodu sekularra egiteko. Fraide-bizitza uztea gizarteak onartutako zerbait da: asko dira, urtetan fraide izan arren, goiz ala berandu bizitza sekularra egiten dutenak, eta gainerako biztanleek bezala familia bat osatu eta lanean hasten direnak. Gemporen osabetako bik egin dute hori.

Abadetxean bizitza oso ordenatua da. Guztiek dakite zer egin behar den une bakoitzean. Umeek aisialdirako

une asko dituzte, klaseen artean, eta otoitz-orduen tartean. Pozik daude abadetxean egoteaz, batez ere festa-garaian. Abadetxe bakoitzak bere festa du. Urte guztian desfilea eta mozorro-dantzak prestatzen dituzte, eta mozorro horiek harrotasun eta ilusio handiz erakusten dituzte. Aste oso bat ematen dute gelditu gabe dantzan, otoitzean, desfilean eta kantuan. Benetako festa da!



Mozorroak prest daude festarako. Barbara Roubicek.

Ariketak:

- 17 Nor da Gempo eta zer egiten du abadetxe budista batean?
- 18 Zer egin behar da abadetxe batean sartzeko eta bertatik irteteko?
- 19 Zer egiten dute umeek abadetxeetan? Zertan ematen dute eguna?
- 20 Zer egin behar da nobizio izateko eta lama (fraide) izatera heltzeko?
- 21 Zer dauka pentsatuta Gempok etorkizunerako?
- 22 Zertan ematen du bere denbora libre?
- 23 Zergatik egoten dira urte osoan bere abadetxeko festak noiz helduko zain?



- 24 Erreparatu mozerro honi; Gempok eta bere lagunek abadetxeko festetan eramaten dituzten horietako baten kopia da. Kolore asko izaten dituzte. Margotu eta, astirik baldin baduzue, igeltsuzko bat egin eta margotu egin dezakezue.

